


50  
aniversario urteurrena

## ZORNOTZA ETA BERMEO ARTEKO TRENA

### EL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A BERMEO

IDAZLEA. AUTOR  
JUANJO OLAIZOLA ELORDI



  
**EuskoTren**

# *Eskerrak*

Edorta Jiménez, Javier Vivanco, José Ángel Etxaniz, Gernikazarra Historia Taldea, Javier José García Sánchez, Hilario Aurtenetxe, Manuel Muñoa, José Gutiérrez Tejerino, José Manuel García Suárez, Francisco de los Cobos Arteaga, Javier Fernández López, José Antonio Gómez Martínez, Pedro Pintado Quintana, Georges Muller, Pedro Pérez Amuchastegui, Xavier Santamaría, Familia Buesa, Eduardo González Iturritxa, José Antonio Tartajo, Jeremy Wiseman, Amparo Fernández, Lourdes Toscano, Mikel López Horque eta Basauriko presondegiko langileak.

# *Agradecimientos*

Edorta Jiménez, Javier Vivanco, José Ángel Etxaniz, Gernikazarra Historia Taldea, Javier José García Sánchez, Hilario Aurtenetxe, Manuel Muñoa, José Gutiérrez Tejerino, José Manuel García Suárez, Francisco de los Cobos Arteaga, Javier Fernández López, José Antonio Gómez Martínez, Pedro Pintado Quintana, Georges Muller, Pedro Pérez Amuchastegui, Xavier Santamaría, Familia Buesa, Eduardo González Iturritxa, José Antonio Tartajo, Jeremy Wiseman, Amparo Fernández, Lourdes Toscano, Mikel López Horque y el personal de la prisión de Basauri.

IDAZLEA. AUTOR  
JUANJO OLAIZOLA ELORDI

HITZ-ATZEA. EPÍLOGO  
EDORTA JIMÉNEZ

ITZULTZAILE. TRADUCTOR  
JOSEBA BERRIOTXOA

DISEINU ETA MAKETAZIOA. DISEÑO Y MAQUETACIÓN  
CMC CANAL

INPRIMATEGI. IMPRENTA  
XXXXXXXXXX

ISBN  
XXXXXXXXXX

DEPÓSITO LEGAL. DEPÓSITO LEGAL  
XXXXXXXXXX

# ***Aurkibidea***

## ***Indice***

- 7 Sarrera**  
*Introducción*
- 9 Zornotza eta Bermeo arteko trenbidearen eraikuntza**  
*La construcción del ferrocarril de Amorebieta a Bermeo*
- 79 Zornotza eta Bermeo arteko trenbidearen lurretatik barna**  
*Por las tierras del ferrocarril de Amorebieta a Bermeo*
- 87 Ehun eta hamasei urte jendeari zerbitzua eskaintzen**  
*Ciento dieciséis años de servicio público*
- 133 Azpiegitura eta instalazio finkoak**  
*Infraestructura e instalaciones fijas*
- 185 Material motorra**  
*El material motor*
- 247 Atoian eramandako materiala**  
*El material remolcado*
- 269 Segurtasuna zirkulazioan**  
*Seguridad en la circulación*
- 273 Uztiapena eta zerbitzuak**  
*Explotación y servicios*
- 279 Industria arkeologia**  
*Arqueología industrial*
- 282 Epílogo**  
*Epílogo*
- 289 Kronologia**  
*Cronología*
- 291 Bibliografia**  
*Bibliografía*
- 293 Apéndice**  
*Apéndice*


*Liburu hau egunero Urdaibaiko trenari bizia ematen dioten langile eta bidaiari guztiei eskainita dago, oroimen berezia eginik frankismoaren biktimak izandako preso, miliziano eta gudariei. Hauen guztien ahaleginari esker, trena Bermeora heltzeko antzineko ametsa errealitate bihurtu zen.*

*Jose Ramon Madinaveitiaren oroimenean, profesional bikaina eta pertsona hobea, XIX. mendeko euskal trenbide sarea eraiki zuten Pablo de Alzola, Adolfo Ibarreta edo Valentín de Gobeña bezalako ingeniari-leinuaren merezitako oinordekoa.*

*Este libro está dedicado a todos los trabajadores y viajeros que día a día dan vida al tren del Urdaibai, con un especial recuerdo a los presos, milicianos y gударis, víctimas del franquismo, que con su esfuerzo hicieron realidad el viejo sueño de que el tren llegara a Bermeo.*

*En memoria de José Ramón Madinaveitia, gran profesional y mejor persona, digno heredero de aquella estirpe de ingenieros que como Pablo de Alzola, Adolfo Ibarreta o Valentín de Gobeña construyeron la red ferroviaria vasca del siglo XIX.*





ZORNOTZA ETA BERMEO ARTEKO TRENBIDEAREN PLANOA. PEDRO PINTADO QUINTANAREN MARRAZKIA.  
 PLANO DEL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A BERMEO. DIBUJO DE PEDRO PINTADO QUINTANA.

**ZORNOTZA ETA  
 BERMEO ARTEKO  
 TRENA**

**EL FERROCARRIL  
 DE AMOREBIETA A  
 BERMEO**

## Sarrera

1863an, Miranda de Ebron<sup>1</sup> Bilbo trenbide sare nagusiarekin lotzeko helburuz eraikitako Bizkaiko lehenbiziko trenbidearen finantza porrotaren ondorioz, mota horretako proiektu berriak erabat geldik geratu ziren hurrengo bi hamarkadatan<sup>2</sup>. Horrekin kontrajarrita, hiriburua eta Durango<sup>3</sup> artean Jaurerrian eraiki zen trenbide estuko lehen linearen arrakasta ekonomikoaren ondorioz, garraiobide horrek garapen ikusgarria ezagutu zuen, eta, horrela, hamabost urteko epean, 168 kilometro trenbide baino gehiago eraiki ziren probintzian, honako enpresa hauen artean:

- Bilbo eta Areeta arteko trenbidea, 13 kilometro, zerbitzuan 1887ko uztailaren 1etik aurrera.
- Durango eta Zumarraga arteko trenbidea, 18 kilometro Bizkaiko lurretan, zerbitzuan 1887ko irailaren 22tik aurrera.<sup>4</sup>
- Bilbo eta Portugalete arteko trenbidea, 12 kilometro, zerbitzuan 1888ko irailaren 24tik aurrera.<sup>5</sup>
- Zorrotza eta Balmaseda arteko trenbidea, 27 kilometro, zerbitzuan 1890eko abenduaren 5etik aurrera.
- Zornotza eta Gernika eta Sukarrieta arteko trenbidea, 25 kilometro, zerbitzuan 1893ko martxoaren 15etik aurrera.
- Areeta eta Plentzia arteko trenbidea, 14 kilometro, zerbitzuan 1893ko irailaren 5etik aurrera.
- Lutexana eta Mungia arteko trenbidea, 16 kilometro luze, 1894ko uztailaren 10ean inauguratua.
- La Robla eta Balmaseda arteko meategi trenbidea, lau kilometro besterik ez Bizkaiko lurretan, baina oso garrantzitsuak probintziako industriarako, linea horren zerbitzua jasotzen zuten ikatz meategi nagusiekin lotzeko aukera eskaintzen baitzuen. 1894ko irailaren 4an hasi zen zerbitzua eskaintzen.
- Bilbo eta Lezama arteko trenbidea, 12 kilometro luze, 1895eko martxoaren 30ean inauguratua.
- Zalla eta Solares arteko trenbidea, 27 kilometro Bizkaiko lurretan, zerbitzuan 1896ko ekainaren 6tik aurrera.

<sup>1</sup> Bilbo eta Tuterako arteko trena, erabat inauguratua 1863ko abuztuaren 31n.

<sup>2</sup> Salbuespen bakarra Trianoko trenbidea izan zen, Bizkaiko Aldundiak sustatua eta 1865eko ekainaren 26an inauguratua. Linea hau eraikitzea ezinbestekoa zen Ortuellako meategi-esparruak Sestaon zeuden Nerbioi itsasadarreko zamatzetokiaren lotzeko.

<sup>3</sup> 1882ko ekainaren 1ean inauguratua.

<sup>4</sup> Bizkaiko zatia martxan hasi zen eguna. Izan ere, linea ez zen Zumarragara heldu 1889ra arte.

<sup>5</sup> Garai horretan eraikitako guztien artean, Bilbo eta Portugalete arteko trenbide zabalez, errailen artean 1.672 mm. arteko tartea utziz, eraikitako bakarra izan zen, gainerako guztietan, errailen barrualdetik metro bateko tartea zuen trenbide estua aukeratu baitzen.

## Introducción

El fracaso financiero del primer ferrocarril de Vizcaya, construido en 1863 con el propósito de de enlazar Bilbao con la red general de ferrocarriles en Miranda de Ebro,<sup>1</sup> supuso la completa paralización de nuevos proyectos de esta clase durante cerca de dos décadas.<sup>2</sup> En contraste, el éxito económico de la primera línea de vía estrecha establecida en el Señorío entre la capital y Durango<sup>3</sup> impulsó un vertiginoso desarrollo de este medio de transporte, con la ejecución en el plazo de quince años de más de 168 kilómetros de vías férreas en su territorio provincial, repartidos entre las siguientes empresas:

- Ferrocarril de Bilbao a Las Arenas, 13 kilómetros, en servicio desde el 1 de julio de 1887.
- Ferrocarril de Durango a Zumárraga, con 18 kilómetros en territorio vizcaíno, en servicio desde el 22 de septiembre de 1887.<sup>4</sup>
- Ferrocarril de Bilbao a Portugalete, con 12 kilómetros, en servicio desde el 24 de septiembre de 1888.<sup>5</sup>
- Ferrocarril de Zorroza a Balmaseda, con 27 kilómetros, en servicio desde el 5 de diciembre de 1890.
- Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, con 25 kilómetros, en servicio desde el 15 de marzo de 1893.
- Ferrocarril de Las Arenas a Plencia, con 14 kilómetros, en servicio desde el 5 de septiembre de 1893.
- Ferrocarril de Luchana a Munguía, de 16 kilómetros de longitud, inaugurado el 10 de julio de 1894.
- Ferrocarril hullero de La Robla a Valmaseda, con apenas cuatro kilómetros en territorio vizcaíno, pero de vital importancia para su industria ya que permitía la conexión con las importantes minas de carbón servidas por esta línea. Entró en servicio el 4 de septiembre de 1894.
- Ferrocarril de Bilbao a Lezama, con 12 kilómetros de recorrido, inaugurado el 30 de marzo de 1895.
- Ferrocarril de Zalla a Solares, con 27 kilómetros en territorio vizcaíno, en servicio desde el 6 de junio de 1896.

<sup>1</sup> Ferrocarril de Bilbao a Tudela, inaugurado en su totalidad el 31 de agosto de 1863.

<sup>2</sup> La única excepción fue el ferrocarril de Triano, promovido por la Diputación de Vizcaya e inaugurado el 26 de junio de 1865. La construcción de esta línea resultaba fundamental para enlazar los cotos mineros del distrito de Ortuella con los cargaderos de la ría del Nervión en Sestao.


<sup>3</sup> Inaugurado el 1 de junio de 1882.

<sup>4</sup> Fecha de puesta en servicio del tramo vizcaíno, ya que la línea no alcanzó Zumárraga hasta 1889.

<sup>5</sup> De todos los construidos en este periodo, el de Bilbao a Portugalete fue el único establecido con vía ancha, de 1,672 mm. de entavía, ya que en todos los restantes se optó por la vía estrecha de un metro de separación entre las caras interiores de los carriles.

Garai oparo horretan, eta garrantzi txikiagoko adar batzuen faltan, ia osorik eratu zen Bizkaiko trenbide sarea. Garai horretan hasi zen, hain zuzen ere, liburu honen gai nagusi izango den trenbidearen eraketa. Hala ere, esan behar da trenbidearen amaiera asko luzatu zela denboran, eta ez zen erabat inauguratu 1955era arte.

En esta floreciente etapa, y a falta de algunos ramales de menor entidad, quedó configurada casi por completo la red ferroviaria de Vizcaya. Fue precisamente en este periodo cuando se inició la gestión del ferrocarril objeto de este libro, sin embargo, su conclusión se dilataría en el tiempo, no siendo definitivamente inaugurado hasta la tardía fecha de 1955.



«MOLINAR» LURRUN-LOKOMOTORA, SANTANDER ETA BILBO ARTEKO TRENBIDEKOA. LINEA HAU IZAN ZEN, BIZKAIAN, XIX. MENDEAREN AMAIERAN ERAIKITAKO TRENBIDERIK GARRANTZITSUENETAKO BAT. ARGAZKIA: XABIER SANTAMARÍA.

LOKOMOTORA DE VAPOR «MOLINAR» DEL FERROCARRIL DE SANTANDER A BILBAO, UNA DE LAS PRINCIPALES VÍAS FÉRREAS CONSTRUIDAS EN VIZCAYA A FINALES DEL SIGLO XIX. FOTO, XABIER SANTAMARÍA.



# *Zornotza eta Bermeo arteko trenbidearen eraikuntza*

## ZORNOTZATIK GERNIKARA

Zornotza eta Gernika arteko trenbide bati buruzko lehenbiziko albisteek 1882ko martxoaren 22ra eramaten gaituzte. Egun hartan Bizkaiko Gobernu Zibilak baimena eman zion Francisco Rispa Perpiñari Gernika eta Zornotza<sup>6</sup> artean trenbidea ezartzeko egin beharreko azterlanak egiteko. Eskatzailearen asmoa aipatutako linea hori Bermeoraino luzatzea zen, izan ere, egun berean lan horri dagokion proiektua burutzeko baimena eman baitzitzaion.

Garai hartan ohikoa zenez, bi sekzioei buruzko azterlanen idazkera ezin izan zen trenbideei buruz indarrean zegoen legerian ezarritako urte beteko epean burutu, eta, ondorioz, Francisco Rispa Perpiñak sei hilabeteko luzapena eskatu behar izan zuen. Luzapen hori Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiak eman zion 1883ko apirilaren 6an.<sup>7</sup>

Ondoren, Francisco Rispa Perpiñak egindako azterlanen gaineko eskubideak Luis de Landecho y Urries arkitektoak erosi zituen, eta, horrelakoetan bete beharreko eskakizunak bete ondoren, 1885eko otsailaren 20ko Lege Dekretu bitartez, baimena jaso zuen, honako lan hau egiteko: «Estatuaren diru-laguntza zuzenik jaso gabe, trenbide berria eraikitzea, Zornotzatik irten eta Gernika-Lumoraino».<sup>8</sup> Dekretu horrek trenbide berria erabilgarritasun publikoko izendatzen zuen, derrigorrezko desjabetzapenerako eskubidearekin, bai eta jabari publikoko lurra aprobetxatzeko eta hartzeko eskubidearekin ere. Ohikoa zenez, emakida 99 urtetarako eman zen.

1885eko uztailaren 17an emakida lortu ondoren, Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izeneko eratu zen, Bilboko hiribilduko Félix de Uríbarri notario jaunaren aurrean,<sup>9</sup> eta ekitaldian honako hauek hartu zuten parte:

<sup>6</sup> Garai hartan Zornotzaren izen ofiziala, gaztelaniaz ere, Zornoza zen.

<sup>7</sup> Gaceta de Madrid 104 zk., 1883ko apirilaren 14a. (135 or.).

<sup>8</sup> Gaceta de Madrid 55 zk., 1885eko otsailaren 24a (578or.).

<sup>9</sup> Gaceta de Madrid 217 zk., 1885eko abuztuaren 5a (375-377orr.).

# *La construcción del ferrocarril de Amorebieta a Bermeo*

## DE AMOREBIETA A GUERNICA

Las primeras noticias sobre un ferrocarril entre Amorebieta y Guernica se remontan al 22 de marzo de 1882, fecha en que el Gobierno Civil de Vizcaya autorizaba la realización de los estudios pertinentes para el establecimiento de un ferrocarril entre Guernica y Zornoza<sup>6</sup> a Francisco Rispa Perpiñá. En el propósito del solicitante se encontraba la voluntad de prolongar la citada línea hasta Bermeo, ya que en idéntica fecha también fue facultado para la realización del oportuno proyecto.

Como era frecuente en la época, la redacción de los estudios de ambas secciones no se llegó a realizar en el plazo de un año establecido por la legislación vigente en materia de ferrocarriles, por lo que Francisco Rispa Perpiñá se vio obligado a solicitar una prórroga de seis meses, la cual fue otorgada por la Dirección general de Obras públicas el 6 de abril de 1883.<sup>7</sup>

Posteriormente, los derechos sobre los estudios realizados por Francisco Rispa Perpiñá fueron adquiridos por el arquitecto Luis de Landecho y Urries, quién, tras superar los requisitos establecidos en estos casos, fue autorizado por Decreto Ley del 20 de febrero de 1885 para «la construcción, sin subvención directa del Estado, de un ferrocarril económico que partiendo en Amorebieta termine en Guernica-Luno».<sup>8</sup> El mismo Decreto declaraba el nuevo ferrocarril de utilidad pública y con derecho a expropiación forzosa, así como al aprovechamiento y ocupación de los terrenos de dominio público. Como era habitual, esta concesión se otorgó por un periodo de 99 años.

Una vez obtenida la concesión, el 17 de julio de 1885, se procedió a la constitución de la Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, ante el notario de la villa de Bilbao Félix de Uríbarri,<sup>9</sup> participando en el acto las siguientes personas:

<sup>6</sup> En aquel momento Amorebieta era oficialmente denominada como Zornoza.

<sup>7</sup> Gaceta de Madrid N° 104, de 14 de abril de 1883. (p. 135).

<sup>8</sup> Gaceta de Madrid N° 55, de 24 de febrero de 1885 (p. 578).

<sup>9</sup> Gaceta de Madrid N° 217, de 5 de agosto de 1885 (pp. 375-377).



COMPAÑÍA DEL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A GUERNICA Y LUNO IZENEKOAREN 1169 ZENBAKIKO EKINTZA. IKONOGRAFIAN LINEA BERRIKO PUNTU GARRANTZITSUENETAKO BATZUK IKUSTEN DIRA, OKAKO BIDEZUBIA, GERNIKAKO GELTOKIA EDO LEHENBIZIKO LOKOMOTORETAKO BATZUK. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.

ACCIÓN Nº 1169 DE LA COMPAÑÍA DEL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A GUERNICA Y LUNO. EN LA ICONOGRAFÍA SE APRECIAN ALGUNOS DE LOS PRINCIPALES HITOS DE LA NUEVA LÍNEA COMO EL VIADUCTO DE OCA, LA ESTACIÓN DE GUERNICA O UNA DE LAS PRIMERAS LOCOMOTORAS. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

- Luis de Landecho y Urries, arkitektoa eta Madrilgo biztanlea, enpresa berriko ehun eta berrogeita hamar akzio bere izenean eta beste hirurehun eta laurogeita hamaika honako hauen ordezkari gisa: María Ortiz de la Riva, Casasen alarguna (40 acciones), Oscar Palme (5), Martín de Zavala (10), Juan Bautista de Galdiz e Idoyaga (5), José Victoriano Galdiz (12), Serapio Pértica (15), Urquijoko markesa (50), Juan Manuel de Urquijo (20), Pedro Cort (2), Manuela Ocerín (2), Matías de Uriarte (10), Juan Ma-

- Luis de Landecho y Urries, arquitecto y vecino de Madrid, titular de ciento cincuenta acciones de la nueva empresa así como de otras trescientas noventa y una como representante de María Ortiz de la Riva, viuda de Casas (40 acciones), Oscar Palme (5), Martín de Zavala (10), Juan Bautista de Galdiz e Idoyaga (5), José Victoriano Galdiz (12), Serapio Pértica (15), el Marqués de Urquijo (50), Juan Manuel de Urquijo (20), Pedro Cort (2), Manuela Ocerín (2), Matías de Uriarte (10), Juan Manuel de Zuloaga (10), José

- nuel de Zuloaga (10), José María de Arriandiaga (10), Juan José Aurrecoechea (10), Tomás de Gorocoica (15), Javier de Galdiz y Aurrecoechea (5), Domingo Antonio Garica Gogeoasca (10), Javier A. de Galdiz (10), Mariano de Zababuru (50) eta Bruno López de la Calle (100).
- Juan Manuel Allende Salazar y Muñoz de Allende Salazar, jabea eta Bilboko biztanlea, hirurogei akzio bere izenean eta beste lauhun eta hogeita lau honako hauen ordezkari gisa: Conde de Montefuerte (100), Gertrudis Ortiz de la Riva (20), Ramón de Basterra (5), Víctor Zabaluricua (5), María Antonia de Ozamir, viuda de Zavala (10), Domingo M<sup>a</sup> de Eresuma (20), José Antonio de Eresuma (15), Fernanda de Alegría (20), Juan de Nardiz (12), Manuel M<sup>a</sup> Arrótegui (20), Raimundo de Santo Domingo (20), Enrique de Gana (10), Antonio de Torres y Pinedo (2), Sebastián de Eguileor (10), Juan Bautista de Longa (60), Florentino de Larrínaga (50), Aureliano de Lopategui (15), Eduardo Asuar (10) eta Tomás de Arellano (20).
  - Manuel de Allende Salazar y Muñoz de Allende Salazar, ingeniari agronomoa eta Madrilgo biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste hamabost Nicolás de Allende Salazar (5) eta Salvador de Olazabal (10) jaunen ordezkari gisa.
  - Antonio Comyn y Crooke, abokatua eta Madrilgo biztanlea, hogeiki akzio bere izenean eta beste bost Timoteo Leizagaren ordezkari gisa.
  - Fernando Landecheo y Urries, Bide, Kanal eta Portu Ingeniaria, Bilboko biztanlea, ehun akzio bere izenean eta beste hiruhun eta berrogeita hamabost honako hauen ordezkari gisa: Manuel M<sup>a</sup> Gortazar (20), Cayetano A. de Oxangoiti (20), Gabriel M<sup>a</sup> de Ibarra (20), Ciariaco Linares (10), Juan de Arellano (20), Pedro de Gandarias (20), Luis de Zubiría (10), Joaquín de Arellano (10), Casto de Zavala (10), Juan José de Jáuregui (40), Ramón Bergé (10), Mario Adán de Yarza (10), José M<sup>o</sup> de Gurtubay (10), Manuel Allende Villares (67), Tomás Allende y Alonso (67), Juan Manuel Zabalinchaurreta (5) eta Victoriano de Zabalinchaurreta (5).
  - Manuel Lecanda y Mendieta, abokatua eta Bilboko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste hogeita bost José Marcelo de Lecandaren ordezkari gisa..
  - Tiburcio de Ugalde y de la Torre, sendagilea eta Gernika-Lumoko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste hamahiru Narciso de Irazabalen (3) eta Agustín de Irazabalen (10) ordezkari gisa.
  - Ramón Pagazaurtundua y Aldecoa, merkataria eta Gernika-Lumoko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste lauhun eta hogeita hamabost honako hauen ordezkari gisa: Eustaquia de Arroategui (10), Román de Subyaga (10), Tomás de Achiría (8), Tomás de María de Arriandiaga (10), Juan José Aurrecoechea (10), Tomás de Gorocoica (15), Javier de Galdiz y Aurrecoechea (5), Domingo Antonio Garica Gogeoasca (10), Javier A. de Galdiz (10), Mariano de Zababuru (50) y de Bruno López de la Calle (100).
  - Juan Manuel Allende Salazar y Muñoz de Allende Salazar, propietario y vecino de Bilbao, con sesenta acciones a su nombre y otras cuatrocientas veinticuatro como representante del Conde de Montefuerte (100), Gertrudis Ortiz de la Riva (20), Ramón de Basterra (5), Víctor Zabaluricua (5), María Antonia de Ozamir, viuda de Zavala (10), Domingo M<sup>a</sup> de Eresuma (20), José Antonio de Eresuma (15), Fernanda de Alegría (20), Juan de Nardiz (12), Manuel M<sup>a</sup> Arrótegui (20), Raimundo de Santo Domingo (20), Enrique de Gana (10), Antonio de Torres y Pinedo (2), Sebastián de Eguileor (10), Juan Bautista de Longa (60), Florentino de Larrínaga (50), Aureliano de Lopategui (15), Eduardo Asuar (10) y de Tomás de Arellano (20).
  - Manuel de Allende Salazar y Muñoz de Allende Salazar, ingeniero agrónomo y vecino de Madrid, con tan sólo diez acciones a su nombre y otras quince como representante de Nicolás de Allende Salazar (5) y de Salvador de Olazábal (10).
  - Antonio Comyn y Crooke, abogado y vecino de Madrid, con veinte acciones a su nombre y otras cinco como representante de Timoteo Leizaga.
  - Fernando Landecheo y Urries, Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos, vecino de Bilbao, con cien acciones a su nombre y otras trescientas cincuenta y cuatro como representante de Manuel M<sup>a</sup> Gortazar (20), Cayetano A. de Oxangoiti (20), Gabriel M<sup>a</sup> de Ibarra (20), Ciariaco Linares (10), Juan de Arellano (20), Pedro de Gandarias (20), Luis de Zubiría (10), Joaquín de Arellano (10), Casto de Zavala (10), Juan José de Jáuregui (40), Ramón Bergé (10), Mario Adán de Yarza (10), José M<sup>o</sup> de Gurtubay (10), Manuel Allende Villares (67), Tomás Allende y Alonso (67), Juan Manuel Zabalinchaurreta (5) y Victoriano de Zabalinchaurreta (5).
  - Manuel Lecanda y Mendieta, abogado y vecino de Bilbao, con diez acciones a su nombre y otras veinticinco como representante de José Marcelo de Lecanda.
  - Tiburcio de Ugalde y de la Torre, médico y vecino de Guernica y Luno, con diez acciones a su nombre y otras trece como representante de Narciso de Irazabal (3) y de Agustín de Irazabal (10).
  - Ramón Pagazaurtundua y Aldecoa, comerciante y vecino de Guernica y Luno, con diez acciones a su nombre y otras cuatrocientas treinta y cinco como representante de Eustaquia de Arroategui (10), Román de Subyaga (10), Tomás de Achiría (8), Tomás de Echevarria (10), José M<sup>a</sup> de Torresari (10), Juan Francisco de

Echevarria (10), José M<sup>a</sup> de Torresari (10), Juan Francisco de Hormaechegoitia (2), Dolores Onzoño de Mendiola (10), Victor Arana (10), Miguel de Aboitiz (2), Lucas de Altube (10), Francisco de Mendioldua (2), José Toña (5), Juan de Cendogorta (2), Juan Bautista de Basterrechea (4), Toribio de Arana (2), Ramón de Iturbe (2), Gumersindo Solís (2), Tomás de Goiría (2), Vicente Gómez (5), Matías de Galarza (5), Marcos de Basterrechea (2), Ignacio Arribalzaga (2), Nicolás de Arrotegui (10), Gaspar de Belaústegui (5), Roque de Egurbide (2), Luis Álvarez (10), Juan Solís (10), José Arriandiaga (19), Valentín Beitia (20), Anselmo de Arana (10), Joaquín de Arana (30), Teodoro de Arana (10), Anacleto de Olartua (10), Teodoro de Obieta (5), Escolástico de Obieta (5), Juan Manuel de Mujatadi (10), Valentín Ignacio de Ozamiz (25), Santiago de Aldamiz (15), Domingo Arano (20), Francisco Uribe (4), Prudencia Elordi (30), Antonio Monasterio (10), Antonio López de la Calle (16), Nicolás Gasteiz (4), Francisco de Ozollo (20) eta Juan Mochave (3).

- José Seijo y Trémola Zavala, merkataria eta Gernika-Lumoko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste berrogeita hamalau honako hauen ordezkari gisa: Petra Guerricabeitia (10), Estanislao Aranguena (5), Rafael Echevarria (10), Mateo de Bustingorri (4), Romualdo Alonso (2), Felipe Fernández (2), Juan Sánchez Rubio (2), Manuela Goiri de Zarrabeitia (2), Domingo Antonio de Zarrandicoechea (2), Juan Domingo Legarra (2), Gregorio de Arriaga (2), José M<sup>a</sup> Larrucea (1) eta Diego de Anitua (10).
- Ezequiel de Aguirre y Labroche, jabea eta Getxoko biztanlea, hamar akzio.
- Eduardo de Aguirre y Labroche, ingeniari industrial eta Getxoko biztanlea, hamar akzio.
- Anastasio de Goiri y Echeverría, langilea eta Bilboko biztanlea, berrogei akzio bere izenean eta beste hogeita bost Ezequiel de Urigüenen ordezkari gisa.
- Tomas de Zaldumbide y Olabe, merkataria eta Bilboko biztanlea, 10 akzio.
- Juan E. Delmás y García, impresor eta Bilboko biztanlea, hogeita hamar akzio.
- Restituto Goyoaga y Sarria, merkataria eta Bilboko biztanlea, hogei akzio bere izenean eta beste laurogeita bat honako hauen ordezkari gisa: Saturnino de Mugartegui (5), Manuel Larragán (5), Francisco Mendezona Anacabe (6), José Rufo de Goyenechea (20), Fermín Arnedo (5), Manuel Luzárraga (20) eta Isidoro Luzárraga (20).
- Federico Solaegui y Múgica, merkataria eta Bilboko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste hogei honako hauen ordezkari gisa: Pablo de Alzola (10) eta José M<sup>a</sup> de Arreche (10).

Hormaechegoitia (2), Dolores Onzoño de Mendiola (10), Victor Arana (10), Miguel de Aboitiz (2), Lucas de Altube (10), Francisco de Mendioldua (2), José Toña (5), Juan de Cendogorta (2), Juan Bautista de Basterrechea (4), Toribio de Arana (2), Ramón de Iturbe (2), Gumersindo Solís (2), Tomás de Goiría (2), Vicente Gómez (5), Matías de Galarza (5), Marcos de Basterrechea (2), Ignacio Arribalzaga (2), Nicolás de Arrotegui (10), Gaspar de Belaústegui (5), Roque de Egurbide (2), Luis Álvarez (10), Juan Solís (10), José Arriandiaga (19), Valentín Beitia (20), Anselmo de Arana (10), Joaquín de Arana (30), Teodoro de Arana (10), Anacleto de Olartua (10), Teodoro de Obieta (5), Escolástico de Obieta (5), Juan Manuel de Mujatadi (10), Valentín Ignacio de Ozamiz (25), Santiago de Aldamiz (15), Domingo Arano (20), Francisco Uribe (4), Prudencia Elordi (30), Antonio Monasterio (10), Antonio López de la Calle (16), Nicolás Gasteiz (4), Francisco de Ozollo (20) y de Juan Mochave (3).

- José Seijo y Trémola Zavala, comerciante y vecino de Guernica y Luno, con diez acciones a su nombre y otras cincuenta y cuatro como representante de Petra Guerricabeitia (10), Estanislao Aranguena (5), Rafael Echevarria (10), Mateo de Bustingorri (4), Romualdo Alonso (2), Felipe Fernández (2), Juan Sánchez Rubio (2), Manuela Goiri de Zarrabeitia (2), Domingo Antonio de Zarrandicoechea (2), Juan Domingo Legarra (2), Gregorio de Arriaga (2), José M<sup>a</sup> Larrucea (1) y de Diego de Anitua (10).
- Ezequiel de Aguirre y Labroche, propietario y vecino de Guecho, con diez acciones.
- Eduardo de Aguirre y Labroche, ingeniero industrial y vecino de Guecho, con diez acciones.
- Anastasio de Goiri y Echeverría, empleado y vecino de Bilbao, con cuarenta acciones a su nombre y otras veinticinco en representación de Ezequiel de Urigüen.
- Tomas de Zaldumbide y Olabe, comerciante y vecino de Bilbao, con diez acciones.
- Juan E. Delmás y García, impresor y vecino de Bilbao, con treinta acciones.
- Restituto Goyoaga y Sarria, comerciante y vecino de Bilbao, con veinte acciones a su nombre y otras ochenta y una en representación de Saturnino de Mugartegui (5), Manuel Larragán (5), Francisco Mendezona Anacabe (6), José Rufo de Goyenechea (20), Fermín Arnedo (5), Manuel Luzárraga (20) y de Isidoro Luzárraga (20).
- Federico Solaegui y Múgica, comerciante y vecino de Bilbao, con diez acciones a su nombre y otras veinte en representación de Pablo de Alzola (10) y de José M<sup>a</sup> de Arreche (10).

- Ricardo Nardiz y Meseta, jabea eta Bilboko biztanlea, bost akzio bere izenean eta beste hogeita hamabost honako hauen ordezkari gisa: Galo de Nardiz (5), Celestino Bengoechea (20) eta Eduardo Coste y Vildosola (10).
- Hilario de Iturrioz e Isasi, langilea eta Bilboko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste hamasei honako hauen ordezkari gisa: Juan Martín de Pertica (10), Cándida de Iturrioz (4) eta Francisco Onaindía (2).
- Eta Juan Luis de Ibarra y Arregui, merkataria eta Bilboko biztanlea, hamar akzio bere izenean eta beste hogeita hamar honako hauen ordezkari gisa: «bere aita» Juan M<sup>a</sup> de Ibarra (20) eta bere anaia, Ramón de Ibarra (10).<sup>10</sup>

Enpresa berriaren kapital soziala 1.250.000 pezetakoa zen, 500 pezetako balio izenduneko 2.500 akziotan banatua. Aipatuenez, ia titulu guztiak izenpeturik zeuden Konpainia eratu zen unean, eta karteran berrogeita hamar baino ez ziren geratzen, Administrazio Kontseiluak erabakitzen zuen bezala erabili ahal izateko. Administrazio Kontseilua honela eratu zen:

Presidentea:

- Luis de Landecho

Mahaikideak:

- Manuel M<sup>a</sup> Gortazar
- Juan Bautista de Longa
- Diego de Anitua
- Juan Manuel Allende Salazar
- Ramón de Pagazaurtundua
- Anastasio Goiri
- Fernando de Landecho
- Hilario Iturrioz

Ordezkoak:

- Ramón de Ibarra
- Juan de Nardiz
- Juan de Arellano

Gainerako berrogeita hamar akzioak karteran geratzen ziren, eta Administrazio Kontseiluak erabakitzen zuen bezala erabili zitezkeen.

- Ricardo Nardiz y Meseta, propietario y vecino de Bilbao, con cinco acciones a su nombre y otras treinta y cinco en representación de Galo de Nardiz (5), Celestino Bengoechea (20) y de Eduardo Coste y Vildosola (10).
- Hilario de Iturrioz e Isasi, empleado y vecino de Bilbao, con 10 acciones a su nombre y otras dieciséis en representación de Juan Martín de Pertica (10), Cándida de Iturrioz (4) y Francisco Onaindía (2).
- y Juan Luis de Ibarra y Arregui, comerciante y vecino de Bilbao, con diez acciones a su nombre y otras treinta a nombre de «su señor padre», Juan M<sup>a</sup> de Ibarra (20) y su hermano, Ramón de Ibarra (10).<sup>10</sup>

La nueva empresa disponía de un capital social inicial de 1.250.000 pesetas dividido en 2.500 acciones con un valor nominal de 500 pesetas. Como se ha señalado, la práctica totalidad de los títulos ya había sido suscrita en el momento de la constitución de la Compañía, quedando únicamente cincuenta en cartera a disposición de lo que pudiera decidir el Consejo de Administración. Éste quedó constituido del siguiente modo:

Presidente:

- Luis de Landecho

Vocales:

- Manuel M<sup>a</sup> Gortazar
- Juan Bautista de Longa
- Diego de Anitua
- Juan Manuel Allende Salazar
- Ramón de Pagazaurtundua
- Anastasio Goiri
- Fernando de Landecho
- Hilario Iturrioz

Suplentes:

- Ramón de Ibarra
- Juan de Nardiz
- Juan de Arellano

Las cincuenta restantes quedaban en cartera, pudiendo disponer de ellas el Consejo de Administración del modo que considerase más conveniente.

<sup>10</sup> Ibidem.

<sup>10</sup> Ibidem.

## ZEIN ZIREN GERNIKAKO TRENAREN SUSTATZAILEAK?

Irakurleak Zornotza eta Gernika arteko akziodunen zerrendan ikusi ahal izan duenez, tren txiki horretako inbertsiogile gehienak Bilboko burgesiako kideak ziren, betidanik merkataritzara lotutakoak, baina ez ziren falta profesional liberalak, politikariak eta tren berriarekin etekinak aterako zituen herriko, Gernika eta Lumoko, hainbat eta hainbat biztanle. Sustatzaileen artetik lau pertsonaia garrantzitsu azpimarratu behar dira, guztiak ere politikaren munduarekin gertutik lotuak, alderdi kontserbatzailearekin, hain zuzen ere. Izan ere, sarri askotan, Gernikako trena hauteskundeetarako tren gisa hartu zen, berau eraikitzeke elementuetako bat haren bultzatzaileen hauteskunde interesak defendatzea izan baitzen.<sup>11</sup>

### Emakidaduna, Luis Landecho y Urríes

Bilbon jaio zen 1852ko martxoaren 14an. Luis Landecho y Urríesek arkitektura karrera egin zuen Madrilén, eta handik aurrerako lan gehiena ere bertan egin zuen. Hala ere, Allende Salazar<sup>12</sup> sendiarekin zituen senidetasun harremanak eta eskualdearekin zituen erlazio politikoak zirela eta, lan asko egin zituen Gernika inguruan, besteak beste, trenaren sustapena, Ospitalearen eta Gernikako San Juan Elizaren eraikuntza,<sup>13</sup> eta Mundakako Udaletxearen proiektua.

Politikari dagokionez, alderdi kontserbatzaileko kide izan zen, eta gorteetako diputatu aukeratu zuten 1885etik 1893ra bitartean, Gernikako barrutiaren ordezkari gisa. Arkitekto gisa egin zuen lanari dagokionez, XIX. mendearen amaierako krisialdiaren ondoren sortutako korrante historizistekin eta erregenerazionistekin egin zuen bat. Azken horien artean sartzen ziren neomudejarra eta neogotikoa. Egin zituen lan garrantzitsuenen artean honako hauek daude: Bilboko Hurtado de Amézaga kaleko Asisko San Frantziskoren eliza eta Ritz Hotela, Zabalburu Jauregia, Santa Kristina Maternidadea eta Ateneoa, Madrilén. Parte hartu zuen, baita ere, izatera monumentala zuten hainbat lanetan, Escorialean egindako Maria

## ¿QUIENES ERAN LOS PROMOTORES DEL FERROCARRIL DE GUERNICA?

Como el lector habrá podido observar en la relación de accionistas del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica, la mayor parte de los inversores de este pequeño tren pertenecían a la burguesía bilbaína, tradicionalmente vinculada al comercio, sin que faltaran algunos profesionales liberales, representantes políticos y numerosos vecinos de la población directamente beneficiada con el nuevo tren, Guernica y Luno. De entre sus promotores, cabe destacar a cuatro relevantes personajes, todos ellos estrechamente ligados al mundo de la política y más en concreto, al partido conservador. De hecho, en numerosas ocasiones, el de Guernica fue considerado como un ferrocarril electoral debido a que uno de los elementos que impulsó su construcción fue el de defender los intereses electorales de sus creadores.<sup>11</sup>

### El concesionario, Luis Landecho y Urríes

Natural de Bilbao, donde vino al mundo el 14 de marzo de 1852, Luis Landecho y Urríes cursó la carrera de arquitectura en Madrid, ciudad en la que además desarrolló la mayor parte de su vida profesional, aunque debido a sus relaciones de parentesco con los Allende Salazar,<sup>12</sup> así como sus vinculaciones políticas con la comarca, realizó importantes actividades en el guerniquesado, como queda demostrado en su promoción del ferrocarril, la construcción del Hospital y de la iglesia de San Juan en Guernica,<sup>13</sup> y el proyecto de la casa consistorial de Mundaca.

Políticamente estuvo vinculado al partido conservador, siendo elegido diputado a cortes entre 1885 y 1893 en representación del distrito de Guernica. Por lo que respecta a su carrera como arquitecto, fue afín a las corrientes historicistas y regeneracionistas que surgieron tras la crisis de finales del siglo XIX, entre las que se incluían el neomudejar y el neogótico. Entre sus trabajos más destacados se encuentran la Iglesia de San Francisco de Asís, en la calle Hurtado de Amézaga en Bilbao y el Hotel Ritz, el palacio de Zabalburu, la Maternidad de Santa Cristina y el Ateneo en Madrid.

<sup>11</sup> Jesús M<sup>o</sup> Leizaola diputatuak Herri Lanetako Ministroari egindako galdera. Gorte Eratzaileen Saioen egunerokoa N<sup>o</sup> 269, 1932ko abenduaren 2a, 29 or. ... «Tiene un mal concepto este ferrocarril en la opinión pública, al menos en nuestros amigos, desde hace muchísimo tiempo. Se le tiene por un ferrocarril de carácter caciquil, como una organización caciquil, y como ello es una cosa pública y clara es mucho mejor hablar con toda esta claridad».

<sup>12</sup> Manuel Allende Salazarren koinatua zen.

<sup>13</sup> Gaur egungo Kaltzada Egoitza.

<sup>11</sup> Interpelación del diputado Jesús M<sup>o</sup> Leizaola al Ministro de Obras Públicas. Diario de Sesiones de Las Cortes Constituyentes N<sup>o</sup> 269 de, 2 de diciembre de 1932, p. 29 ... «Tiene un mal concepto este ferrocarril en la opinión pública, al menos en nuestros amigos, desde hace muchísimo tiempo. Se le tiene por un ferrocarril de carácter caciquil, como una organización caciquil, y como ello es una cosa pública y clara es mucho mejor hablar con toda esta claridad».

<sup>12</sup> Era cuñado de Manuel Allende Salazar.

<sup>13</sup> Actual Residencia Calzada



LUIS DE LANDECHO Y URRÉS, ARKITEKTOA ETA ZORNOTZA ETA GERNIKA ARTEKO  
TRENBIDEAREN SUSTATZAILEA. GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN ARTXIBATEGIA.  
LUIS DE LANDECHO Y URRÉS, ARQUITECTO Y PROMOTOR DEL FERROCARRIL DE  
AMOREBIETA A GUERNICA. ARCHIVO GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA.



MANUEL ALLENDE SALAZAR. GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN ARTXIBATEGIA.  
MANUEL ALLENDE SALAZAR. ARCHIVO GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA.

Teresa de Borbonen hilobian edo Madrilgo Espainiako Plazan Cervantesi eskainitakoan, besteak beste.

Lotura estua izan zuen Madrilgo bizitza kulturalarekin. Luis de Landeche Arte Ederretako Errege Akademiako kide aukeratu zuten 1904ko ekainaren 6an. Erakunde horretan Kontu Zentsore kargua izan zuen.

Luís Landeche y Urries Madrilen hil zen, 1941eko azaroaren 16an.

### **Aitajauna, Manuel Allende Salazar**

Gernikan jaio zen 1856ko abuztuaren 23an. Manuel Allende Salazar XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako Espainiako bizitza politikoaren protagonista nagusietakoa izan zen. Ingeniari agronomo karrera amaitu ondoren oposizio bidez nekazaritzako legeria, ekonomia eta kontabilitate katedra lortu zuen 1880an. Ondoren Madrilgo alkate izan zen, eta 1884an diputatu aukeratu zuten Gernikako barrutitik. Kargu hori errepikatu egin zuen 1886tik 1891ra. 1899ko legealdian senatari akta lortu zuen Lleidako probintziaren ordezkari gisa, eta pixka bat aurrerago, 1900eko maiatzaren 2an, Alfonso XIII erregeak bizi osorako senatari izendatu zuen.

1900eko uztailaren 6an Ogasun ministro izendatu zuten, 1902an Instrukzio Publikoko ministro, urtebete geroago Nekazaritza ministro, eta 1908an Estatuko ministro. Bitartean, 1904tik 1905era, eta ondoren 1919an, Espainiako Bankuko Gobernadore izan zen.

Manuel Allende Salazarrek 1919an lortu zuen bere karrera politikoaren gorengo maila, Espainiako Gobernuko presidente izendatu zutenean. 1920ko maiatzean Eduardo Dato hartu zuen haren lekua, baina 1921eko martxoaren 7an, Dato hil zutenean, berriro ere Gobernu buru aukeratu zuten. Urte horretan bertan Maurak hartu zuen bere kargua, Annual-eko hondamendiaren ondoren.

Manuel Allende Salazar Madrilen hil zen, 1923ko maiatzaren 17an.

### **Bitartekaria, Antonio Comyn Crooke**

Zornotza eta Gernika arteko lehenbiziko akziodunetako bat, Bizkairekin lotura zuzenik ez zuen bakarra, Antonio Comyn y Crooke

También participó en la realización de obras de carácter monumental como la tumba de María Teresa de Borbón en El Escorial o el dedicado a Cervantes en la madrileña plaza de España.

Estrechamente vinculado a la vida cultural de Madrid, Luis de Landeche fue elegido miembro de la Real Academia de Bellas Artes el 6 de junio de 1904. En esta institución llegó a ocupar el cargo de Censor de Cuentas.

Luís Landeche y Urríes falleció en Madrid el 16 de noviembre de 1941.

### **El padrino, Manuel Allende Salazar**

Nacido en Guernica el 23 de agosto de 1856, Manuel Allende Salazar fue uno de los principales protagonistas de la vida política española de finales del siglo XIX y comienzos del XX. Tras finalizar la carrera de ingeniero agrónomo, obtuvo por oposición la cátedra de legislación, economía y contabilidad agraria en 1880. Posteriormente desempeñó el cargo de alcalde de Madrid y en 1884 fue elegido diputado por el distrito de Guernica, cargo que repitió en 1886 y 1891. En la legislatura de 1899 obtuvo el acta de senador en representación de la provincia de Lérida, y poco después, el 2 de mayo de 1900, fue nombrado por el Rey Alfonso XIII senador vitalicio.

El 6 de julio de 1900 fue nombrado ministro de Hacienda, en 1902 de Instrucción Pública, un año más tarde de Agricultura y en 1908 de Estado. Entre tanto, de 1904 a 1905, y posteriormente en 1919, fue Gobernador del Banco de España.

Su carrera política alcanzó la cima en el año 1919, cuando fue nombrado presidente del Gobierno español, cargo del que fue relevado por Eduardo Dato en mayo de 1920. Al ser éste asesinado el 7 de marzo de 1921 volvió a la jefatura del Gobierno, siendo sustituido por Maura en agosto del mismo año tras el desastre de Annual.

Manuel Allende Salazar falleció en Madrid el 17 de mayo de 1923.

### **El intermediario, Antonio Comyn Crooke**

De los primeros accionistas del ferrocarril de Amorebieta a Guernica, el único sin vinculación directa con Vizcaya era el abogado



ke abokatua zen, Albizko Kondea, 1858ko martxoaren 4an Madril-en jaioa.

Gorteetako diputatu izan zen 1891n, 1893an, 1898an eta 1899an, eta ondoren Senatuan egon zen 1901etik 1902ra, Gironako probintziako ordezkari gisa, 1903tik 1904ra Cuencako probintziatik eta 1907tik 1909ra Palentziatik. Horrez gain, Kontuen Epaitegiko Fiskal eta Ministroen Kontseiluko Presidentziako Idazkariorde ere izan zen.

Antonio Comyn Gernikako Treneko akziodunen artean sartuta, enpresak politikari azkar horrek gortean zituen influentziaz baliatu nahi zuen. Albizko Kondea benetako espezialista zen mota horretako gestioetan, eta, horri esker, hainbat enpresatan hartu zuen parte, erresumako hiriburuko hainbat tranbia linea ustiatzen zituen Compañía Eléctrica Madrileña de Tracción izenekoan, bertako presidente izanik edo Zafra eta Huelva arteko eta Central de Aragon izeneko trenetan, horietako kontseilari izanik, besteak beste. Parte hartzea izan zuen, baita ere, Ferrocarril y Minas de Villadrid izenekoan (Lugo). Tren horretan Zornotza-Gernika lineako beste akziodun batzuk ere hartu zuten parte, Fernando Landechedok, besteak beste. Horrez gain Compañía de los Ferrocarriles del Este de España izenekoaren batzorde likidatzailearen idazkari izan zen.

Trenekin erlazionaturiko negozioez gain, beste enpresa ekimen batzuetan ere hartu zuen parte, Fuente del Arco (Badajoz) La Jayona burdin meategian, besteak beste. Horrez gain, Manuel Allende Salazar buru zuen eta Juan Antonio Comyn semea Zuzendari Gerente zen Sociedad Auxiliar de Minas e Industrias izenekoan ere parte hartze aktiboa izan zuen.

### **Ingeniaria, Pablo de Alzola y Minondo**

Zornotza eta Gernika arteko trenbidearen proiektua eta haren eraikuntzako obraren zuzendaritza Pablo de Alzola y Minondo ingeniariak burutu zituen. Donostian jaio zen, 1841eko ekainaren 17an, merkataritza familia batean. Herri Lanetako ingeniari karrera egin zuen Madril-en.

Lanean izandako lehenbiziko esperientziak Andaluzian izan zituen. Bertan Guadalhorce ibaiaren gaineko zubiaren eraikuntzan hartu zuen parte (Malaga) 1869an, eta ondoren, Cadiz eta Almeriako errepideak hobetzeko lanetan.

Antonio Comyn y Crooke, Conde de Albiz, natural de Madrid, ciudad en la que nació el 4 de marzo de 1858.

Diputado a Cortes en 1891, 1893, 1898 y 1899, posteriormente participó en el Senado entre 1901 a 1902 en representación de la provincia de Gerona, de 1903 a 1904 por la de Cuenca y de 1907 a 1909 por la de Palencia. También ostentó los cargos de Fiscal del Tribunal de Cuentas y Subsecretario de la Presidencia del Consejo de Ministros.

Con la inclusión de Antonio Comyn en el accionariado del Ferrocarril de Guernica, la empresa perseguía aprovechar las influencias de este astuto político en la corte. El Conde de Albiz era un verdadero especialista en esta clase de gestiones, lo que le permitió participar en numerosas empresas como es el caso de la Compañía Eléctrica Madrileña de Tracción, explotadora de diversas líneas de tranvías en la capital del reino, de la que llegó a ser presidente, o en los ferrocarriles de Zafra a Huelva y Central de Aragón, de los que fue consejero. También participó en el Ferrocarril y Minas de Villadrid (Lugo), en la que participaban otros accionistas del Amorebieta-Guernica como Fernando Landeche y fue secretario de la comisión liquidadora de la Compañía de los Ferrocarriles del Este de España.

Junto a los negocios ferroviarios, intervino en otras iniciativas empresariales, como es el caso de la mina de hierro La Jayona, en Fuente del Arco (Badajoz), al tiempo que participó activamente en la sociedad Auxiliar de Minas e Industrias, presidida por Manuel Allende Salazar y en la que su hijo Juan Antonio Comyn ejercía de Director Gerente.

### **El ingeniero, Pablo de Alzola y Minondo**

El proyecto del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y la dirección de las obras de su construcción corrieron a cargo del ingeniero Pablo de Alzola y Minondo. Natural de San Sebastián, donde vino al mundo en el seno de una familia de comerciantes el 17 de junio de 1841, estudió en Madrid la carrera de ingeniero de obras públicas.

Sus primeras experiencias profesionales se desarrollaron en Andalucía, donde participó en la construcción del puente sobre el Guadalhorce (Málaga) en 1869 y posteriormente en la mejora de las carreteras de Cádiz y Almería.

Urte batzuk geroago Pablo de Alzola Bilbora etorri zen, eta berehala harreman bikainak egin zituen bertako burgesiarekin. 1872an Iron Ore izeneko Orconerako meategi trenbidea eraikitzeko proiektua burutu zuen, eta lau urte geroago Bizkaiko hiriburuen zabalkunde planaren idazketan hartu zuen parte.

1877an Bilboko alkate izendatu zuten, eta Pablo de Alzolak karre-  
ra politiko luzea hasi zuen, hasiera batean alderdi liberalaren esku-  
tik, eta 1894tik aurrera, Bizkaiko kapitalismoak Sagastarekin, aran-  
tzelak zirela eta, izan zituen gatazken ondorioz alderdi  
kontserbatzailean. 1886tik 1890era Bizkaiko Foru Aldundiko pre-  
sidente izan zen, eta 1900ean Herri Lanetako Zuzendari Nagusi  
izendatu zuten, Silvelaren gobernuaren garaian. Urtebete geroago  
Gorteetako diputatu aukeratu zuten Boltañatik (Huesca) eta  
1907tik 1909ra senatari izan zen Bizkaitik.

Pablo de Alzolak trenarekin lotutako jarduera askotan hartu zuen  
parte. Aipatutako Orconerakoaz eta Zornotza eta Gernika arteko  
lineaz gain, trenbide zabaleko tren sare kantabriarraren eraikuntza-  
ren defendatzaile nagusia izan zen. Horrez gain, Bilbo eta Portu-  
galete arteko trenbidea eraikitzeko proiektuak idatzi zituen, eta  
bera izan zen Urolako bailaran burdinbidea eraikitzeko lehenbizi-  
ko azterlanaren egilea. Aldi berean, Bilbo eta Areeta arteko trenbi-  
dearen diseinuan ere aritu izan zen. Horrez gain, hainbat enpresa-  
tako administrazio kontseilu etako mahaikide ere izan zen,  
Bizkaiko Labe Garaietakoa, besteak beste, eta Bizkaiko Ekoizleen  
Ligako presidente izan zen.

Lan politikoaz gain, Pablo de Alzolak hainbat lan idatzi zituen,  
gehienak lan publikoen ingurukoak. Honako hauek azpimarratu  
ditzakegu:

- Ferrocarriles de vía ancha y de vía estrecha (1885).
- Cálculo de puentes metálicos (1888).
- El arte industrial en España (1896).
- Monografía de los caminos y ferrocarriles de Vizcaya (1898).
- Las obras públicas en España (1899).
- Nuestra reforma arancelaria (1905).

Pablo de Alzola y Minando Bilbon hil zen 1911ko urriaren 25ean.

Pocos años más tarde Pablo de Alzola se trasladó a Bilbao, donde  
de inmediato estableció una buena red de contactos con la bur-  
guesía local. En 1872 realizó el proyecto de construcción del fe-  
rrocarril minero de La Orconera Iron Ore, y cuatro años más tar-  
de participó en la redacción del plan de ensanche de la capital  
vizcaína.

Con su nombramiento como alcalde de Bilbao en 1877, Pablo de  
Alzola emprendió una larga carrera política, primero de la mano  
del partido liberal, y a partir de 1894, debido a los enfrentamien-  
tos del capitalismo vizcaíno con Sagasta por la cuestión arancela-  
ria, en el bando conservador. Entre 1886 y 1890 fue presidente de  
la Diputación de Vizcaya y en 1900 fue nombrado Director Ge-  
neral de Obras Públicas durante el gobierno de Silvela. Un año  
más tarde fue elegido Diputado a Cortes por Boltaña (Huesca) y  
entre 1907 y 1909 Senador por Vizcaya.

Pablo de Alzola participó en numerosas actividades vinculadas al  
ferrocarril. Además del ya mencionado de la Orconera y de la lí-  
nea de Amorebieta a Guernica, fue el principal defensor de la  
construcción de la red ferroviaria del cantábrico en vía ancha. Asi-  
mismo fue autor de los proyectos para la construcción del ferroca-  
rril de Bilbao a Portugalete o del primer estudio para la implanta-  
ción de un camino de hierro en el valle del Urola, al mismo  
tiempo que colaboraba en el diseño del de Bilbao a Las Arenas.  
También fue vocal de los consejos de administración de diversas  
empresas, entre las que destaca Altos Hornos de Vizcaya, y presi-  
dente de la Liga Vizcaína de Productores.

Junto a su labor política, Pablo de Alzola escribió numerosos tra-  
bajos, relativos en su mayoría a las obras públicas, entre los que des-  
tacaban los siguientes:

- Ferrocarriles de vía ancha y de vía estrecha (1885).
- Cálculo de puentes metálicos (1888).
- El arte industrial en España (1896).
- Monografía de los caminos y ferrocarriles de Vizcaya (1898).
- Las obras públicas en España (1899).
- Nuestra reforma arancelaria (1905).

Pablo de Alzola y Minondo falleció en Bilbao el 25 de octubre de  
1911.

Ustiapena aurrera eramango zuen enpresa eratu ondoren, linea eraikitzeke lanak berehala hasi ziren. Lanak Pablo de Alzola ingeniariak zuzendu zituen, eta Luis de Landeochok parte hartu zuen geltokien proiektuetan. Lanak lau sekziotan banatu ziren. Lehenbizikoa Juan Antonio de Iza eta Benencio Garamendiri esleitu zituzaien, bigarrena Julián Ibañez Aldecoari, hirugarrena Juan Antonio Basterrecheari eta azkena Eladio Perticari. Eraikinak eta nasak Ramon Arriolak egin zituen.

Harrigarria izan daiteke Pablo de Alzolaen parte hartzea metro bateko zabalera honen eraikuntzan, kontuan izanik bera izan zela kantaerialdeko kostaldeko trenbidea zabalago eraikitzearen defendatzaile nagusia. Izan ere, berak idatzi zuen Crédito General de Ferrocarriles izenekoak sustatutako Santander eta Irun arteko Kantauroko trenbidearen proiektua, trenbide zaballean, eta, aldi berean, parte hartze azpimarragarria izan zuen trenbide zabalerei buruzko polemikan, batez ere Adolfo Ibarretak defendatzen zuen trenbide estuaren aldeko jarreraren aurrean.<sup>14</sup> Hala ere, ikusita ezinbestekoa zela linea berriak Zornotzan Bilbo eta Durango artekoarekin bat egitea, eta hark jada metro bateko zabalera zuenez, aukera bakarra trenbide zabalera horrekin jarraitzea zen. Dena den, trazaren proiektua egiteko orduan, etorkizunean gai horretan aldaketak egiteko moduko galiboa hartu zen kontuan.

Trenbide berria eraikitzeke lanak erritmo egokian burutu ziren, eta, ondorioz, 1888ko uztailaren 24an, *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak, artikulua zabal batean, inaugurazioa gertu zegoela jakinarazi zuen:

### **Gernikako tren**

*Zornotzatik Gernika-Lumora doan trenbide ekonomikoaren eraiketa diseinatu eta lanak zuzendu dituenak, Pablo de Alzola jaunak, lau bagoiko tren osatzeko agindua eman zuen joan den domekan. Haietarikoa bat lehenengo mailakoa, beste bat hirugarrenakoa eta gainontzeko biak zama eroatekoak. Lehenengo bietan ingeniariak berak eta bere lagun batzuk egin zuten bidaia. Beste bi horietan harritzko ikatza erroteko erabili ziren.*

*Alzola jaunaren seme nagusi, jakintsu eta ikasiarekin batera ondokoak izan ziren bidaariak: Bizkaiko diputazio burua den ingeniari-jauna*

Gernika eta Sukarrieta arteko linea martxan zegoela, konpainia ustiatzaileak estatutuak aldatu zituen,<sup>24</sup> eta aldaketa horretan sozietatearen izena ere sartzan baitzen. Horrela, hortik aurrera, izena Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izan zen, eta haren xede nagusia, «Zornotzatik irten eta Zugaztietatik, Muxikatik, Gernikatik, Forutik, Muruetatik, San Kristobaletik eta Axpetik Sukarrietara doan trenbidearen ustiapena».<sup>25</sup> Estatutu berrien arabera enpresak, adar berrien bitartez, linea zabaltzeko aukera bazuen ere, konpainiak hartutako izen berriak garbi uzten zuen, oraindik behintzat, baztertu egiten zela Bermeora heltzeko aukera, ezinezkoa baitzen trazatu zail horren eraikuntzarako behar zen inbertsio handiari aurre egitea.<sup>26</sup> Ez da ahaztu behar linea Sukarrietaraino luzatzeko enpresaren baliabideak erabili zirela, kapital soziala zabaldu gabe.

*El ramal inaugurado ayer como prolongación de la línea de Amorebieta a Guernica, mide nueve kilómetros y medio de extensión y desde él se divisan puntos tan pintorescos como Arteaga, Cortezubi, Canala, Laida y otros.*

*Las estaciones y apeaderos son Forua, Murueta, San Cristóbal, Axpe y Pedernales.*

Una vez en servicio la línea entre Guernica y Pedernales, la compañía explotadora procedió a la modificación de sus estatutos,<sup>24</sup> incluida la propia denominación de la sociedad, que pasó a ser la de Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales, y su objeto principal, la «explotación de la vía férrea que partiendo de Amorebieta, se dirige por Zugastietia, Múgica, Guernica, Forua, Murueta, San Cristóbal y Axpe a Pedernales».<sup>25</sup> Aunque los nuevos estatutos planteaban la posibilidad de que la empresa podría ampliar la línea con nuevos ramales, el propio nombre adoptado por la compañía dejaba claro que, al menos por el momento, se renunciaba a la posibilidad de llegar a Bermeo, al no poder afrontar la elevada inversión que exigía la construcción de este dificultoso trazado.<sup>26</sup> No hay que olvidar que la prolongación de la línea hasta Pedernales se había realizado con los recursos propios de la empresa, sin proceder a ampliar su capital social.

<sup>24</sup> Estatutu berriak 1893ko azaroaren 11n onetsi ziren.

<sup>25</sup> Registro Mercantil de Vizcaya, 1893ko abenduaren 27a, 312. orria.

<sup>26</sup> Zornotza eta Gernika arteko linea eraikitzean enpresak zuen kapitala gaudituz egin zen, eta, ondorioz, egoera erregularizatu ahal izateko eta Sukarrietaraino egin beharreko luzapenari egiteko, zorretan sartu zen, bi obligazio serieren jaulkipena eginez, lehenbizikoa 500 pezetako 1.250 tituluko, eta bigarrena balio bereko 1.500 tituluko.

<sup>24</sup> Los nuevos estatutos fueron aprobados el 11 de noviembre de 1893.

<sup>25</sup> Registro Mercantil de Vizcaya, 27 de diciembre de 1893, hoja 312.

<sup>26</sup> La construcción de la línea entre Amorebieta y Guernica había superado el capital social disponible, por lo que para regular la situación y poder afrontar la ampliación a Pedernales se recurrió al endeudamiento mediante la emisión de dos series de obligaciones la primera de 1.250 títulos de 500 pesetas y la segunda de 1.500 títulos de igual valor.

## BUSTURIA ALA SUKARRIETA?

Zornotza eta Bermeo arteko trenbidean hainbat polemika sortu duen gai bat 1893an trenbidea heldu zen geltokiaren izena izan da. Sukarrietako hirigunetik gertu bazegoen ere, instalazioak Busturiako udalerraren barruan zeuden,<sup>27</sup> Busturiako hirigunetik nahiko urrun bazeuden ere. Hori dela eta, enpresa ustiatzaileak geltokiari Pedernales edo Sukarrieta izena jartzea erabaki zuen, eta jatorrizko izena ere aldatu zuen, Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izenari Pedernales gehituz.

<sup>27</sup> Zehatzago esanez, Santarenako baserrian. Esan behar da baserri hori Gernika barruan egon zela 1887ko urtarrilaren 24ko legeak haren segregazioa onartu eta Busturian sartu zen arte. Bitxia bada ere, dekretu hori Luis de Landeche eta Manuel Allende Salazar diputatuek bultzatu zuten, trena eraiki baino pixka bat lehenago. Informazioa Etxaniz Ortúñezek eman digu.

## ¿BUSTURIA O PEDERNALES?

Un aspecto no exento de polémica en el ferrocarril de Amorebieta a Bermeo ha sido el del nombre de la estación a la que llegaron las vías en 1893. Emplazada en las proximidades del casco urbano de Pedernales, sus instalaciones estaban en realidad ubicadas en el término municipal de Busturia,<sup>27</sup> aunque a bastante distancia del principal núcleo de población. Por ello, la empresa explotadora procedió a denominar esta estación como Pedernales, e incluso modificó su primitiva razón social, Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, añadiéndole este topónimo.

<sup>27</sup> Más en concreto en el caserío de Santarena. Cabe señalar que este caserío había pertenecido a Guernica hasta que la ley del 24 de enero de 1887 promulgó su segregación y anexión a Busturia. Curiosamente, el citado decreto fue impulsado por los diputados Luis de Landeche y Manuel Allende Salazar en vísperas de la construcción del ferrocarril. Esta información ha sido facilitada por José Ángel Etxaniz Ortúñez.

Busturiak berehala erakutsi zuen bere desadostasuna udalerrriaren izena ez zelako agertzen linearen amaierako geltokian, eta, hori dela eta, 1903ko irailaren 13an, udalak enpresa ustiatzaileari, Sukarrietako geltokian errotulu bat jartzeko exigitu zion, honako testu honekin «Jurisdicción de Busturia». Eskaria onartu egin zen, eta aipatutako errotulua geltokian egon zen, 1941eko irailaren 22an haize bolada indartsu batek bertatik bota zuen arte.

Kartela bere lekuan berriro berehala jarri ez zutenez, Busturiako Udalak eskaria egin zuen berriro, 1943ko maiatzaren 27an, baina oraingo honetan, linearen arduradunek ez zuten erantzun garbirik eman, eta adierazi zioten, hitzez hitz «para poder colocar cartel alguno en el edificio de la estación es indispensable un permiso especial expedido por el Sr. Jefe de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado».

1956ko azaroaren 26an, Busturiako Udala, berriro ere, Zornotza eta Bermeo arteko trenbidearen arduradun zen ingeniariarengana zuzendu zen, bere udalerrian zeuden geltokietan (San Kristobalen, Axpen eta Sukarrietan), zenbait hobekuntza eskatuz, bai eta «la colocación de un nuevo letrero en el que con caracteres mayores que el actual, diga BUSTURIA» ere.

Eskaera horrek ere ez zuen erantzun egokirik jaso, eta, ondorioz, 1960ko otsailaren 19an, Busturiako Udalak beste gutun bat idatzi zuen, oraingo honetan Trenbideen Zuzendari Nagusiari zuzendua. Gutun horretan esaten zen Zornotza eta Bermeo arteko trenak Busturian hiru geltoki edo geraleku bazituen ere, haietako batek ere ez zuela Busturia izena. Bere eskaria justifikatzeko, Udalak 1863ko urriaren 15eko Errege Dekretua aipatzen zuen. Dekretu horrek honako hau zihoen:

*Erreginak trenbideetako geltokiek kokatuta dauden udalerriko izena izan behar dutela xedatu du. Hala ere, enpresek beste txartel edo ezizena bat gehitu dezakete izen ofiziala osatuz, horrela ezagunagoa dela ustez gero. Dena den, Tuteratik Bizkaiko Hirri nagusira doan trenbidearen muturreko geltokia xedapen honetatik kanpo dago. Abandoko udalerrian egon arren, Bilbo izena izango du<sup>28</sup>, trenbide horretako kontzesio legeak horrela aipatzen du eta.*

Oraingo honetan kasu egin zitzaion Busturiako Udalaren eskariari, eta, 1961eko martxoaren 2an aipatutako geltoki horien errotu-

Busturia pronto mostró su disconformidad con el hecho de que su nombre no apareciera reflejado en el de la estación terminal y por ello, el 13 de septiembre de 1903, el ayuntamiento de la localidad exigió a la empresa explotadora que se fijara en la estación de Pedernales un rótulo con la leyenda «Jurisdicción de Busturia». Aceptada la solicitud, la inscripción permaneció en la citada terminal hasta que fue arrancada por un vendaval el 22 de septiembre de 1941.

Dado que el cartel no fue repuesto de inmediato, el ayuntamiento de Busturia volvió a exigir, el 27 de mayo de 1943, su colocación, pero en esta ocasión, los responsables de la línea respondieron con evasivas, al afirmar que «para poder colocar cartel alguno en el edificio de la estación es indispensable un permiso especial expedido por el Sr. Jefe de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado».

El 26 de noviembre de 1956 el ayuntamiento de Busturia nuevamente se dirigió al ingeniero responsable del ferrocarril de Amorebieta a Bermeo, exigiendo una serie de mejoras en las estaciones situadas en su municipio (San Cristóbal, Axpe y Pedernales), así como «la colocación de un nuevo letrero en el que con caracteres mayores que el actual, diga BUSTURIA».

La nueva solicitud tampoco encontró el eco esperado, por lo que el 19 de febrero de 1960 el ayuntamiento de Busturia envió una nueva misiva, en este caso al Director General de Ferrocarriles, planteando el hecho de que a pesar de que el ferrocarril de Amorebieta a Bermeo disponía de tres estaciones o apeaderos en el término municipal, ninguno de ellos ostentaba el nombre de Busturia. Para justificar su petición, el consistorio invocó la Real Orden del 15 de octubre de 1863, decreto que señalaba:

*La Reina se ha servido disponer, como regla general, que las estaciones de los ferrocarriles tomen su nombre de los pueblos en cuyo término jurisdiccional se hallen situadas, sin perjuicio de que las empresas añadan en sus carteles de anuncio al nombre oficial cualquiera otro con el que crean ser más conocidas, exceptuándose únicamente de dicha regla la estación en que termina el ferrocarril de Tudela a la capital de Vizcaya, la cual, aun cuando construida en el término de Abando, llevará el nombre de estación de Bilbao,<sup>28</sup> por designar así la ley de su concesión este punto extremo de la línea.*

En esta ocasión, la reclamación del ayuntamiento de Busturia fue atendida, ya que el 2 de marzo de 1961 se procedió a la modifica-

<sup>28</sup> En el momento en que se promulgó esta Real Orden, Abando era un municipio independiente de Bilbao.

<sup>28</sup> En el momento en que se promulgó esta Real Orden, Abando era un municipio independiente de Bilbao.



1893AN TRENBIDEAREN AMAIERA ZEN GELTOKIAK 1973AN PEDERNALES-BUSTURIA IZENA ZUEN. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.

LA ESTACIÓN EN LA QUE EN 1893 TERMINABAN LAS VÍAS DEL FERROCARRIL OSTENTABA EN 1973 EL NOMBRE DE PEDERNALES-BUSTURIA. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

luak aldatu egin ziren. Horrela, geltokiek honako izen hauek hartu zituzten, hurrenez hurren: San Cristobal-Busturia, Axpe-Busturia eta Pedernales-Busturia. Esan behar da, baita ere, horrek ez zuela zehatz-mehatz betetzen 1863ko urriaren 15eko Errege Aginduak esaten zuena, izan ere, Agindu haren arabera, Busturia izena besteen aurretik egon beharko litzateke eta.

Joan den mendeko laurogeiko hamarkadan geltokiaren izenak berriro ere aldaketak izan zituen, Pedernales herriaren euskarazko izena berreskuratu baitzuen, Sukarrieta, hain zuzen ere. Horren ondorioz, berriro ere galdu egin zen geltokia zegoen udalerraren izena. Egoera hori ikusita, Busturiako Udalak bere betiko eskakizunak planteatu zituen berriro ere, baina, indarrean zegoen hizkuntz araudira behar bezala egokitutako lehengo izena berreskuratzea eskatu beharrean, haren ordeztu Busturia-Itsasbegi izena jartzea eskatu zuen, geltokiaren inguruetan dagoen auzoa dela eta. Lehen aipatu dugun 1863ko urriaren 15eko Errege Dekretuan jasotakoa baztertzuz, EuskoTrenek Busturiako Udalaren eskaria be-

cción de los rótulos de las citadas estaciones, las cuales pasaron a denominarse San Cristóbal-Busturia, Axpe-Busturia y Pedernales-Busturia respectivamente. Es de señalar que esta actuación no respetaba estrictamente lo indicado por la Real Orden del 15 de octubre de 1863, ya que según ésta, el nombre de Busturia debería figurar en primer lugar.

A lo largo de los años ochenta del pasado siglo el nombre de la estación se vio nuevamente modificado, al recuperar el topónimo en Euskera de Pedernales, Sukarrieta, desapareciendo nuevamente toda referencia al nombre del municipio en el que se encontraba realmente ubicada. Ante esta situación, el ayuntamiento de Busturia volvió a plantear sus tradicionales reivindicaciones, pero en lugar de solicitar la recuperación de la antigua denominación, debidamente adaptada a la normativa lingüística en vigor, exigió su sustitución por el de Busturia-Itsasbegi, en referencia a una barriada de esta población situada en las inmediaciones. Sin atender a la antes mencionada Real Orden de 15 de octubre de 1863, EuskoTren optó por

tetzea erabaki zuen, eta, ondorioz, 1997ko azaroaren 14tik aurrera, Zornotza eta Sukarrieta arteko linearen amaierako geltoki izandakoak Busturia-Itsasbegi izena hartu zuen.

Egia da urte luzeetan ez zela errespetatu geltoki horren benetako izena, baina, egia da, baita ere, Busturian dagoen arren, geltokiak, batez ere, Sukarrietaren beharrak betetzen dituela, eta, ondorioz, trenbideko araudiari, historiari eta logika berari jarraituz, ez litzateke inolako astakeria izango geltoki horrek, behin betiko, Busturia-Sukarrieta izena hartzea. Ez litzateke izen bikoitza duen geltoki kasu bakarra, ezta gutxiagorik ere. Gehiegi urrundu gabe, EuskoTreneko linean badago antzeko kasu bat, Aia-Orioko geltokiarena. Geltokia Aian dago, baina herrigunetik hamabost kilometrorra, eta Orioko erdigunetik bostehun metrora.

## BERMEORAKO BIDE LUZEA

Trenbidea Sukarrietatik aurrera luzatzeko lehenbiziko proposamenak 1895eko azaroaren 7an planteatu ziren, Zornotza eta Gernika eta Sukarrieta arteko trenbideko akziodunen ez ohiko Batzarrean Sukarrieta eta Portuondoko badiaren artean adar txiki bat eraikitzea erabaki zuenean, trena itsasora hurbiltzeko eta itsasoko trafikoarekin zituen loturak hobetzeko. Obra horiek finantzatu ahal izateko, akziodunek urteroko irabazien banaketari muzin egitea onetsi zuten, inbertsioan aurreikusitako diru kopurura heldu arte.<sup>29</sup>

Obra horren burutzapena kudeatzen ari zen bitartean, beste enpresa batek Sukarrietako geltokiaren eta Bermeo artean animaliaz tiratutako tranbia ezartzeko proiektua bultzatu zuen. Tranbia hori 1896ko irailaren 1ean inauguratu zen.<sup>30</sup> Tranbia martxan jarri ondoren, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoak iritzi zion komunikazioa Bermeorekin behar bezala bermaturik zegoela, eta, ondorioz, behin betiko baztertu zuen edozein hedapen mota. Orduetik aurrera, beste tren enpresa bat, Lutchana eta Mungia artekoa, izango zen Bermeora heltzeko proiektuak prestatzen hasiko zena.

aceptar las exigencias de Busturia, por lo que a partir del 14 de noviembre de 1997 la antigua terminal del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales pasó a denominarse Busturia-Itsasbegi.

Es cierto que durante muchos años no se respetó la denominación correcta de esta estación, pero no es menos cierto que, a pesar de encontrarse enclavada en Busturia, esta dependencia, dada su ubicación, atiende preferentemente las necesidades de Sukarrieta/Pedernales, por lo que según la reglamentación ferroviaria, la historia y la propia lógica, no sería ningún despropósito que esta estación fuera definitivamente bautizada con el nombre de Busturia-Sukarrieta. Este no sería ni mucho menos el único caso de estación con doble denominación. Sin ir más lejos, en la red de EuskoTren existe un caso similar como es el de Aia-Orio, situada en el primer término municipal, pero a quince kilómetros de su casco urbano, mientras que se encuentra ubicada a tan solo quinientos metros del corazón de Orio.

## LA LARGA MARCHA A BERMEO

Las primeras propuestas para prolongar las vías más allá de Pedernales se plantearon en 7 de noviembre de 1895, cuando una Junta Extraordinaria de los accionistas del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, aprobó construir un pequeño ramal entre la estación de Pedernales y la ensenada de Portuondo, con el fin de acercar el ferrocarril al mar y mejorar sus conexiones con el tráfico marítimo. Para la financiación de estas obras los accionistas decidieron renunciar al anual reparto de beneficios hasta alcanzar la suma prevista en esta inversión.<sup>29</sup>

Mientras tanto se gestionaba la realización de esta obra, otra empresa impulsó el establecimiento de un tranvía de tracción animal entre la estación de Pedernales y Bermeo, el cual fue inaugurado el 1 de septiembre de 1896.<sup>30</sup> Con su puesta en servicio, la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales consideró que la comunicación con Bermeo quedaba correctamente garantizada, por lo que renunció definitivamente a cualquier tipo de ampliación. Desde entonces, sería otra empresa ferroviaria, la de Luchana a Munguía, la que tomaría el relevo en los sucesivos proyectos por alcanzar la localidad costera.

<sup>29</sup> Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, 1896ko txostena, 5 - 6. orr.

<sup>30</sup> Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, 1896ko txostena, 7. orr.

<sup>29</sup> Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, Memoria 1896, pp. 5 a 6.

<sup>30</sup> Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, Memoria 1896, p. 7.

## SUKARRIETA ETA BERMEO ARTEKO TRANBIA

1895eko abenduaren 18an, Zornotza eta Sukarrieta arteko akziodun txikia zen Victor Arana eta Balaustegui Gernikarrak,<sup>31</sup> Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eskatu zion animaliek tiratutako tranbia ezartzeko Sukarrieta eta Bermeo artean. Horretarako, Bilbo eta Bermeo arteko errepidearen fabrikako trazaz eta obrez baliatuko zen.<sup>32</sup> 1896ko apirilaren 4an, Aldundiak baimena eman zion eskatzaileari errepidetik behar zuen lekua hartzeko, eta, urte bereko abuztuaren 14an proiektuaren berri eman zen jende aurrean.

Behin betiko ebazpenaren zain egon gabe, Victor Aranak ibilbide hori ustiatuko zuen enpresa, 110.000 pezetakoko kapitala zuen Compañía del Tranvía de Pedernales a Bermeo izenekoa, eratzeari ekin zion. Hasierako kapital hori nahikoa zen linea eraikitzeko aurreikusitako aurrekontua betetzeko, aurrekontu hura 121.032 pezetakoa zen eta.<sup>33</sup> Akzio gehienak Pedro Pascual de Gandariasek erosi zituen, 180 guztira, eta, gainerakoak, Jeronimo de Albizurik, hogeik, eta Victor Aranak berak, beste hogeik, erosi zituzten. Berehala hasi ziren lanak, eta azkar amaitu ziren. Horrela, *El Nervión* egunkariaren 1896ko abuztuaren 8an, «De ayer a hoy» atalean, honako hau adierazten zen:

*Hilabete honen erdialdean Sukarrieta-Mundaka-Bermeo tranbia berria martxan ezarriko da. Tranbiak lotura egoki eta zuzenak izango ditu Durango eta Gernikako trenekin. Bermeo zein Mundakan bertan, Gernika, Bilbo, Zornotza, Durango nahiz Zumarragarainoko txartelak har eta fardelak faktura daitezke. Halaber, Bilbon ere Mundaka eta Bermeorainoko txartelak erosi eta fardelak igorri ahal izango dira. Bi herri hauek trenbide geltokia dutela esan daiteke, beraz.*

*Trenbideari zein aipatu herriei abantaila handia eta emaitza onak eskainiko dizkien hobekuntza da zerbitzu hau.*

Egun batzuk geroago, 1896ko irailaren 1ean, tranbia berria zerbitzuan hasi zen, irailaren 3ko *El Noticiero Bilbaino* egunkariak adierazten zuenez:

## EL TRANVÍA DE PEDERNALES A BERMEO

El 18 de diciembre de 1895, Víctor Arana y Balaustegui, vecino de Guernica y pequeño accionista del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales,<sup>31</sup> solicitó a la Diputación de Vizcaya autorización para establecer un tranvía de motor de sangre entre Pedernales y Bermeo, aprovechando para ello la traza y obras de fábrica de la carretera de Bilbao a Bermeo.<sup>32</sup> El 4 de abril de 1896 la Diputación permitió al peticionario ocupar la parte necesaria de la calzada, mientras que el 14 de agosto del mismo año se anunciaba públicamente el proyecto.

Sin esperar la definitiva resolución de la concesión, Víctor Arana procedió a la inmediata constitución de la empresa explotadora, la Compañía del Tranvía de Pedernales a Bermeo, con un capital social de 110.000 pesetas, suficiente para cubrir el presupuesto estimado de la construcción de la línea, valorada en 121.032 pesetas.<sup>33</sup> La gran mayoría de las acciones fueron suscritas por Pedro Pascual de Gandarias, con un total de 180 títulos, mientras que las restantes se repartieron entre Jerónimo de Albizuri, con veinte, y el propio Víctor Arana, con otros veinte. De inmediato se emprendieron las obras, las cuales se desarrollaron con gran celeridad. Así, la edición del 8 de agosto de 1896 del diario *El Nervión* señalaba en su sección «De ayer a hoy»:

*A mediados del mes actual se pondrá en explotación el nuevo tranvía de Pedernales a Mundaca y Bermeo, con un buen servicio de combinación directa con todos los trenes de los ferrocarriles de Durango y de Guernica. Al efecto, tanto en Bermeo como en Mundaca se podrán tomar billetes directos y facturar bultos para las estaciones de la línea de Guernica y para Bilbao, Amorebieta, Durango y Zumárraga. Igualmente en Bilbao se expenderán billetes y admitirán facturaciones para Mundaca y Bermeo, con lo cual dichos pueblos quedarán considerados como si en ellos existiera estación de ferrocarril.*

*Es una mejora de positivos resultados y gran ventaja, tanto para las líneas férreas como para los pueblos mencionados.*

Poco después, el 1 de septiembre de 1896, entraba en servicio el nuevo tranvía, tal y como recogía la crónica de *El Noticiero Bilbaino* del día 3:

<sup>31</sup> Hamar akzio zituen. Sukarrieta eta Bermeo arteko tranbiak uneoro lotura estua izan zuen Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoarekin, haren akziodun nagusia, Pedro Pascual de Gandarias, aldi berean treneko Administrazio Kontseiluko presidente zen eta.

<sup>32</sup> Gaceta de Madrid, 1895eko abenduaren 20a.

<sup>33</sup> Enpresak ez zuen jo, horrelakoetan gertatu ohi zen bezala, obligazioak jaulkitzeari.

<sup>31</sup> Disponía de un total de diez acciones. El tranvía de Pedernales a Bermeo mantuvo en todo momento una estrecha vinculación con la Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales ya que su principal accionista, Pedro Pascual de Gandarias, era a su vez presidente del Consejo de Administración del ferrocarril.

<sup>32</sup> Gaceta de Madrid, 20 de diciembre de 1895.

<sup>33</sup> La empresa no recurrió, como era habitual en estos casos, a la emisión de obligaciones.

SUKARRIETA ETA BERMEO ARTEKO TRANBIA TXIKIAREN IRUDIA, MUNDAKATIK IGAROTZEAN.  
JOSÉ VICENTE COVES NAVARROREN MARRAZKIA.  
RECREACIÓN DEL MODESTO TRANVÍA DE PEDERNALES A BERMEO A SU PASO POR MUNDACA.  
DIBUJO DE JOSÉ VICENTE COVES NAVARRO.



*Sukarrieta-Bermeo tranbia martxan jarri zen atzo. Inaugurazioan Isidoro Leon jauna, Olartua jauna, Bermeo eta Gernikako artzapezak eta beste jende duin eta agurgarri asko. Ospakizun alaia izan zen. Trenbidearen lanak goraipatu ziren. Izan ere, Bermeotar guztiok trenbideari etorkizun oparoa opa zioten.*

Halaber, *El Nervión* egunkariaren irailaren 10eko edizioan Mundakatik jasotako informazio hau ematen zen:

*Tranbia jarri zenetik gustura dabil Mundakako herria. Burdin bidea herriko kaleetan jartzen uztearren konpainiak zalgurdi bitarteko zerbitzua ezarri du Mundakatik eta bertoko bidaiariei ezarlekua bermatzen die, lehen gertatzen ez zen moduan*

Emakidari zegokion espedienteak administrazioko tramitazio motelarekin jarraitu zuen, eta baldintzen plegua 1899ko urtarrilaren 12an onetsi zen. 1899ko uztailaren 19an emakidarako enkantea onetsi zen,<sup>34</sup> eta 1899ko azaroaren 15era arte ez zitzaion Víctor Aranari behin betiko eman, tranbiak zerbitzuan hiru urte baino gehiago zeramatzanean... Dena den, administrazio arloko irregulartasun larri horiek ez ziren inolako oztopo izan, Pedro Pascual de Gandariasek, enpresaren akziodun nagusiak, politika munduan zuen eragin handia zela eta.

Tranbiaren zerbitzua, Zornotzatik zetozen trenekin Sukarrietan lotura egitera mugatzen zen, eta, ondorioz, egunean, noranzko bakoitzean, hiru zirkulazio burutzen ziren. Zirkulazio horiei tren bereziak eta merkantzien trafikoari erantzuteko ezarritakoak gehitu behar zitzaizkien, batez ere Bermeoko kontserba eta arrantza industriek sortutakoa. Bost kilometro baino zertxobait gehiagoko ibilbidea oso abiadura motelean egiten zen, eta ordubete inguru behar zen ibilbide osoa egiteko. XX. mendearen hasieran bidaiak azkartu egin ziren, ibilbide berean ezarritako zaldi-kotxe zerbitzu batzuen kompetentziari aurre egin ahal izateko, eta, ondorioz, ibilbide osoa egiteko behar zen denbora ordu erdi ingurura murriztu zen.<sup>35</sup>

Tranbia horren ustiapena ez zen inoiz oso garrantzitsua izan, eta oso bidaiari gutxik erabili zuten. 1911n 39.919 bidaiarik erabili zuten, eta 3.137 tona merkantzia garraiatu zituen. Errepideko garraio mekanikoen garapena zela eta, tranbiaren bezeroak bertara joan ziren. Horrela, ustiapeneko azken urte osoan, 1917an, 7.064

*Ayer se inauguró el tranvía de Pedernales a Bermeo. A la inauguración asistieron D. Isidoro León, el Sr. Olaortua, el arcipreste de Bermeo, el de Guernica y otras respetables personas. En la fiesta reinó gran animación. Se hicieron grandes elogios de la buena construcción de la vía, para la que todos los bermeanos deseamos la mayor prosperidad.*

Asimismo, la edición del 10 de septiembre de *El Nervión* daba cuenta de la siguiente información procedente de Mundaca:

*El tranvía funciona desde su instalación muy a gusto del vecindario, el cual a conseguido, a cambio de la concesión de tender los rails en la calle del pueblo, que la empresa ponga para todos los trenes un servicio de carruajes que salga de Mundaca y asegure los asientos a los viajeros procedentes de aquí, cosa que antes no podían contar con seguridad.*

Por su parte, el expediente de la concesión prosiguió su lenta tramitación administrativa, siendo aprobado el pliego de condiciones el 12 de enero de 1899. El 19 de julio de 1899 se autorizó la subasta de la concesión,<sup>34</sup> la cual no fue definitivamente otorgada a Víctor Arana hasta el 15 de noviembre de 1899, cuando en realidad, el tranvía ya llevaba prestando servicio más de tres años... Sin lugar a dudas, estas graves irregularidades administrativas no supusieron ningún inconveniente gracias a la notable influencia política del principal accionista de la empresa, Pedro Pascual de Gandarias.

El servicio del tranvía se limitaba a la expediciones necesarias para combinar en Pedernales con los trenes procedentes de Amorebieta, por lo que habitualmente se registraban tres circulaciones diarias en cada sentido, a los que debían sumarse los trenes especiales y los establecidos para atender el tráfico de mercancías, principalmente el generado por las industrias conserveras y las pesquerías de Bermeo. El trayecto, de poco más de cinco kilómetros se cubría a velocidad muy reducida, invirtiendo cerca de una hora en cubrir la totalidad de la línea. A principios del siglo XX los viajes se aceleraron a fin de hacer frente a la competencia de algunos servicios de coches de caballos establecidos en este recorrido, reduciéndose el tiempo de marcha a una media hora.<sup>35</sup>

La explotación de este tranvía siempre fue modesta, registrando un tráfico verdaderamente reducido. En 1911 fue utilizado por un total de 39.919 viajeros, transportando al mismo tiempo 3.137 toneladas de mercancías. El desarrollo de los transportes mecánicos por

<sup>34</sup> Boletín de Vizcaya, 1899ko uztailaren 22a.

<sup>35</sup> José Ucelay, *El ferrocarril de Bermeo*, 15-17 orr.

<sup>34</sup> Boletín de Vizcaya, 22 de julio 1899.

<sup>35</sup> José Ucelay, *El ferrocarril de Bermeo*, pp. 15-17.



bidaiarik baino ez zuten tranbia erabili, hau da, 20 bezero egunean, eta ehun tona merkantzia baino zertxobait gehiago garraiatu zen, abiadura motelean. Emaizta horiek ikusita, enpresak, 1918ko apirilaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiari eskaria luzatu zion, tranbiaren ordeaz errepideko garraio mekaniko zerbitzua ezartzeko. Behin behineko baimena jaso zuen hilabete bereko 20an.

Garai hartan Isidoro Leon Arreguiak zuzentzen zuen tranbiaren enpresa ustiatzaileak,<sup>36</sup> berehala erosi zituen behar ziren baliabide guztiak, bi kamioi eta hiru autobus, hain zuzen ere,<sup>37</sup> eta 1918ko abuztuaren 15ean zerbitzua eskaintzen hasi zen. 1919ko irailaren 9an Bizkaiko Foru Aldundiak emakidadunari tranbiaren errailak jasotzeko baimena eman zion, eta behin betiko desagertu zen Sukarrieta eta Bermeo arteko tranbia txikia.

## EZAUGARRI TEKNIKOAK

Sukarrieta eta Bermeo arteko tranbia 5.635,65 metro luze zen, eta guztiak Bilbo eta Bermeo arteko errepidean zeuden. Hasiera batean, metro bateko bide zabalera ezartzeko eskaria egin zen, Zornotzako trenarekin bateragarri izan zedin,<sup>38</sup> baina azkenean, eta errepidean zati handiegirik har ez zezan, horrek beste ibilgailu batzuen zirkulazioa zaildu egingo baitzuen, Aldundiak ez zuen horretarako baimenik eman, eta zabalera 750 milimetrora mugatu zuen, Bilbo-ko hiri barruko tranbiek zuten zabalera berera, alegia.

Linea osoa bide bakarrekoa zen, errepidearen ezker aldean, Sukarrieta-Bermeo noranzkoan. Ardatza errepidearen kanpoko ertze-tik 1.750 milimetrora zegoen.<sup>39</sup> Tranbiak gurutzatzeko lau bazter-bide ezarri ziren: Portuondoganen (1.500 k.p.), Mundakako Santa Maria kalean edo Kale Nagusian (2.600 k.p.), Ondartxon (3.550 k.p.) eta Larrosako gainean (4.272 k.p.), bai eta linearen bi muturretan ere. Bazterbide horietako bakoitzak gutxienez hamabost metroko luzera izan behar zuen piketeen artean, eta bideen ertzen arteko tartea ez zen 1.850 milimetrotik beherakoa izan behar, 1,60

carretera arrebató rápidamente la clientela del tranvía, el cual, en su último año de explotación completa, 1917, fue utilizado por tan sólo 7.064 viajeros, lo que suponía una media de 20 clientes diarios y poco más de cien toneladas de mercancía en régimen de pequeña velocidad. Ante estos resultados, la empresa solicitó a la Diputación de Vizcaya, el 3 de abril de 1918, la sustitución del tranvía por un servicio de transporte mecánico por carretera, obteniendo la autorización provisional para ello el 20 del mismo mes.

De inmediato, la empresa explotadora del tranvía, dirigida en aquella época por Isidoro León Arreguía,<sup>36</sup> procedió a adquirir los medios necesarios, en concreto dos camiones y tres autobuses<sup>37</sup> con los que comenzó a prestar servicio el 15 de agosto de 1918. El 9 de septiembre de 1919 la Diputación de Vizcaya autorizó al concesionario al levante de las vías, desapareciendo definitivamente el pequeño tranvía de Pedernales a Bermeo.

## CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

El tranvía de Pedernales a Bermeo tenía una longitud total de 5.635,65 metros, implantados en su totalidad a lo largo de la carretera de Bilbao a Bermeo. Inicialmente se solicitó su establecimiento en ancho de vía métrico, a fin de hacerlo compatible con el ferrocarril de Amorebieta,<sup>38</sup> pero finalmente, y con objeto de no ocupar en exceso la calzada, lo que dificultaría la circulación de los restantes vehículos, la Diputación exigió que el ancho de vía se redujera a 750 milímetros, entevía idéntica al de los tranvías urbanos de Bilbao.

La línea se estableció en su totalidad en vía única, en el lado izquierdo de la carretera en sentido Pedernales-Bermeo, encontrándose su eje a 1.750 milímetros de la arista exterior de la calzada.<sup>39</sup> Para el cruce de las composiciones se establecieron un total de cuatro apartaderos en Portuondogane (p.k. 1.500), en la calle Santa María o Mayor de Mundaca (p.k. 2.600), Ondarcho (p.k. 3.550) y

<sup>36</sup> Pertsonaia horrek parte hartze aktiboa izan zuen garai hartako bizitza politikoan. Bizkaiko Diputatu izan zen, eta ondoren Badajozeko Gobernadore Zibil izendatu zuten, 1920ko abuztuaren 10ean. Geroago kargu bera izan zuen Burgosen, 1921eko maiatzaren 14tik aurrera. 1922ko apirilaren 17an Cuencako eta Logroñoko Gobernadore Zibil izendatu zuten. Tranbiaren nondik norakoa zuzentzen zuen bitartean, Zornotza eta Sukarrieta arteko trenaren Zuzendari ere bazen, eta lotura zuzena izan zuen beti Gandarias familiak eskualdean zituen interesekin.

<sup>37</sup> Zehaztuz, esango dugu kamioiak hiru tona eta erdiko Selden bat eta bi tonako Panhard bat. Autobusak, berriz, 16 eserleku zituen Berliet bat, 14ko Panhard bat eta 12 plazako Renault bat.

<sup>38</sup> Aukera horrekin merkantzien bagoiak Bermeoraino eramán ahal izango ziren, karga leku bate-tik bestera aldatzen ibili behar gabe.

<sup>39</sup> Errepidea sei metro zabal zen.

<sup>36</sup> Personaje que participó activamente en la vida política del momento. Fue Diputado Provincial de Vizcaya, siendo posteriormente nombrado Gobernador Civil de Badajoz el 10 de agosto de 1920. A continuación también ostentó similar cargo en Burgos a partir del 14 de mayo de 1921. El 17 de abril de 1922 fue designado Gobernador Civil de Cuenca y de Logroño el 12 de abril del mismo año. Al mismo tiempo que regía los destinos del tranvía era también Director Gerente del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales y estuvo permanentemente ligado a los intereses de la familia Gandarias en la comarca.

<sup>37</sup> En concreto, los camiones eran un Selden de tres toneladas y media y un Panhard de dos toneladas, mientras que los autobuses eran un Berliet de 16 asientos, un Panhard de 14 y un Renault de 12 plazas.

<sup>38</sup> Esta opción hubiera permitido el acarreo de los vagones de mercancías hasta Bermeo sin necesidad de trasbordar su carga.

<sup>39</sup> El ancho de la carretera era de seis metros.

metro zabal ziren kotxeen gurutzaketa zitura bermatzeko. Errailak Loubat sistemakoak ziren, arima eta patinik gabeak, eta metro linealak 17 kilogramo baino ez zituen pisatzen. Zoladuran sartutako zurezko langan gainean zeuden muntatuta.

Linearen profila erabat gorabeheratsua zen, %8 arteko aldapaz beatea. Hori dela eta, tiro bikoitza erabili behar izaten zen etengabe, eta kotxeen balaztak indarturik zeuden, ibilbide horretan lan egin ahal izateko.

Linea ustiatzeko, Compañía del Tranvía de Pedernales a Bermeo izenekoak bidaiariak garraiatzeko sei kotxe erosi zituen, hiru itxiak eta beste hiru irekiak, “jardinera” motakoak. Azken horiek udako zerbitzuan erabiltzen ziren batez ere. Parkea osatzeko, merkantzien garraiorako hiru bagoi zituzten. Material mugikor hori eramateko, baldintzen pleguan gutxienez hamabi mando eskatzen ziren. Dena den, badakigu 1911n gutxienez hamasei zeudela. Bai Sukarrietan, bai eta Bermeon ere, kotxetegi eta korta txikiak egin ziren, ibilgailuak eta animaliak gordetzeko.

en el Alto de Larrosa (p.k. 4.272), así como los correspondientes a los extremos de la línea. Cada uno de ellos debía ofrecer una longitud entre piquetes de al menos quince metros, mientras que la separación entre ejes de vía no debía ser inferior a 1.850 milímetros, a fin garantizar el cruce seguro de los coches, de 1,60 metros de anchura. Los carriles eran del sistema Loubat, sin alma ni patín, y de tan solo 17 kilogramos por metro lineal, montados sobre largueros de madera empotrados en el pavimento.

El perfil de la línea era verdaderamente accidentado, con constantes subidas y bajadas en las que las rampas llegaban a ser del 8%, lo que exigía el uso continuado del tiro doble mientras que los frenos de los coches estaban especialmente reforzados para trabajar en este trazado.

Para la explotación de la línea, la Compañía del Tranvía de Pedernales a Bermeo adquirió un total de seis coches para transporte de viajeros, tres cerrados y otros tantos abiertos, del tipo jardinera, estos últimos diseñados específicamente para el servicio de verano. El parque se completaba con tres vagones para el transporte de mercancías. Para el arrastre de este material móvil el pliego de condiciones exigía un mínimo de doce mulas, aunque en 1911 hay constancia de la existencia de al menos dieciséis semovientes. Tanto en Pedernales como en Bermeo se establecieron pequeñas cocheras y cuadras para albergar los vehículos y el ganado.

Lehen esan dugun bezala, 1890eko abuztuaren 7ko legeak, Lutzana eta Mungia arteko trenaren emakidadunari, Manuel Lecanda jaunari, baimena eman zion trenbidea Bermeoraino luzatzeko.<sup>40</sup> Linea txiki hura ustiatzen zuen konpainiak zegokion proiektua idazteko eskatu zion berehala Ernesto Hoffmeyer ingeniari ezagun bilbotarrari. Hark, proiektuaren txostenean, tren berriaren abantailak defendatu zituen:

*Helburu nagusia Bermeo eta Bilbo zuzen eta arin lotzea da. 1887ko errolda datuen arabera, Probintziako hiri nagusia kendu eta, biztanle gehien duen hiria Bermeo da (8.384 biztanle). Hala eta guztiz ere, hiri honek ez ditu biztanle gutxiagoko beste hiri batzuk duten edo epe laburrean izango duten tren zerbitzu zuzenaren onurak. Zerbitzua dutenen artean Duran-*

Como se ha señalado anteriormente, la ley de 7 de agosto de 1890 facultaba al concesionario del ferrocarril de Luchana a Munguía, Manuel Lecanda, a prolongar sus vías hasta Bermeo.<sup>40</sup> La compañía explotadora de esta pequeña línea encomendó de inmediato la redacción del oportuno proyecto al reputado ingeniero bilbaíno Ernesto Hoffmeyer, quien en la memoria del proyecto defendía las ventajas del nuevo tren:

*El objetivo principal es la unión rápida y directa de Bermeo con Bilbao. Bermeo, según datos del censo de 1887, es la villa de mayor vecindario de la provincia, después de la capital (8.384 habitantes). A pesar de ello, se halla privada de los grandes beneficios que proporciona la comunicación directa por vía férrea, de que disfrutaban Durango (3.713 habitan-*

<sup>40</sup> Emakida eman zen unean, Lutzana eta Mungia arteko linea eraikuntza prozesuan zegoen. Trenbide hori Lutzana eta Artebakarra artean inauguratu zen 1893ko maiatzaren 3an, eta gainerako zatia 1894ko uztailaren 10ean hasi zen lanean.

<sup>40</sup> En el momento en que fue otorgada la concesión, la línea de Luchana a Munguía se encontraba en pleno proceso de construcción. Este ferrocarril fue inaugurado entre Luchana y Artebakarra el 3 de mayo de 1893, entrando en servicio el tramo restante hasta Munguía el 10 de julio de 1894.

go (3.713 biztanle), eta Balmaseda (2.256) ditugu adibidez. Eta zerbitzu epe laburrean izango dutenen artean 1494 biztanle duen Plentzia eta 4240 duen Mungia ditugu, biak hiri eta elizateak, alegia.

Bermeo-Bilbao ibilbidea egiteko Gernikako trenbidea edo Mungiako trenbidea konparatuz gero, Mungiakoak abantailak dituela argi eta garbi ikus daiteke. Mungiako ibilbideak tren zuzeneko 37 kilometro du. Gernikakoak berriaz 59 kilometro, eta gainean tren-aldaketa bi gehiago egin behar da.

Denbora aldetik Mungiatik ordubete gutxiago du.

Eta esplotazio gastuak txikiagoak direnez bidaia-txartelak ere merkeagoak izango dira...<sup>41</sup>

Linea berriaren trazatuari zegokionez, Hoffmeyer ingeniariak honako hau adierazi zuen:

*Mungiako geltokitik hurbil Butroi ibaia zeharkatuz Belakoraino ailegatuko da (18,400 p.k.) bihurtune zabalak jarraituz. Berton Fika, Gamiz, Fruiz, Arrieta eta Meñakako jendearentzako geralekua ezarriko zen.*

*Meñakako iturri ondotik Larrauriraino ailegatuko zen (21,200 p.k.) eta auzo honetan beste geraleku bat ezarriko zen, bertokoei, bere bainuetxeke bisitariei eta Meñakako auzo batzuei zerbitzua eskaini ahal izateko.*

*Bermeoko errepidea zeharkatuz Sollube ibarraren eskumako maldatik gora abiatuko zen Bakioko herri-bidea igaroz. Gero, Elorriaga Baserri ondotik eta Emerando inguruko mendietan 365 metroko tunel batetik joango zen. Infernuko mendiartotik Bakiora ailegatu eta gero 1470 metroko tunel luze bat egin behariko zen mendiak zeharkatzeko. Tunel honen prezioa ez litzateke 1.500.000 pezeta baino gutxiagokoa izango, seguru asko. Etxebarrierkaren maldatik eta Bidetxe eta Lopetegi baserri ondotik inguratuz Artigako mendiarrora ailegatuko zen. Eta azkenik, Bermeraino.<sup>42</sup>*

Emakida burutu aurretik, Bermeoko Udalak obrari laguntza ematea erabakita zuen, izan ere, 1890eko ekainaren 10ean burututako lan saioan, obrari 250.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki baitzuen, obra berriaren aurrekontua 1.750.0000 pezetatik gor-

*tes), y Balmaseda (2.256) y otras de menor volumen de habitantes tendrán a corto plazo, como es Plencia (1.493) y Munguía (ambos, Villa y Anteiglesia) con 4.204.*

*La diferencia de recorrido entre Bermeo y Bilbao por la línea de Guernica y la de Munguía es claramente favorable a esta última. Por Munguía habrá 37 kilómetros de ferrocarril directo y por Guernica 59 kilómetros. Además de los 22 kilómetros de diferencia, hay dos trasbordos más por Guernica.*

*La diferencia en tiempo será de una hora a favor de la línea de Munguía.*

*Como los gastos de explotación serán menores, los billetes también serán más baratos...<sup>41</sup>*

Respecto al trazado de la nueva línea, el ingeniero Hoffmeyer exponía:

*Desde la estación de Munguía, atravesando en sus cercanías el río Butrón, continuará la línea con curvas suaves hasta Belako (p.k. 18,400), donde se proyectaría un apeadero para los vecindarios de Fica, Gámiz, Fúniz, Arrieta y Meñaca.*

*Seguiría ascendiendo por el arroyo de Meñaca hasta Larrauri (p.k. 21,200), donde se establecería otro apeadero, que servirá a este barrio, su establecimiento de baños y parte de los vecindarios de Meñaca.*

*Cruzando la carretera de Bermeo se pasaría a la ladera derecha del arroyo Sollube, por el cual asciende atravesando la carretera vecinal de Baquío para cruzar en túnel de 365 metros de longitud, cerca de los caseríos Elorriaga, la estribación de Emerando. Tras la llegada a Baquío (apeadero) por la barranca del Infierno, se necesitaría, para atravesar los montes, un túnel de más de 1.470 metros de longitud, que no costaría quizás menos de 1.500.000 pesetas. Por la falda de la línea de Echevarriera y cerca de los caseríos Bideche y Lopatefui, contorneando se llegaría a la barranca de Artigas y finalmente a Bermeo.<sup>42</sup>*

Antes de que la concesión llegara a materializarse, el Ayuntamiento de Bermeo ya había decidido contribuir a la obra, al acordar en sesión del 10 de junio de 1890, colaborar en su ejecución con una subvención de 250.000 pesetas si el presupuesto de la nueva línea

<sup>41</sup> José Etxegarai, *Historias de Mungia (1883-1900)*, 116-117 orr.

<sup>42</sup> José Etxegarai, *Op. Cit.*, pp. 117-119)

<sup>41</sup> José Etxegarai, *Historias de Mungia (1883-1900)*, pp. 116-117)

<sup>42</sup> José Etxegarai, *Op. Cit.*, pp. 117-119)



LUTXANA ETA MUNGIA ARTEKO  
TRENBIDEKO ZENBAKIKO  
"ORIVE" LOKOMOTORA. LINEA  
HORI USTIATU ZUEN ENPRESA  
BEHIN BAINO GEHIAGOTAN  
SAIATU ZEN TRENBIDEA  
BERMEORAINO LUZATZEN.  
ARGAZKIA, JOHN BLYTH.  
TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN  
ARTXIBATEGIA.  
LOKOMOTORA N<sup>o</sup> 1 "ORIVE"  
DEL FERROCARRIL DE LUCHANA  
A MUNGUÍA. LA EMPRESA  
EXPLOTADORA DE ESTA LÍNEA  
INTENTÓ EN SUCESIVAS  
OCASIONES PROLONGAR SUS VÍAS  
HASTA BERMEO. FOTO JOHN  
BLYTH. ARCHIVO DEL MUSEO  
VASCO DEL FERROCARRIL.



BILBO ETA LEZAMA ARTEKO  
TRENBIDEKO "BILBAO" LURRUN  
LOKOMOTORA. ENPRESA HORREK  
1919AN TRENBIDEA  
BERMEORAINO LUZATZEKO  
EMAKIDA LORTU ZUEN. KRAUSS-  
MAFFEIREN ARTXIBATEGIA.

LOKOMOTORA DE VAPOR  
"BILBAO" DEL FERROCARRIL DE  
BILBAO A LEZAMA, EMPRESA  
QUE EN 1919 OBTUVO LA  
CONCESIÓN PARA PROLONGAR EL  
FERROCARRIL A BERMEO.  
ARCHIVO DE KRAUSS-MAFFEL.

koa ez bazen, eta gainerakoaren %20a kopuru hori baino gehiagokoa baldin bazen. Hala ere, eta laguntza hori hor bazegoen ere, Lurtxana eta Mungia arteko trenak ez zuen lortu lanari ekiteko behar zuen finantzaketa, eta, gainera, beste erakundeek ez zioten laguntzarik eman. Esan behar da, haren aurkari nagusiak, Gernikako trenak, harreman estuak zituela erakundeekin. Ez dugu ahaztu behar garai hartan barruti horretatik Madrilen diputatu zela Manuel María Arrotegui, Gernikako tranbiaren 20 akzio zituena eta Gernika eta Bermeo arteko luzapenerako emakida zuena, eta, horrez gain, linearen Zuzendari Gerentea, Isidoro Leon Arreguia, Probintziako Diputatu zen.

Bermeoko trenak bultzada berria izan zuen 1904ko uztailaren 30ean, Bigarren Mailako Trenbideen Legea<sup>43</sup> izenekoa onetsi zenean. Lege horren III. kapituluaren adierazten zenez, sei hilabeteko epea zegoen eraiki beharreko bigarren mailako trenbideen plana zehaztu behar zuen batzordea eratzeko, eta horiek, inbertitutako kapitalaren %5eko interes hobekuntza izan zezaketen estatuaren aldetik. Aginte horri jarraituz, Arabako eta Bizkaiko Herri Lanen buruak lehentasuna eman zion Mungia, Bermeo eta Sukarrieta arteko trenbidea eraikitzeari, eta horrek Bermeon bi lineen elkartzea eragingo zuen.

1909an Compañía del Ferrocarril de Luchana a Munguía izenekoak zegokion emakida eskatu zuen, Bigarren Mailako Trenbideen Legean oinarriturik, Mungia eta Bermeo arteko zatia eraikitzeko, Jose Orbegozo ingeniariak idatzitako proiektuari jarraituz. Eskariak ezezkoa jaso zuen, ez baitzuen aurreikusten linearen burutzapen osoa aipatutako Legean ezarritako intereseko bermea kontuan izanik, hau da, Sukarrietaraino.

Egoera horren aurrean, hirugarren enpresa bat izan zen Mungiatik Bermeo eta Sukarrieta arteko trenbidearen eskaria aurkeztu zuena, Compañía del Ferrocarril de Bilbao a Lezama izenekoa.<sup>44</sup> José Ucelay e Isasi Bermeoko ingeniariak egindako lanei esker, 1915eko ekainean aurkeztu beharreko aurreproiektua aurkeztu zen, eta egin beharreko administrazioko izapidetza hasi zen, 1917ko abenduaren 11ko Gaceta de Madrid egunkariak eraikuntzarako proiektuen lehiaketaren irekiera iragarri zuen arte.<sup>45</sup>

no excedía de 1.750.000 pesetas, y con el 20% del exceso si sobrepasaba dicha cifra. Sin embargo, y a pesar de este decidido apoyo, la compañía del ferrocarril de Luchana a Munguía no logró reunir los recursos financieros precisos para afrontar la empresa, al tiempo que le fue negada la ayuda de las instituciones, con las que su competencia, el ferrocarril de Guernica, tenía estrechas relaciones. No hay que olvidar que en aquel momento era diputado en Madrid por este distrito Manuel María Arrotegui, titular de 20 acciones así como de la concesión para la prolongación entre Guernica y Bermeo, mientras que el Director Gerente de la línea, Isidoro León Arreguía, era a su vez Diputado Provincial.

El ferrocarril a Bermeo tomó un nuevo impulso gracias a la aprobación, el 30 de julio de 1904, de la Ley de Ferrocarriles Secundarios.<sup>43</sup> Según el capítulo III de dicha Ley, se otorgaba el plazo de seis meses para la constitución de una comisión que debía definir el plan de ferrocarriles secundarios a construir, los cuales podrían beneficiarse de una garantía del 5% de interés del capital invertido por parte del Estado. Siguiendo este mandato, la Jefatura de Obras Públicas de Álava y Vizcaya propuso como prioritaria la construcción de un ferrocarril entre Munguía, Bermeo y Pedernales, lo que supondría la unión de las dos líneas concurrentes a través de Bermeo.

En el año 1909, la Compañía del Ferrocarril de Luchana a Munguía solicitó la oportuna concesión, al amparo de la Ley de Ferrocarriles Secundarios, para la construcción de la sección comprendida entre Munguía y Bermeo, según el proyecto redactado por el ingeniero José Orbegozo, pero la petición fue rechazada debido a que no contemplaba la realización integral de la línea amparada por la garantía de interés establecida en la citada Ley, es decir, hasta Pedernales.

Ante esta situación, fue una tercera empresa la que finalmente solicitó la concesión del ferrocarril de Munguía a Bermeo y Pedernales, la Compañía del Ferrocarril de Bilbao a Lezama.<sup>44</sup> Gracias a los trabajos realizados por el ingeniero bermeano José Ucelay e Isasi, se presentó el oportuno anteproyecto en junio de 1915, iniciándose su correspondiente tramitación administrativa hasta que el 11 de diciembre de 1917 la Gaceta de Madrid anunció la apertura del concurso de proyectos para su construcción.<sup>45</sup>

<sup>43</sup> Lege hori Manuel Allende Salazar Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Herri Lan Ministro zela eman zen.

<sup>44</sup> Enpresa horrek harreman estuak zituen Lurtxana eta Mungia arteko trenaren enpresarekin, eta harekin bat egiten zuen Sondikako geltokian.

<sup>45</sup> Gaceta de Madrid, 1917ko abenduaren 11, 346 or.

<sup>43</sup> Dicha Ley fue promulgada siendo ministro de Agricultura, Industria, Comercio y Obras Públicas Manuel Allende Salazar.

<sup>44</sup> Esta empresa mantenía estrechas relaciones con la del ferrocarril de Luchana a Munguía, con la que enlazaba en la estación de Sondica.

<sup>45</sup> Gaceta de Madrid, 11 de diciembre de 1917, p. 346.



BERMEORAKO LUZAPENEN LEHENBIZIKO LANAK, PORTUONDOKO BADIAN. BUESA FAMILIAREN ARTXIBATEGIA.

PRIMERAS OBRAS DE LA PROLONGACIÓN A BERMEO EN LA ENSENADA DE PORTUONDO. ARCHIVO FAMILIA BUESA.

Albistea izugarritzko pozez jaso zen Bermeon. Sei egun geroago poza adierazteko manifestazio handia antolatu zuen, eta bertan, Ucelay jaunari, Erregeari eta Gobernuari eskerrak emateko telegramak igortzea erabaki zen. Horrez gain, 1918ko abuztuan, herri bazkaria antolatu zen proiektuaren zuinketa egin behar zuten Sustapen Ministerioko arduradunen ohoretan. Azkenik, 1919an, behin betiko ematea jaso zuen Francisco de Las Heras y Ávila jaunak,<sup>46</sup> Bilbo eta Lezama arteko trenbidearen Administrazio Kontseiluko presidentetia. Hala ere, Munduko Lehen Gerra zela eta gertatutako prezioen igoera handiaren ondorioz, linearen eraikun-

Solucionados el problema financiero y el de la falta de mano de obra, los trabajos adquirieron un buen ritmo, aunque dada la precariedad de medios empleados, se repitieron los accidentes, destacando el que le costó la vida a Vicente Sánchez Mazarrón, antiguo liberto, que falleció al ceder el encofrado del viaducto de Lamiaran el 30 de junio de 1953.<sup>80</sup> A pesar de ello, el contratista pudo cumplir con el plazo de veinticinco meses previstos en el artículo sexto del contrato de adjudicación, por lo que el 16 de agosto de 1955 se procedió a la inauguración de la línea, con presencia del General Franco, el cual llegó a la villa marinera a bordo de su yate Azor. Tras presidir primero la apertura del nuevo ambulatorio del Instituto Social de la Marina, el dictador y su séquito se encaminaron hacia la estación del ferrocarril, tal y como señalaba en su crónica del 17 de agosto el periódico *El Correo Español*:

<sup>80</sup> Pozoblancon (Kordoba) jaio zen. Lanbidez argazkilaria zen. Edorta Jimenezek emandako informazioa.

<sup>80</sup> Natural de Pozoblanco (Córdoba), su profesión era la de fotógrafo. Información facilitada por Edorta Jiménez.



BERMEORA HELDU ZEN LEHENENGO LAN TRENAREN ARGAZKIA. HILARIO AURTENETXEREN ARTXIBATEGIA.

FOTOGRAFÍA DEL PRIMER TREN DE TRABAJOS QUE LLEGÓ A BERMEO. ARCHIVO DE HILARIO AURTENETXE.

### *Trenbidea*

**Segizioak oinez abiatu zen** guztiz apainduta zegoen trenbide berriaren geltokira. Bertan inaugurazioko konboia zegoen. “Exzelentísimo”a eta segizioak geltokiko sail eta alde guztiak bisitatu zituzten adi eta lasaitasunez.

Ondoren, Bilboko apezpikua trenbide instalazioak bedeinkatu zituen eta konboiak Sukarrietarako bide hartu zuen.

Ibilbide osoaren zehar jende ugari agertu zen “Exzelentísimo”aren alde oihu egiten: Franco, Franco, Franco! Eta zapiak lau haizetara zabaltzen zituzten ere.

Busturiako udalbatza “Exzelentísimo”aren zain zegoen Sukarrietan. “Kaudilo”a segizioarekin batera jaitsi zen trenetik eta Bilboko Aurrezki Kutxaren hartzaindegi etxera joan zen bisita labur bat eginez.

### *El ferrocarril*

La comitiva se dirigió a pie a la estación del nuevo ferrocarril, profusamente engalanada, donde estaba formado el convoy inaugural. Su Excelencia y el séquito recorrieron detenidamente las instalaciones y dependencias de la estación.

El obispo de Bilbao, doctor Morcillo, procedió acto seguido a bendecir las instalaciones ferroviarias, partiendo el convoy a continuación en dirección a Pedernales.

A lo largo del recorrido centenares de personas renovaron su adhesión al Jefe del Estado con los gritos de ¡Franco, Franco, Franco! Y el flamear de miles de pañuelos.

En Pedernales esperaban a Su Excelencia el Ayuntamiento de Busturia en cuerpo de comunidad. El Caudillo descendió del tren juntamente con



*Bertan instituzioko zuzendaritza langileek eta koloniako hurrek egin zioten harrera eta "Exzelentísimo" aldarrikatu zuten ere.*

Horrez gain, aurreko eguneko edizioak trenbide berriaren deskribapen interesgarria eskaintzen zuen:

*su séquito, trasladándose en automóvil al Preventorio Infantil de la Caja de Ahorros Municipal, al que giró una breve visita, siendo recibido por el personal directivo de la Institución y por los niños de la colonia, que aclamaron entusiastamente [sic] a Su Excelencia.....*

Asimismo, la edición de la víspera publicaba una interesante descripción de la nueva vía:



FRANCO DIKTADOREA IZAN ZEN SUKARRIETA ETA BERMEO ARTEKO  
TRENBIDEAREN LUZAPENAREN INAUGURAZIO EKITALDIAREN BURU. TRENAREN  
EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.  
EL DICTADOR FRANCO PRESIDÓ LA INAUGURACIÓN DE LA PROLONGACIÓN ENTRE  
PEDERNALES Y BERMEO. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

## Linea berria

Linea berriaren trazatua harrigarri eta ausarta da, Sukarrietako gaur eguneko geltokian hasi eta Txatxarramendi eta kostaldea lotzen duen zubi azpitik abiatzen da. Tineletatik eta mendi maldetatik kendutako lurraz eta lan hondakinaz padura bete eta, lehen Sukarrietako padura zenaren barrera jarraitzen du bideak. Kostaldearen sartune baten gainetik abiatzen da lubeta zabal bat jarraituz. Eta kostaldeko haitzak eta irtenguneak tunelen bitartez zeharkatzen ditu, errepide azpitik igaroz. Azkenik, 240,40 metroko tunel batetik Mundakako geltokira ailegaten da.

Geltokia atzean utziz, trenbidea berriro errepide azpitik igaro eta itsasora hurbiltzen da. Hemendik aurrera bere ondoan jarraitzen du helmugaraino. Oraindik ere, zubi-bide bat zeharkatzen du Lamiaren punta inguruan eta Bermeoko Artzara ailegatzeko lau tunel gehiago igaro beharko du. Artzan bertan merkantzia eta bidaiari geltokiak daude, batetik bestera berrogeita hamar metro inguru egonik.

## La nueva línea

El trazado de la nueva línea es de lo más pintoresco y atrevido. Nace en Pedernales, en la actual estación, pasa bajo el puente que une la costa con Chacharramendi, continúa a través de la «marisma» de Pedernales, que ha desaparecido rellena con los escombros sacados de los túneles y desmontes, continúa por un amplio terraplén sobre uno de los entrantes de la costa, atraviesa los salientes por medio de varios túneles y pasando por debajo de la carretera, mediante un largo túnel (240,40 metros), llega a la estación de Mundaca.

Pasada ésta, la vía cruza de nuevo bajo la carretera y se aproxima al mar corriendo todo el resto del trayecto muy cercana a éste. Ha de atravesar aún un viaducto, cerca de la punta de Lamiaren y cuatro túneles más para llegar al «Arza» bermeana, en donde se encuentra situadas las dos estaciones, de viajeros y mercancías, a unos cincuenta metros una de otra.



INAUGURAZIOKO TRENA, BEHAR BEZALA APAINDUTAKO DIESEL LOKOMOTORAK ERAMANDA, BERMEOKO GELTOKIAN. BUESA FAMILIAREN ARTXIBATEGIA. TREN INAUGURAL, ENCABEZADO POR UNA LOCOMOTORA DIESEL CONVENIENTEMENTE EN GALANADA, EN LA ESTACIÓN DE BERMEO. ARCHIVO FAMILIA BUESA.

## **Geltokiak**

*Hiru dira trenbide linea berriaren geltokiak. Lehenengoa Mundakakoa, Barnealdera doan errepidetik berrogeita hamar metrora dagoena. Euskal etxearen estilokoa da eta bertan ohiko zerbitzuak daude. Trenbide bikoitza du maniobrak egin ahal izateko eta nasa zabal eta handiak zama lanak erraztatzeko. Errepidera joateko berrogeita hamar metro luzera eta zortzi metroko zabalera izango duen kale berri bat egingo da.*

*Beste bi geltokiak Bermeon daude. Abiadura txikiko zama garraioaren geltokia ez dago oraindik amaituta, geltokiaren kokalekuan zegoen hai-*

## **Las estaciones**

*Tres son las estaciones de la nueva línea férrea. Es la primera la de Mundaca, situada a unos cincuenta metros de la carretera hacia el interior. Es un hermoso edificio del estilo del país, en el que van instalados los servicios usuales. Tiene doble vía para las maniobras y amplios andenes para la carga y descarga de mercancías. Irá unida a la carretera por una amplia calle, todavía no construida, de ocho metros de ancho y cincuenta de largo.*

*Las otras dos estaciones se encuentran en Bermeo. La de mercancías en pequeña velocidad no está terminada totalmente ya que falta por ultimar*



INAUGURAZIOKO TRENA  
SUKARRIETAKO GELTOKIRA  
HELTZEN. TRENAREN EUSKAL  
MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.  
LEGADA DEL TREN INAUGURAL A  
LA ESTACIÓN DE PEDERNALES.  
ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL  
FERROCARRIL.

*tzezko muturra garbitzeko lanak amaitzeko daude eta. Baina bidaia-rien geltokia amaituta dago jadanik.*

*Geltoki egiterakoan toki horretatik ikusten den paisaia gorde nahi izan da eta itsasontziak portuko ur baretan ikusten dira. Geltokia errepede-aren maila azpitik eraiki da, errepede bertatik hiru metro beherago dau- den nasetara jaitsi ahal izateko eskailera baten bidez. Ohiko zerbitzuak ditu, eta trenbideko langileentzako etxebizitzak ditu ere.*

### **Zubi-bideak eta tunelak**

*Trenbide honetako trazatua arras zaila da. Ia ibilbidearen erdia fabri- kazko lanen bitartez burutu da. Bost kilometro ere ez duen ibilbidea egiteko bi zubi-bide eta zortzi tunel egin behar izan da.*

*4850 metro duen ibilbide honetan zortzi tunelek 1028, 70 metro osa- tzen duten guztira. Tunelik luzeenak Mundakako geltokia baino lehe- nago dagoena, 240,40 metro du. Eta laburrenak, arrain irinen Alfa en- presaren ondoan dagoena, 13,50 metro.*

*Zubi-bideak berriz, bata Mundakan, tunelaren sarreran (96,50 metro) eta bestea Lamiaren puntan (92 metro). Biek kostaldearen sartuneak gainditzeko balio dute.*

*Bost horma sendo dira gainontzeko fabrikazko lanak. Horma hauek itsasoak bustitzen dituen harkaitzetan dute zutoinak eta trenbidea ba- besten dute trazatuaren hainbat lekutan, batez ere azkeneko zatian, zailenatariko bat izan da eta.*

### **Hogei miloi**

*Lanak 1944an hasi ziren eta bere kostea hogei milioi pezeta inguru izan da. Bidaiari zerbitzua martxan dagoen arren eta lan guztiak ia- ia amaiturik badaude ere, lan zehatz batzuk falta dira oraindik.*

*Gaurko inaugurazioan zerbitzua eman duen lokomotora horren beza- lakoak (diesel-elektrikonak) erabiliko dira linea honetan 1956tik au- rrera. Horiakin trafikoa nabarmen hobetuko da, eta ibilgailu hauek du- ten erosotasunaz, Bilbotik Bermeora joateko ordubete eta laurden bat baino ez da behar izango.*

*Egunkariko kronikan adierazten zenez, inaugurazioa egin bazen ere, oraindik hainbat lan amaitu barik zeuden, bai trenbidean, bai eta eraikinetan eta instalazioetan ere. Adibidez, lehenbiziko lau ur- teetan zati horretako gehieneko abiadura orduko 25 kilometrokoa*

*el desmante del espigón rocoso que ocupaba el punto en que estará la es- tación. Por el contrario, la de viajeros está ya terminada.*

*Al hacerla se ha procurado conservar las perspectivas del lugar, que ofre- ce a la vista el puerto con los barcos en él fondeados, y se ha construido la estación bajo el nivel de la carretera, de la que se llega hasta los ande- nes situados unos tres metros por debajo, mediante unas escaleras. Tiene los servicios habituales y en sus dependencias se encuentra un bloque de viviendas en el que será alojado el personal del ferrocarril.*

### **Los viaductos y túneles**

*El trazado, extraordinariamente difícil, de este ferrocarril, ha obligado a multiplicar las obras de fábrica que suponen casi la mitad del recorrido. Dos viaductos y ocho túneles ha habido que construir para un recorrido que no llega a los cinco kilómetros.*

*La longitud total de los ocho túneles es de 1.028,70 metros en una lí- nea cuyo recorrido total es de 4.850. El túnel más largo (el que se en- cuentra antes de la estación de Mundaca) tiene 240,40 metros y el más corto (el situado junto a la fábrica de harinas de pescado Alfa), 13,50.*

*Los viaductos se encuentran, uno en Mundaca, a la entrada del túnel (96,50 metros) y el otro en la punta de Lamiaren (92) y con ellos se salvan dos entrantes de la costa.*

*Completan las obras de fábrica cinco sólidos muros cuyos cimientos, asen- tados en las rocas que baña el mar, defienden las vías en determinados puntos del trazado, generalmente en los últimos, que han sido los más di- fíciles.*

### **Veinte millones**

*El coste de las obras (que se iniciaron en 1944), ha sido de unos veinte millones de pesetas. Aunque prácticamente están terminadas, pues el ser- vicio de viajeros comenzará mañana, falta todavía algunos detalles.*

*Locomotoras semejantes a la que ha prestado servicios en la inauguración de hoy, de tracción diesel-eléctrica, serán utilizadas a partir de 1956 en esta línea, con lo que mejorará de forma notable el tráfico y se podrá ir de Bilbao a Bermeo en poco más de una hora y cuarto, con todas las co- modidades que este tipo de vehículos lleva consigo.*

*Tal y como señalaba la crónica periodística, a pesar de la inaugu- ración, todavía era preciso rematar numerosas obras, tanto de vía*



SOCIEDAD BERMEANA IZENEKOAN EMANDAKO BAZKARIAREN  
MENUA, TRENBIDEAREN INAUGURAZIOA ZELA ETA. BERMEOKO  
UDALEKO ARTXIBATEGIA.  
MENÚ DEL BANQUETE SERVIDO EN LA SOCIEDAD BERMEANA  
CON MOTIVO DE LA INAUGURACIÓN DEL FERROCARRIL.  
ARCHIVO DEL AYUNTAMIENTO DE BERMEO.



izan zen, trenbidea ez zegoelako behar bezala finkaturik, eta Bermeoko geltokia oraindik amaitu barik zegoen. Hala ere, eta Zornotza eta Gernika arteko zatiaren inaugurazioan ospatutako brindisetan ez bezala, oraingo honetan ez zitzaion prentsari eskatu behar izan linea berriarekin gehiegi ez sartzeko, zentsura gogorri esker ezinezkoa baitzen kritika txikiena ere egitea. Horrez gain, Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoak, Herri Lan Ministerioko kontratistak burututakoen artean ez zeuden hainbat lan osagarri egin behar izan zituen, besteak beste, Sukarrietako saneamendua amaitzea eta bertako ezponda betetzea, 483.037,05 pezetako lana, edo Sukarrietako geltokia egokitzea, 300.000 pezetakoa. Horrez gain, ez ohiko konponketa lana egin behar izan zen Zornotza eta Sukarrieta arteko trenbidean, aurreikusitako trafikoko igoyerari behar bezala erantzun ahal izateko, eta lan horretarako 127.282,22 pezeta ordaindu behar izan ziren.

como en edificios e instalaciones. Por ejemplo, durante los cuatro primeros años, la velocidad en este tramo estuvo limitada a 25 kilómetros por hora debido al deficiente asiento de la vía, mientras que las dependencias de la estación de Bermeo se encontraban a medio terminar. Sin embargo, y a diferencia de lo expresado en los brindis celebrados en la inauguración de la sección de Amorebieta a Guernica, en esta ocasión no fue preciso suplicar a la prensa que no se mostrara exigente con la nueva línea ya que la férrea censura impedía que aflorase la menor crítica. Además, la Explotación de Ferrocarriles por el Estado se vio obligada a financiar diversas obras complementarias no incluidas en las ejecutadas por el contratista del Ministerio de Obras Públicas, entre las que cabe señalar la terminación del saneamiento y relleno de la marisma de Pedernales, por importe de 483.037,05 pesetas y el acondicionamiento de la estación de Pedernales, con un coste de 300.000 pesetas. Asimismo fue preciso proceder a la reparación extraordinaria de la vía entre Amorebieta y Pedernales, por valor de 127.282,22 pesetas, a fin de poder afrontar en condiciones el previsto incremento de tráfico.

## Zornotza eta Bermeo arteko Trenbidearen lurretatik barna

Pablo de Alzolak idatzitako Zornotza eta Gernika eta Lumo arteko trenbidearen eraikuntza proiektuaren Memorian garrantzia berezia eman zitzaizen linea berriak zerbitzua eskainiko zion biztanleriari eta baliabideei, haiek baitziren etorkizuneko zerbitzuaren errentagarritasuna bermatuko zutenak. Hobeto aztertu ahal izateko interesaturiko herrien zerrenda hau egin zen:<sup>80</sup>

Herria	Biztanleak	Gertuen zegoen geltokia	Distantzia geltokira
Ajangiz	817	Gernika	1 kilometro
Amoroto	753	Gernika	19 kilometro
Munitibar	756	Gernika	12 kilometro
Arteaga	1.310	Gernika	5 kilometro
Arratzu	599	Gernika	3 kilometro
Arrieta	1.109	Muxika	13 kilometro
Bedarona	278	Gernika	16 kilometro
Bermeo	8.222	Gernika	14 kilometro
Busturia	1.506	Gernika	9 kilometro
Ziortza	1.055	Gernika	16 kilometro
Kortezubi	783	Gernika	4 kilometro
Elantxobe	1.587	Gernika	13 kilometro
Ereño	576	Gernika	8 kilometro
Forua	588	Gernika	3 kilometro
Fruiz	409	Muxika	11 kilometro
Gorozika	404	Zugaztieta	2 kilometro
Gernika-Lumo	2.831	Gernika	0
Gerrikaitz	347	Gernika	11 kilometro
Gizaburuaga	326	Gernika	16 kilometro
Ibarrangelu	1.414	Gernika	10 kilometro
Ipazter	931	Gernika	18 kilometro
Lekeitio	3.736	Gernika	22 kilometro
Mendata	1.030	Gernika	8 kilometro
Mendexa	423	Gernika	21 kilometro

<sup>80</sup> Pablo de Alzola, Zornotza eta Gernika-Lumo arteko Trenaren Proiektuaren Txostena, 43 - 46.orr.

## Por las tierras del Ferrocarril de Amorebieta a Bermeo

La Memoria del proyecto para la construcción del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Lumo redactada por Pablo de Alzola en 1884 prestó especial atención a la población y recursos que serían servidos por la nueva línea, ya que ellos deberían asegurar la futura rentabilidad del servicio. Para su mejor estudio se estableció la siguiente relación de localidades interesadas:<sup>81</sup>

Población	Habitantes	Estación más próxima	Distancia a la estación
Ajangiz	817	Guernica	1 kilometro
Amoroto	753	Guernica	19 kilometros
Arbácegui	756	Guernica	12 kilometros
Arteaga	1.310	Guernica	5 kilometros
Arrazua	599	Guernica	3 kilometros
Arrieta	1.109	Múgica	13 kilometros
Bedarona	278	Guernica	16 kilometros
Bermeo	8.222	Guernica	14 kilometros
Busturia	1.506	Guernica	9 kilometros
Cenarruza	1.055	Guernica	16 kilometros
Cortézubi	783	Guernica	4 kilometros
Elanchove	1.587	Guernica	13 kilometros
Ereño	576	Guernica	8 kilometros
Forua	588	Guernica	3 kilometros
Fruniz	409	Múgica	11 kilometros
Gorocica	404	Zugaztieta	2 kilometros
Gernika-Lumo	2.831	Guernica	0
Guerricaiz	347	Guernica	11 kilometros
Guizaburuaga	326	Guernica	16 kilometros
Ibarrangelua	1.414	Guernica	10 kilometros
Ispaster	931	Guernica	18 kilometros
Lekeitio	3.736	Guernica	22 kilometros
Mendata	1.030	Guernica	8 kilometros
Mendeja	423	Guernica	21 kilometros

<sup>81</sup> Pablo de Alzola, Memoria del Proyecto del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Lumo, pp. 43 a 46.

Herria	Biztanleak	Gertuen zegoen geltokia	Distantzia geltokira
Morga	669	Muxika	8 kilometro
Muxika	1.304	Muxika	0
Mundaka	2.463	Gernika	11 kilometro
Murelaga	1.429	Gernika	16 kilometro
Natxitua eta Ea	1.312	Gernika	11 kilometro
Nabarniz	661	Gernika	9 kilometro
Sukarrieta	343	Gernika	11 kilometro
Errigoiti	1.253	Muxika	4 kilometro
Ibarruri	621	Zugaztieta	3 kilometro

Datu horien arabera, trenbide berriak 42.333 pertsonen osatutako biztanleriari eman ahal izango zion zerbitzua, baina, memorian bertan aitortzen zenez, haietako 17.173 gertuen zuten geltokitik hamabi kilometrora baino gehiagora bizi ziren, eta, ondorioz, bertako biztanleek ez zuten asko erabiliko trena. Hala ere, erabiltzaile posibleen artean, Zornotzakoak eta inguruetakoak ere kontuan hartu behar ziren, Etxanokoak, Durangokoak, Garaikoak, Iurretakoak, Lemoakoak, etab. Ondorioz, Memoriaren arabera, guztien artean, gutxienez, 117.426 biztanleko trafikoa sor zezaketen urtean.

Herri horien baliabide garrantzitsuenen artean azpimarratu egin behar zen, inolako zalantzarik gabe, arrantza, oso garrantzitsua Bermeoko, Elantxobeko eta Lekeitioko portuetan. Beste trafiko posible bat burdin mearena zen, Errigoitin horrelako asko egotea itxaroten baitzen.<sup>82</sup> Material hori Muxikako geltokitik garraiatuko zen. Merkantzien garraio itxaropenak abereekin eta basoetako baliabideekin osatzen zen, inguru guztian oso industria gutxi zegoen eta.

Zornotza eta Bermeo arteko trenaren zerbitzu zuzena jasoko zuten herriak zehatzago ezagutzeko oso interesgarria da Explotación de Ferrocarriles por el Estado erakundearen 1943ko Memoriak horren inguruan ematen zuen deskribapena aztertzea. Ondoren adierazten dena da:<sup>82</sup>

### Zornotza

*Trenbidearen hasiera gunea da. Ferrocarriles Vascongados konpainiarekin batera du geltokia. Trenbidez ondoko distantzia hauetara dago:*

Población	Habitantes	Estación más próxima	Distancia a la estación
Morga	669	Múgica	8 kilómetros
Múgica	1.304	Múgica	0
Mundaca	2.463	Guernica	11 kilómetros
Murélaga	1.429	Guernica	16 kilómetros
Nachitua y Ea	1.312	Guernica	11 kilómetros
Navarniz	661	Guernica	9 kilómetros
Pedernales	343	Guernica	11 kilómetros
Rigoitia	1.253	Múgica	4 kilómetros
Ibarruri	621	Zugaztieta	3 kilómetros

Lo que suponía que el nuevo ferrocarril podría atender una población potencial de 42.333 habitantes, aunque la propia memoria reconocía que 17.173 de ellos residían a más de doce kilómetros de la estación más próxima, por lo que la utilización que sus habitantes harían del tren sería más bien reducida. En cambio también se podía contar como potenciales usuarios a los 13.770 habitantes de Amorebieta y los pueblos circundantes como Echano, Durango, Garay, Yurreta, Lemoa, etc. La memoria consideraba que todos ellos podían aportar un tráfico mínimo de 117.426 viajeros al año.

Entre los recursos más importantes de estas poblaciones destacaba sin lugar a dudas la actividad pesquera, de gran importancia en los puertos de Bermeo, Elanchove y Lequeitio. Otro tráfico potencial era el de mineral de hierro, del que se esperaba existieran abundantes recursos en Rigoitia,<sup>82</sup> los cuales se conducirían a la estación de Múgica. Las expectativas de transporte de mercancías se completaban con la ganadería y los recursos forestales, ya que la industria se encontraba poco desarrollada en el valle.

Para un conocimiento más preciso de los pueblos directamente servidos por el ferrocarril de Amorebieta a Bermeo resulta de gran interés estudiar la descripción que al respecto aportaba la Memoria de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado de 1943 y que se expone a continuación:<sup>83</sup>

### Amorebieta

*Punto de arranque de esta línea, tiene estación común con Ferrocarriles Vascongados, situada a distancias, por ferrocarril:*

<sup>82</sup> Hasierako itxaropenak handiak baziren ere, Errigoitiko meategien produkzioa ez zen inoiz garrantzitsua izan.

<sup>83</sup> Explotación de Ferrocarriles por el Estado: 1943ko txostena, 115 - 118. orr.

<sup>82</sup> A pesar de las expectativas iniciales, la producción de las minas de Rigoitia nunca fue relevante.

<sup>83</sup> Explotación de Ferrocarriles por el Estado: Memoria año 1943, pp. 115 a 118.



Bilbotik.....25 Kilometro  
 Durangotik .....10 kilometro  
 Maltzagatik .....31 kilometro  
 Donostiatik.....92 kilometro

*Ibaizabal ibaiaren ibarrean dagoenez kalitate handiko edateko ura du eta komunikabide eta garraiobide onak ditu. Udan jende asko joaten da eta merkantzia trafiko handia du ere..*

De Bilbao.....25 Kilómetros  
 De Durango.....10 kilómetros  
 De Málzaga.....31 kilómetros  
 De San Sebastián .....92 kilómetros

*Por su situación topográfica, a orillas del río Ibaizábal, sus excelentes aguas potables y buenos medios de comunicación es pueblo de concurrencia veraniega y de importantísimo tráfico comercial.*



ZORNOTZAREN AIRETIKO IKUSPEGIA, 1965 INGURUAN. ARGAZKIA, PAISAJES ESPAÑÓLES. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA  
 VISTA AÉREA DE AMOREBIETA HACIA 1965. FOTO, PAISAJES ESPAÑÓLES. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL

*Ondoan dagoen Etxano herriko biztanleak kontuan hartuz 5.346 biztanle du.*

*Mota askotako industria du: Burdin eta altzairu lantegiak, Kobre gal-darak egiteko lantegiak, altzarienak, barautsenak, gazak nahiz bendak egitekoak, marmol zerrategia, eta harri erregogorra ateratzeko harrobiak.*



GERNIKAREN AIRETIKO IKUSPEGIA 1960AN. ARGAZKIA, PAISAJES ESPAÑÓLES. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.  
 VISTA AÉREA DE GUERNICA EN 1960. FOTO, PAISAJES ESPAÑÓLES. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

*Su vecindario es de 5.346 habitantes, con el inmediato pueblo de Etxano.*

*Cuenta esta población con forja de hierro y acero, fábrica de calderas de cobre, de muebles y brocas y de gasas y vendas, aserradero de mármoles y canteras de piedra refractaria.*

Barazki, fruta, ganadu beltza, ehunak, eta zapatagintza zein saskigintza produktuak saltzen dira igandero ospatzen den azokan. Ekainaren bigarren hamabostaldian ospe samar duten erromeriak ospatzen dira.

### **Zugaztieta**

Geltoki honek ondoko herriei eskaintzen die zerbitzua:

Ibarruri, Gorozika eta Mendata, guztira 2.682 biztanle. Gehienbat nekazari eta abeltzainak.

### **Muxika**

Aurrekoaren modukoa eta 1541 biztanle du.

### **Gernika eta Lumo**

Ibilbideko hiri garrantzitsuena da eta 5682 biztanle du.

Armadarako armak, gerra-tresnak, lanabesak, mahai-tresnak, urregintza eta abarketak egiteko fabrika handiak ditu. Zingo ertaineko ontziak egiteko ontziola jartzen ari da.

Astehenero elikagai eta produktu manufakturatuz azoka ospatzen da. Urriko asteheneroko azokak eta San Antonio ondorengo garrantzi handia dute bereziki.

Barazki, abera eta zereal esportatzeko beste ekoizten du.

Gernikako geltokiak ondoko herriei ematen die zerbitzua:

Lekeitio, Zelaia, Amoroto, Gizaburuaga, Ipazter, Elantxobe, Ibarrange-lu eta Ea. Hauek guztiek 10587 biztanle dute guztira. Horrez gain, Kortezubi eta Ereñoko 1472 biztanle gehitu behar dira.

### **Foru, Murueta, San Kristobal eta Axpe**

Geltoki txikiak dira eta bertoko biztanle eta Busturiakoei ematen die zerbitzua. Guztira 3700 biztanle inguru, gehienbat nekazari, abeltzain eta baso ustiapeneko langileak dira.

### **Sukarrieta**

Nahiko herri bitxia da. Nekazaritza eta abeltzaintzan diharduten 530 lagun inguru du.

Los domingos celebra mercado a base de hortalizas y frutas, ganado de cerda, tejidos y artículos de zapatería y cestería. En la segunda quincena de junio tienen lugar romerías de alguna importancia.

### **Zugastieta**

Concurren a su estación los pueblos de:

Ibárruri, Gorocica y Mendata, con vecindario total de 2.682 habitantes, todos dedicados, en general, a la agricultura y ganadería.

### **Múgica**

De igual carácter que el pueblo anterior y de 1.541 habitantes.

### **Guernica y Luno**

Es la población más importante del actual recorrido de la línea y tiene señalada una población de 5.682 habitantes.

Tiene importantes fábricas de armas para el Ejército, material de guerra, herramientas, cubiertos y orfebrería y de alpargatas. Se halla en instalación un astillero para buques de mediano calado.

Todos los lunes del año se celebran importantes mercados de comestibles en general y artículos manufacturados, revistiendo excepcional relieve los lunes del mes de Octubre y el siguiente al día de San Antonio.

Produce hortalizas, ganado y cereales en cantidad bastante para la exportación.

Sirve la estación de Guernica a las poblaciones de:

Lekeitio, Celaya, Amoroto, Guiza-Buruaga, Ispaster, Elanchove, Ibarranguchia y Ea, cuyos vecindarios cuentan en conjunto con 10.587 habitantes, a los que se suman Cortezubi y Ereño con 1.472 habitantes.

### **Forua, Murueta, San Cristóbal y Axpe**

Son pequeñas estaciones a las que concurren sus vecindarios, más el de Busturia, que cuentan en total con 3.700 habitantes, dedicados en general a la agricultura, ganadería y aprovechamientos forestales.

### **Pedernales**

Es un pueblo sumamente pintoresco de 530 habitantes, de pequeña producción agrícola y ganadera.

*Sukarrietan Bilboko Aurrezki Kutxaren haurtzaindegi etxea dago. Instalazio egoki eta ezin hobeak ditu eta 500 neska-mutil kolonia bat doan hartzen du etxe honek.*

*Zubi batek Mundakako itsasadarrean dagoen Txatxarramendi uhartea eta Sukarrieta uztartzen ditu. Irlan, udatiar asko hartzen duen antzinako hotel bat dago*

*Laida hondartza Mundakako itsasadarren eskuma aldeko ibarrean dago, itsas zabalari begira. Handia eta harea mehekoa da eta Bilbotar asko hurbiltzen dira bertara.*

*Azkenik, Sukarrietan hare-harrobi bat dago eta oraindik hasi berria bada ere, urtean 1500 tona harea ateratzen da bertotik.*

*Esta situado en Pedernales un Preventorio Escolar de la Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, con instalaciones muy perfeccionadas, y que suele albergar gratuitamente una colonia de 500 niños de ambos sexos.*

*La isla de Chacharramendi, enclavada en la ría de Mundaca y unida a Pedernales por un puente, posee un hotel antiguo muy concurrido, sobre todo en los meses de verano.*

*Su playa de Laida, situada en la desembocadura y orilla derecha de la ría de Mundaca es de enormes dimensiones, arena sumamente fina y formada en mar abierto, que la hacen punto elegido por grandes masas de bilbaínos.*

*Finalmente, en Pedernales existe -aunque incipiente- la industria de extracción de arena, con una producción de unas 1.500 toneladas anuales.*



ASTILLEROS DE MURUETA ENPRESAK, ESKUALDEKO INDUSTRIA GUNE GARRANTZITSUENETAKOAK, ZORNOTZA ETA BERMEO ARTEKO TRENAREN ZERBITZUA JASOTZEN ZUEN. ARGAZKIA, PAISAJES ESPAÑÓLES. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.

ASTILLEROS DE MURUETA, UNO DE LOS PRINCIPALES CENTROS INDUSTRIALES DE LA COMARCA SERVIDA POR EL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A BERMEO. FOTO PAISAJES ESPAÑÓLES. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

*Luzapeneko proiektuak ondoko herriak ukitzen ditu:*

### **Mundaka**

*1.895 biztanleko herria. Gehienek arrantza inguruko industrian lan egiten dute. Arrantza baporeko ontziola dago, eta irin, arrain, gazitze eta altzari industriak daude ere.*

### **Bermeo**

*11616 bizilagun du eta garrantzi handiko arrantza eta kontserba-industria gunea da. Kantauri itsasoko arrantza porturik garrantzitsuenetarikoa bat da.*

*Arrantza baporeko hainbat ontziola du, eta 43 kontserba zein gazitze fabrika, arrantza sareak egitekoak, lizibak egitekoak, eta izotz zein gaseosak egitekoak ere. Burdin galdategiak, makineria industria eta mekanikoak daude ere.*

*En la proyectada prolongación de este ferrocarril se hayan situados:*

### **Mundaca**

*Población de 1.895 habitantes, dedicados, en parte, a la industria pesquera, tiene un astillero de vapores de pesca y fábricas de harinas, de pescado, salazón y muebles corrientes, y*

### **Bermeo**

*Importante núcleo pesquero y de fabricación de conservas que cuenta con 11.616 habitantes, estando considerado como uno de los principales centros pesqueros del cantábrico.*

*Existen, además, astilleros para vapores de pesca, 43 fábricas de conservas y salazones varias, de redes para pescar, lejías, hielos y gaseosas. También hay fundiciones y talleres de construcción de maquinaria y mecánicos.*



BERMEO ETA BERTAKO PORTUA 1970EAN. ARGAZKIA, PAISAJES ESPAÑOLES. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.

BERMEO Y SU PUERTO EN 1970. FOTO, PAISAJES ESPAÑOLES. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

*Merkatua dago egunero eta hilabeteko lehenengo zapatuetan azoka ospatzen da. Horrez gain, irailaren 8a eta 16a bitartean feria nagusia ospatzen da.*

*Fruta, barazki eta zereal asko ematen du ortuak baina askoz gehiago ematen dute arrantzak eta honen esportaziorako prestatetak.*

*Gatza, ikatza, olio, latorria, egurra, eraikuntzako materialak, irina eta ardoak nahiko kantitate handitan inportatzen dira.*

*Behin behineko datuen arabera lineak 45.000 bizilagunei ekarriko zien onura.*

Lan hau idazten den unean, Zornotza eta Bermeo arteko trenaren zerbitzu zuzena jasotzen duen biztanleria 54.509 biztanlek osatzen dute, ondoren adierazten den moduan banatuta:

Udalerría	Biztanleak
Amorebieta-Etxano (Zornotza)	16.182
Muxika	1.320
Gernika-Lumo	15.242
Forua	987
Busturia	1.662
Sukarrieta	325
Mundaka	1.853
Bermeo	16.938

**Iturria:** Eustat, Biztanleria eta etxebizitza errolda, 2001.

Trenbidea proiektatu zen garaiekin alderatuz izan den eboluzio demografikoa oso desberdina izan da leku batzuen eta besteen artean. Herri batzuek hazkunde garrantzitsua izan dute, Gernikak batez ere, 1884. eta 2001. urteen artean biztanle kopurua boskoiztu egin baita. Bermeok, Foruak eta Zornotzak, berriz, biztanle kopurua bikoiztu egin dute. Horiekin alderatuz, beste herri batzuk ia ez dira hazi, Busturia, adibidez, eta beste batzuek, Sukarrietak, Mundakak eta Muxikak<sup>84</sup> biztanleak galdu egin dituzte. .

Eskualdeak sortutako baliabideei dagokienez, arrantza eta kontserba jarduerak lehen lekuan jarraitzen du Bermeon, bertako portuak oraindik ere jarduera garrantzitsua burutzen du eta. Industria astun

<sup>84</sup> Gaur egun Muxika udalerrriaren barruan daude Ibarruri eta Gorozika. Horiek, 1884an, 2.329 biztanle zituzten, gaur egun udalerriak duen biztanle kopurua ia bikoiztu egiten duen kopurua.

*Se celebran mercados diariamente y ferias los primeros sábados de cada mes y, además, otra principal, que dura del 8 al 16 de septiembre.*

*Como producciones importantes se cuentan las frutas, hortalizas y cereales, pero sobre pasa a todo, en mucho, la pesca y su preparación para la exportación.*

*Importan cantidades de relativa importancia de sal, carbón, aceite, hojalata, madera, materiales de construcción, harina y vinos.*

*Interesa directamente la línea, como se deduce de las cifras parciales a unos 45.000 habitantes.*

En el momento de redactar este trabajo, la población directamente servida por el ferrocarril de Amorebieta a Bermeo asciende a un total de 54.509 habitantes, repartidos del siguiente modo:

Población	Habitantes
Amorebieta-Etxano	16.182
Muxika	1.320
Gernika-Lumo	15.242
Forua	987
Busturia	1.662
Sukarrieta	325
Mundaka	1.853
Bermeo	16.938

**Fuente:** Eustat, Censo de población y viviendas, 2001.

La evolución demográfica con respecto a los tiempos en que fue proyectada la vía férrea ha sido muy desigual. Algunas poblaciones han experimentado un importante crecimiento, siendo el caso más destacado el de Gernika, que ha quintuplicado sus habitantes entre 1884 y 2001, mientras que Bermeo, Forua y Amorebieta han duplicado su volumen en este mismo periodo. En contraste, otras localidades presentan un evidente estancamiento, como es el caso de Busturia, mientras que Sukarrieta, Mundaka y Muxika<sup>84</sup> sufren una clara regresión.

Por lo que respecta a los recursos generados en la comarca, la actividad pesquera y conservera sigue siendo la más destacada en Ber-

<sup>84</sup> En la actualidad, el municipio de Muxika aglutina también a Ibarruri y Gorocica, que en conjunto sumaban en 1884 2.329 habitantes, cifra que casi duplicaba la actual población de este término.

nagusia Muruetako ontzioetan ikusten dugu, eta enpresa txiki eta ertain asko daude, gehienak Gernika inguruan. Nekazaritzako jardueri dagokienez, oso leku garrantzitsua betetzen dute, oraindik ere, basogintzako ustiapenek, eta zerrategi asko eta transformazio enpresa handi bat<sup>85</sup> ere badaude. Horrez gain, Gernikako azokak, urriko azken astelehenean ospatzen dena, batez ere, eskualdearen nekazaritza ekoizpen aberatsaren eta ugariaren adibide bikaina dira.

meo, cuyo puerto ha desarrollado en los últimos años una importante actividad comercial. La principal industria pesada está representada por los astilleros de Murueta, existiendo gran número de pequeñas y medianas empresas, mayoritariamente concentradas en el área de Guernica. En cuanto a las actividades agropecuarias, siguen manteniendo un papel preponderante las explotaciones forestales con la presencia de diversos aserraderos y una importante empresa transformadora,<sup>85</sup> mientras que las ferias de Guernica, sobre todo la celebrada el último lunes de octubre, son un magnífico exponente de la riqueza y variedad de la producción agrícola de la comarca.



## *Ehun eta hamasei urte jendeari zerbitzua eskaintzen*

### **LEHENBIZIKO URTEAK, 1888-1893**

1888ko abuztuaren 14an hasi zen zerbitzua eskaintzen Zornotza eta Gernika arteko tren.<sup>86</sup> Lineak bide bakarreko hamabost kilometro zituen, eta, bere ezaugarrien artean, hasieratik Autzagane (p.k. 4.250)

## *Ciento dieciséis años de servicio público*

### **LOS PRIMEROS AÑOS, 1888-1893**

El 14 de agosto de 1888 comenzó a prestar servicio público el ferrocarril entre Amorebieta y Guernica.<sup>86</sup> La línea, de vía única en sus quince kilómetros de longitud, se caracterizaba por las fuertes rampas que presentaba desde el origen hasta el paso de la divisoria de Autzagane (p.k. 4.250) y el rápido descenso hasta Múgica (p.k.



ZORNOTZA ETA GERNIKA ARTEKO TRENBIDEAREN IRUDIA, USTIAPENENKO LEHENBIZIKO URTEETAN. ZUGAZTIETAKO GELTOKIA. JOSÉ VICENTE COVES NAVARRORREN MARRAZKIA. RECREACIÓN DEL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A GUERNICA EN SUS PRIMEROS AÑOS DE EXPLOTACIÓN. ESTACIÓN DE ZUGASTIETA. DIBUJO DE JOSÉ VICENTE COVES NAVARRO.

<sup>86</sup> Garai batean egon zen linearen inaugurazioa atzeratu beharraren beldurra, material mugikorra berandu jasotzen ari zelako eta harginen greba baten ondorioz Gernikako geltokia eraikitzeko lanak zenbait egunez geldik egon zirelako.

<sup>86</sup> Durante un tiempo existió el temor de tener que retrasar la inauguración de la línea como consecuencia del retraso en la recepción del material móvil y en una huelga de canteros que paralizó durante algunos días las obras del edificio de la estación de Guernica.

LURRUN TRENA OKAKO BIDEZUBITIK IGAROTZEN. TRENAREN  
EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.  
TREN DE VAPOR A SU PASO POR EL VIADUCTO DE OCA.  
ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.



igaro arte zituen aldapa gogorak azpimarratu behar dira. Ondoren, jaitsiera azkarra egiten zen Muxikara (p.k. 11.200), eta puntu horretatik aurrera bide eroso eta laua Gernikaraino. Tren berriak Zornotzan bat egiten zuten Bilbo eta Durango lotzen zituen Ferrocarril Central de Vizcaya izenekoaren trenbidearekin, eta, ondorioz, enpresa horrekin trafikoak trukatzeko hitzarmena sinatu zuen. Muturretan zeuden bi geltokiez gain, lineak geltokiak zituen Zugaztietan eta Muxikan. Ustiapenerako, hiru lokomotorak, bidaiarientzako hamalau kotxek, hiru furguok eta merkantziak garraiatzeko hamalau bagoik osaturiko material mugikor parkea zuen.

Ustiapenaren lehenbiziko bost urteetan emaitzak oso onak izan ziren, eta epealdi horren amaierarako lortu ziren trenbidearen sustaileen aurreikuspenen arabera lor zitezkeen 117.000 bidaiariak. Merkantziei zegokienez, garapena, proiektuan aurreikusten zenez,<sup>87</sup> motela izan zen, baina, hala ere, 1890erako, hasieran aurreikusitako 10.000 tonak lortu ziren. Trafikoaren aurreikuspenetan izandako begi onari esker, oso ustiapen koefiziente positiboa

11.200), para finalizar su andadura desde este punto hasta Guernica por terrenos llanos y de fácil trazado. El nuevo tren empalmaba en Amorebieta con las vías del Ferrocarril Central de Vizcaya, que enlazaban Bilbao con Durango, empresa con la que se estableció el oportuno convenio de intercambio de tráficos. Junto a las situadas en los extremos, la línea contaba con estaciones en Zugaztietan y Múgica, disponiendo para su explotación de un parque de material móvil compuesto por tres locomotoras, catorce coches de viajeros, tres furgones y catorce vagones de mercancías.

Durante los primeros cinco años de explotación, los resultados fueron muy satisfactorios, alcanzando al final de este periodo los 117.000 viajeros que los promotores del ferrocarril habían calculado que podría aportar la nueva línea. Por lo que respecta a las mercancías, su desarrollo, tal y como ya preveía el proyecto,<sup>87</sup> fue lento, aunque ya en 1890 se alcanzaron las 10.000 toneladas inicialmente estimadas. El acierto en las previsiones de tráfico hizo que se registrara un coeficiente de explotación muy positivo, que

<sup>87</sup> Pablo de Alzola, Zornotza eta Gernika-Lumo arteko Trenaren Proiektuaren Txostena, 48 - 52.orr.

<sup>87</sup> Pablo de Alzola, Memoria del proyecto de ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, pp. 48 a 52.



lortu zen, %51 eta %62 artekoa, eta, horri esker, %3ko dibidendoak banatu ahal izan ziren enpresako akziodunen artean, eta, halaber, obren amaierako eta linea Sukarrietaraino luzatzeko lanak finantzatzeko jaulkitako obligazioen zerbitzuari arreta eskaini zitzaion.

osciló entre el 51 y el 62%, lo que a su vez permitió el reparto de dividendos del 3% entre los accionistas de la empresa, al mismo tiempo que se iniciaba la atención del servicio de las obligaciones emitidas para financiar el final de las obras y la prolongación de la línea a Pedernales.

### Zornotza eta Gernika eta Lumo arteko trena, trafikoaren eta emaitzen bilakaera (1889-1893) Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, evolución del tráfico y resultados (1889-1893)

Urtea Año	Bidaiariak Viajeros	Merkantziak (Tm) Mercancías (Tm)	Sarrerak (mila pezetatan) Ingresos (miles de pesetas)	Gastuak (mila pezetatan) Gastos (miles de pesetas)	Koefizientea Coeficiente
1889	94.300	5.500	96.400	59.700	61,9
1890	104.800	10.800	125.200	68.400	54,6
1891	113.200	15.300	135.600	69.900	51,5
1892	113.600	11.000	133.000	74.000	55,6
1893	132.700	11.600	153.000	85.700	56,0

Iturria, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, txostenak, 1888-1893<sup>88</sup>

Fuente, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, Memorias, 1888-1893<sup>88</sup>

Lineako trafikoa sustatzeko asmoz, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izenekoak zenbait hitzarmen sinatu zituen kostaldeko hainbat herriri, Bermeori eta Lekeitiori, besteak beste, zerbitzua eskaintzen zieten karruaje enpresekin, Gernikako geltokian trenekin lotura ezartzeko. Horrez gain, tarifa bereziak negoziatu ziren Ferrocarril Central de Vizcaya eta Compañía del Norte izenekoekin merkantzia trafiko konbinatua ezartzeko.

Con el fin de fomentar el tráfico de la línea, la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno estableció convenios con las empresas de carruajes que servían los diversos pueblos de la costa como Bermeo y Lequeitio, para establecer enlace con los trenes en la estación de Guernica. También se negociaron tarifas especiales para el tráfico combinado de mercancías con el Ferrocarril Central de Vizcaya y la Compañía del Norte.

### COMPAÑÍA DEL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A GUERNICA Y LUNO Y PEDERNALES IZENEKOAREN GORAKO BIDEA ETA ERORKETA, 1894-1932.

Linea Sukarrietaraino luzatzeak hainbat ondorio izan zituen. Horrela, linea ustiatzen zuen enpresak izena aldatu eta Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales hartu zuen. Horrez gain, trazatu leuneko eta zailtasunik gabeko trenbide berria egin zen, bederatzi kilometro luze zena, eta geltokiak eta garelkuak ireki ziren Forun, Muruetan, San Kristobalen, Axpen eta Sukarrietan. Ez zen beharrezkoa ikusi material mugikor gehiago eskuratzea, merkantziak garraiatzeko lau bagoi izan ezik.

### ASCENSIÓN Y CAÍDA DE LA COMPAÑÍA DEL FERROCARRIL DE AMOREBIETA A GUERNICA Y LUNO Y PEDERNALES, 1894-1932.

La prolongación de la línea hasta Pedernales trajo como consecuencia, además del cambio de la denominación social de la empresa explotadora, que pasó a llamarse Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales, la puesta en servicio de nueve kilómetros de nuevas vías de trazado suave y sin dificultades para la explotación, así como la apertura de estaciones y apeaderos en Forua, Murueta, San Cristóbal, Axpe y Pedernales. No se consideró necesario incrementar el material móvil, salvo la adquisición de cuatro vagones de mercancías.

<sup>88</sup> Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izenekoaren txostenak urte ekonomikoaren arabera egiten ziren, ez urte naturalen arabera. Ondorioz, lehen ekitaldia 1888ko abuztuaren eta 1889ko abuztuaren artekoa da. Azterlana errazteko, lehen ekitaldi hori 1889 moduan hartzen da, eta horrela jarraitu.

<sup>88</sup> Las Memorias de la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno se realizaban según años económicos, no años naturales, por lo que el primer ejercicio corresponde al periodo comprendido entre agosto de 1888 y agosto de 1889. Para facilitar su estudio, este primer año se considera como 1889 y así sucesivamente.

## ZUZENDARI BERRIAK: GANDARIAS FAMILIA

Linea Sukarrietaraino luzatu zuten garai berberean, enpresaren ardurua Gandarias familiak hartu zuen bere gain, 1896. urtean Pedro Pascual de Gandarias Administrazio kontseiluko presidente izateko aukeratu baitzuten; hau da, Konpainiaren hasierako akziodun nagusietako bat<sup>89</sup>. Geroago, haren seme Juan Tomas de Gandarias hasi zen presidente lanetan, 1901. urtetik 1932. urtean enpresa itxi zenera arte.

Gernikako trenaren lehenengo sustatzaileen antzera, Gandariastarrek ere familia lotura estuak zituzten inguruan. Pedro Pascual Arratzun jaio zen 1843an. Eskualdeko hainbat landako eremuren jabe zen, eta industria nahiz meatze enpresa ugartan parte hartu zuen. Enpresa horietako asko Victor Chavarriekin zeuden lotuta; esaterako, La Vizcaya edo La Basconia enpresa siderurgikoak. Gandarias azken enpresa horren lehenengo presidente izendatu zuten 1892. urtean. Horrez gain, Gandariasek beste hainbat enpresa ere sortu zituen; besteak beste, Talleres de Deusto enpresa. Gainera, hainbat erakundetako partaide ere izan zen: Merkataritza Bankukoa, Unión Española de Explosivos enpresakoa eta Sukarrietatik Bermeorainoko Tranbia Konpaniakoa. XIX. mende bukaeran, Gernikaldeko garapen turistikoa sustatu nahian, Txatxarramendiko –Sukarrieta ondoan dagoen uharte txiki bat– sozietate anonimoa sortu eta hotel bat eraiki zuen bertan. Jarduera hori izan zen, hain zuzen, trenbidea herri horretaraino luzatzeko arrazoi nagusietakoa. Pedro Pascual de Gandarias Bilbon zendu zen, 1901eko abuztuaren 8an.

Bestalde, Juan Tomas de Gandarias Portugaleten jaio zen 1870eko martxoaren 8an; eta zuzenbidean doktore egin zen Madrilgo unibertsitatean. Segituan hasi zen politikan sartzen, eta gorteetako diputatu izateko akta lortu zuen 1896. urtetik 1914. urtera arte, alderdi kontserbadorearen ordezkari gisa (Piña izenekoa, Victor Chavarri bultzatutakoa). Oso lotura estuak izan zituen alderdi horretako Isidoro Leonekin; azken hori Zornotza–Sukarrieta linearen eta Bermeoko tranbiaren zuzendari nagusia zen, baita hainbat legealditan Bizkaiko Foru Aldundiko presidente ere. Horren ondorioz, trenbidearen eta hauteskundearen arteko lotura ilunari buruzko eztabaida –Allende Salazarren eta Landechoren garaian sortu zen lehenbiziko aldiz– berriz piztu zen garai hartan.

## UNA NUEVA DIRECCIÓN, LOS GANDARIAS

Coincidiendo en el tiempo con la prolongación de la línea a Pedernales, el control de la empresa pasó a manos de la familia Gandarias, al acceder a la presidencia del Consejo de Administración Pedro Pascual de Gandarias, uno de los accionistas iniciales de la Compañía,<sup>89</sup> en 1896. Posteriormente le sucedió en el puesto su hijo, Juan Tomás de Gandarias, desde 1901 hasta el abandono de la explotación en 1932.

Al igual que los primeros promotores del ferrocarril de Guernica, la familia Gandarias mantenía estrechas vinculaciones familiares con la zona. Pedro Pascual era natural de Arrazua, donde había nacido en 1843. Dueño de grandes propiedades rurales en la comarca, participó en numerosas empresas industriales y mineras, muchas de ellas vinculadas al círculo de Víctor Chavarri, como es el caso de las siderúrgicas La Vizcaya o La Basconia, empresa de la que fue nombrado su primer presidente en 1892. También fue fundador, entre otras, de la empresa Talleres de Deusto, participando en entidades como el Banco de Comercio, la Unión Española de Explosivos y la Compañía del tranvía de Pedernales a Bermeo. A finales del siglo XIX también impulsó el desarrollo turístico del guerniquesado, con la creación de la sociedad anónima de Chacharramendi, pequeña isla situada junto a Pedernales en la que construyó un hotel. Fue precisamente esta actividad una de las principales motivaciones para la prolongación del ferrocarril hasta esta población. Pedro Pascual de Gandarias falleció en Bilbao el 8 de agosto de 1901.

Por su parte, Juan Tomás de Gandarias, natural de Portugalete, donde vino al mundo el 8 de marzo de 1870, era doctor en derecho por la universidad de Madrid. Pronto se implicó en la política, logrando el acta de diputado a cortes por Guernica de forma continuada desde 1896 hasta 1914 en representación del partido conservador, la denominada Piña, impulsada por Víctor Chavarri. Su estrecha vinculación con otro de los líderes de esta agrupación, Isidoro León, director general de la línea de Amorebieta a Pedernales y del tranvía de Bermeo, así como presidente de la Diputación de Vizcaya durante varias legislaturas, hizo que las acusaciones de ferrocarril electoral, de tren caciquil, que ya recibió la línea en tiempos de Allende Salazar y de Landecho volvieran a reverdecen.

<sup>89</sup> Pedro Gandarias 20 akzioaren tituluduna zen eta Konpainiaren Administrazio Kontseilukide izan zen 1889. eta 1895. urte bitartean).


<sup>89</sup> Pedro Gandarias era titular de 20 acciones y fue vocal del Consejo de Administración de la Compañía entre 1889 y 1895).

Salaketa horiek bazuten izateko arrazoirik, trena Gandarias familiaren hauteskunde makineriaren funtsezko osagai bihurtu baitzen; izan ere, trenbideetako zenbait langile (tailerretako langileak, tren gidariak eta suginak izan ezik) hauteskunde lanetarako erabili zituzten Gernikako eta inguruko hainbat deialditan, eragile, hautagai, publizista edo ikuskatzaile modura. Foru herriko alderdi kontserbadorearen hauteskunde egoitza tren geltokian bertan jarri zuten, eta «estasiñotar» izena eman zieten alderdikideei<sup>90</sup>.

Aitarengandik oinordetzan hartu zituen negozioekin batera, Juan Tomas de Gandariasek beste zenbait ekimenetan ere parte hartu zuen; horien artean nabarmenenak Los Pirineos esne kondentsatua egiteko lantegia, Gernikako Tailerrak eta Muruetako «Aurrera» adreilu fabrika izan ziren<sup>91</sup>, baita El Nervión arratsaldeko egunkaria, Marqués de Riscal upeltegia, Compañía Ibérica de Telecomunicación delakoa<sup>92</sup> eta Compañía Aérea de Transportes Iberia delakoa ere, azken hori Espainiako egungo abiazio konpainia nagusiaren aurrekoa. Gerra Zibilean, errepublikarrek Juan Tomas atxilotu egin zuten, baina aske utzi zuten handik gutxira trukaketa prozesu baten ondoren. Horrenbestez, Donostiara joan zen, hiri hori nazionalen mende baitzegoen 1936ko irailetik aurrera. Gerra amaitu eta denbora gutxira, Portugaleten hil zen 1940ko uztailearen 17an.



PEDRO PASCUAL GANDARIAS,  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO  
PRESIDENTE 1896TIK AUERRERA.  
GERNIKAZARRA HISTORIA  
TALDEAREN ARTXIBATEGIA.  
PEDRO PASCUAL GANDARIAS,  
PRESIDENTE DEL CONSEJO DE  
ADMINISTRACIÓN DESDE 1896.  
ARCHIVO GERNIKAZARRA  
HISTORIA TALDEA.



JUAN TOMÁS DE GANDARIAS,  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO  
PRESIDENTE 1901TIK AUERRERA.  
GERNIKAZARRA HISTORIA  
TALDEAREN ARTXIBATEGIA.  
JUAN TOMÁS DE GANDARIAS,  
PRESIDENTE DEL CONSEJO DE  
ADMINISTRACIÓN DESDE 1901.  
ARCHIVO GERNIKAZARRA  
HISTORIA TALDEA.

Estas acusaciones no carecían en absoluto de fundamento, ya que el ferrocarril se convirtió en parte esencial de la maquinaria electoral de los Gandarias, al agrupar a distintos trabajadores del mismo (salvo personal de talleres, maquinistas y fogoneros) para utilizarlos como agentes electorales, candidatos, publicistas e interventores en las distintas convocatorias electorales celebradas en Guernica y su zona de influencia. La sede electoral del partido conservador en la villa foral estuvo ubicada en la propia estación del ferrocarril, siendo denominados sus miembros como «estasiñotarrak».<sup>90</sup>

La primera víctima de esta modificación legislativa fue el pequeño ferrocarril de vía ancha que unía Mollet con Caldas (Barcelona), cuyo concesionario abandonó su explotación el 12 de febrero de 1932, sin que el Estado se hiciera cargo de su gestión.<sup>114</sup>

Con tan reciente antecedente, parecía evidente que el ferrocarril de Amorebieta a Pedernales correría la misma suerte que el tren de Caldas. Sin embargo, una vez más los intereses políticos primaron a su favor, lo que hizo que la actuación del Estado fuera diferente a la del pequeño tren catalán. No debe olvidarse que, en aquel momento, el Ministro de Obras Públicas era Indalecio Prieto, quien, aunque asturiano de origen, había desarrollado la mayor parte de su carrera política en Vizcaya, provincia por la que había sido elegido diputado al congreso en las elecciones de 1931. No es difícil suponer que el abandono de la línea de Guernica no habría resultado muy popular entre su potencial electorado, hecho que sin lugar a dudas fue tenido en cuenta a la hora de tomar la decisión de hacerse cargo de su explotación.

El 31 de marzo de 1932, la Gaceta de Madrid publicaba la orden ministerial por la que el Estado se hacía cargo de la explotación de la línea,<sup>115</sup> nombrando al Sobrestante de la primera División de Ferrocarriles, Juan Alonso Gato, como Delegado del Estado. Sería asistido en sus funciones por un Consejo formado por representantes de la Diputación de Vizcaya y de los ayuntamientos intere-

<sup>114</sup> Carles Salmerón, *El Tren de Caldes*, 24 – 28 orr.

<sup>115</sup> Gaceta de Madrid, 1932ko martxoaren 31, 2.266 eta 2.267 orr.

<sup>114</sup> Carles Salmerón, *El Tren de Caldes*, pp. 24 a 28.

<sup>115</sup> Gaceta de Madrid del 31 de marzo de 1932, pp. 2.266 y 2.267.

laguntza ekonomikoa emateko asmoa. Horrez gain, treneko agenteak eta langileak ere laguntzeko prest zeuden.<sup>116</sup>

Trenbideen Lege orokorraren 53. artikuluan ezartzen zen emakidadunaren kontura egin beharreko sei hilabeteko behin behineko epealdia hasi ondoren, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoak ahalegina egin zuen Ferrocarriles Vascongados enpresarekin, bere linea errentamenduan emateko, baina enpresa hark ez zuen proposamena onartu,<sup>117</sup> bere egoera ekonomikoa ez zelako oso ona eta bere mende zegoen Compañía de Automóviles Vascongados izenekoaren jardueraren aldeko apustua egin zuelako. Hala ere, aurrerago gertatuko zena ikusita, laster aldatu zuen iritzia.

Emakidadunaren kontura egin beharreko sei hilabeteko behin behineko epealdia amaitu ondoren, 1932ko irailaren 30ean, eta emakidadunak ez zuenez linearen kudeaketari berriro ekiteko interesik azaldu, Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoak bere gain hartu zuen zerbitzua behin betiko, eta, ondorioz, emakidari amaiera emateko espediente bultzatu zen.<sup>118</sup> Kudeatzaile berriaren lehenbiziko ekintzetako bat autobusen konpetentziari mugak jartzea izan zen. Horrela, urte horretako azaroaren 11n, Dirección General de Ferrocarriles, Tranvías y Transportes por carretera izenekoak amaitutzat jo zuen Gernikatik igarotzen ziren Bilbo eta Bermeo arteko autobusen emakida. Linea horren titularra Compañía de Automóviles Vascongados izenekoak zen, eta erabakia justifikatzeko, beharrezkoa zen administrazioaren baimenik gabe konpainia horrek bere tarifak aldatu izana argudiatu zen. Hori dela eta, azaroaren 27tik aurrera zerbitzua bertan behera utzi beharra agindu zen.

Compañía de los Ferrocarriles Vascongados izenekoaren erreakzioa berehala etorri zen, eta, bere mende zegoen enpresaren aldeko gestioak hastearekin batera, enpresaren Administrazio Kontseiluak Herri Lan Ministerioaren aldetik Zornotza eta Sukarrieta arteko trenaren ustiapena lortzeko negoziazioak hasi zituen.<sup>119</sup>

<sup>116</sup> Foru Aldundiko Kudeaketa Batzordearen ordezkari Laiseca eta Madariaga jaunak izendatu zizuten. Udalerriren aldetik Gernikako eta Busturiko alkateak sartu ziren, eta langileen aldetik, Calzada jauna, 6. guneko Trenbideko Sindikatuaren Idazkaria eta Hidalgo jauna, langile margolaria.

<sup>117</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren Akta, 1932ko irailaren 16ko saioa.

<sup>118</sup> Amaierako espedientearen garapena, antzeko beste kasu batzuetan bezala, luzea eta konplexua izan zen, eta ez zen konpondu 1966ko urriaren 18an iraugitze ebazpena argitaratu zen arte. Espediente 1967ko Estatuko Aldizkari Ofizialeak (128. or) argitaratu zuen, espediente hasi eta hogeita hamalau urte geroago! Hala ere, adierazpenak esaten zuen, hitzez hitz «de acuerdo con la Ley, el concesionario, si así lo estima conveniente, puede reclamar contra tal caducidad, en la vía contencioso administrativa, dentro del término de dos meses».

<sup>119</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren akta, 1932ko azaroaren 24ko saioa.

sados, instituciones que habían manifestado su intención de apoyar económicamente la gestión del tren, así como de los agentes y obreros del ferrocarril.<sup>116</sup>

Iniciado el periodo provisional de seis meses a cuenta del concesionario que el artículo 53 de la Ley general de Ferrocarriles estipulaba, la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales intentó gestionar con los Ferrocarriles Vascongados la posibilidad de arrendar su línea, pero esta empresa, no aceptó la propuesta<sup>117</sup> debido a la delicada situación económica que atravesaba así como por su decidida apuesta por los negocios de su filial, la Compañía de Automóviles Vascongados. Sin embargo, el desarrollo de los acontecimientos pronto le haría cambiar de opinión.

Concluido el plazo de explotación provisional de seis meses a cuenta del concesionario el 30 de septiembre de 1932, y dado que éste no se interesó por reemprender la gestión de la línea, la Explotación de Ferrocarriles por el Estado se hizo cargo del servicio de forma definitiva, promoviendo el consiguiente expediente de caducidad de la concesión.<sup>118</sup> Una de las primeras actuaciones del nuevo gestor fue la de intentar poner coto a la competencia de los autobuses, logrando que el 11 de noviembre del mismo año la Dirección General de Ferrocarriles, Tranvías y Transportes por carretera declarase la caducidad de la concesión de autobuses Bilbao-Bermeo por Guernica, de la que era titular la Compañía de Automóviles Vascongados, justificando su proceder en el hecho de que esta empresa había modificado sus tarifas sin la previa autorización administrativa. Por ello se ordenaba el cese inmediato del servicio a partir del 27 de noviembre.

La reacción de la Compañía de los Ferrocarriles Vascongados no se hizo esperar, pero al mismo tiempo que iniciaba las gestiones pertinentes en defensa de los intereses de su filial, el Consejo de Administración de la empresa decidió emprender las negociaciones oportunas para lograr del Ministerio de Obras Públicas la cesión de la explotación del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales.<sup>119</sup>

<sup>116</sup> En representación de la Comisión Gestora de la Diputación fueron nombrados los Srs. Laiseca y Madariaga. Por parte de los municipios se integraron los alcaldes de Guernica y Busturia, y por parte de los trabajadores el Sr. Calzada, Secretario del Sindicato Ferroviario en la 6ª Zona, y el Sr. Hidalgo, obrero pintor.

<sup>117</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 16 de septiembre de 1932.

<sup>118</sup> El desarrollo del expediente de caducidad, al igual que en otros casos similares, fue largo y complejo, no quedando resuelto hasta la publicación de la declaración de caducidad en la resolución del 18 de octubre de 1966, publicada por el Boletín Oficial del Estado del 4 de enero de 1967 (p. 128), treinta y cuatro años después de haberse iniciado el expediente!. A pesar de ello, la declaración señalaba que «de acuerdo con la Ley, el concesionario, si así lo estima conveniente, puede reclamar contra tal caducidad, en la vía contencioso administrativa, dentro del término de dos meses».

<sup>119</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 24 de noviembre de 1932.

Berehala, Vascongadosek Sukarrietako linearen egoera aztertzeari ekin zion, etorkizunerako izan zitzakeen ondorioak, eta ikusi zuen instalazioak eta material mugikorra egokitu ondoren, haren kudeaketak, urtean, 72.531 pezetako galerak eragingo zituela, langileen plantilla nabarmen murrizten ez baldin bazen. Bermeora, Elantxobera eta Lekeitiora zihoazen autobus zerbitzuek, trenarekin koordinaturik eta inolako konpetentziarik gabe, urtean 102.625 pezetako irabaziak eragingo zituzten, kargarik gabe, eta, Bilbo-Bermeo errepideko emakida behin betiko galduz gero, enpresak 874.543 pezetako galerak izango zituen. Hori guztia ikusita, enpresak komenigarri iritzi zion Zornotza eta Sukarrieta arteko trenbidearen ustiapena bere gain hartzeari, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baziren:<sup>120</sup>

- Estatuak Compañía de los Ferrocarriles Vascongados enpresari Zornotza eta Sukarrieta arteko linea karga orotik libre eman beharko lioke, kapitalaren, obligazioen edo edozelako zorren ondoriozko kargarik gabe, alegia.
- Compañía de los Ferrocarriles Vascongados enpresak lineako tarifa bereziak aldatzeko eskubidea izango luke.<sup>121</sup>
- Compañía de los Ferrocarriles Vascongados izenekoak eskubidea izango luke Zornotza eta Sukarrieta arteko trenaren zerbitzuetan aldaketak sartzeko, geltokiak kenduz edo haiek geraleku-bazterleku bilakatuz, eta, aldi berean, bidaiarien eta merkantzien tren kopurua murriztu ahal izango luke.
- Compañía de los Ferrocarriles Vascongados izenekoak eskubidea izango luke bere iritiz soberan dauden langileak kanporatzeko, haiek berriro hartzeko konpromisoa hartuz, langile berriak behar ziren heinean, bai enpresaren sarean, bai eta Sukarrietako linean edo bere mende zeuden enpresatan, Compañía de Automóviles Vascongados eta Tranvía Eléctrico de Bilbao a Durango y Arratia izenekoetan.
- Instalazioen egoera orokorra nahiko txarra zenez, Compañía de los Ferrocarriles Vascongadosek ohiko mantentze lanak baino ez lituzke ordaindu beharko, eta ez ohiko berrikuntza lanak. Haiek Estatuaren kontura izango liriateke.<sup>122</sup>
- Vascongadosek ustiapena bere gain hartzen zuen unetik, Compañía de Automóviles Vascongados izenekoak inguruko errepideko bidaiarien garraio emakidak berreskuratuko lituzke, eta, ha-

De inmediato, Vascongados procedió al estudio de la situación en que se encontraba la línea de Pedernales y sus posibles perspectivas de futuro, llegando a la conclusión de que su gestión, una vez puestas en condiciones las instalaciones y el material móvil, produciría un déficit anual de 72.531 pesetas, salvo que se procediera a una importante reducción del personal. Por su parte, los servicios de autobuses a Bermeo, Elanchove y Lequeitio, coordinados con el tren, y exentos de cualquier otra competencia, podrían generar un beneficio anual de 102.625 pesetas libres de cargas, mientras que en caso contrario, la anulación definitiva de la concesión de carretera Bilbao-Bermeo provocaría unas pérdidas de 874.543 pesetas. Por todo ello, la empresa consideró conveniente aceptar la explotación del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales siempre y cuando se cumplieran las siguientes condiciones:<sup>120</sup>

- El Estado entregaría a la Compañía de los Ferrocarriles Vascongados la línea de Amorebieta a Pedernales libre de toda carga, bien por capital, bien por obligaciones, bien por deudas de cualquier orden.
- La Compañía de los Ferrocarriles Vascongados podría modificar las tarifas especiales de la línea.<sup>121</sup>
- La Compañía de los Ferrocarriles Vascongados quedaría autorizada para modificar los servicios del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales, suprimiendo estaciones o convirtiéndolas en apeaderos-apartaderos, al mismo tiempo que podría reducir los trenes de viajeros y mercancías.
- La Compañía de los Ferrocarriles Vascongados podría despedir al personal que considerase sobrante, con el compromiso de su readmisión a medida que fuera necesario contratar nuevos trabajadores, tanto en la red de la empresa como en la línea de Pedernales o en las empresas filiales, Compañía de Automóviles Vascongados y Tranvía Eléctrico de Bilbao a Durango y Arratia.
- Dado el mal estado general de las instalaciones, principalmente de la vía, la Compañía de los Ferrocarriles Vascongados solamente debería sufragar los gastos ordinarios de mantenimiento, siendo de cuenta del Estado los trabajos extraordinarios de renovación.<sup>122</sup>
- Desde el momento en que Vascongados se hiciera cargo de la explotación, la Compañía de Automóviles Vascongados recuperaría sus concesiones de transporte de viajeros por carretera en la zona,

<sup>120</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren akta, 1933ko urtarrilaren 9ko saioa.

<sup>121</sup> Haietako batzuk Gandariastarrak trenbideak zerbitzua eskaintzen zuen inguruetan ezarritako industrien onurarako ezarritakoak, ez ziren batere egokiak izan.

<sup>122</sup> Trenbidearen egoera oso txarra zen, eta, ondorioz, Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoak berak haiek berrizatzeari ekin zion.

<sup>120</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 9 de enero de 1933.

<sup>121</sup> Algunas de ellas, establecidas en beneficio de las industrias promovidas por los Gandarias en la zona servida por el ferrocarril, resultaban totalmente improductivas.

<sup>122</sup> El estado de la vía era tan deficiente que la propia Explotación de Ferrocarriles por el Estado había iniciado su renovación.



laber, beste edozein enpresaren edozein kompetentzia desagertu egin beharko litzateke.

Ferrocarriles Vascongadosek aurkeztutako proposamenaren aurrean, Herri Lan Ministerioak ikusi zuen konponbiderik errazena enpresa horrek eta Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoak euren artean transferentziarako hitzarmena sinatzea izango zela, eta horretarako iraungitze espedientearen eten egin zuen. Helburu horrekin, berehala hasi ziren bi sozietateen arteko elkarrizketak, eta 1933ko otsailaren 10ean, termino hauek zituen akordioa lortu zuten:<sup>123</sup>

- Ferrocarriles Vascongadosek hartuko zuen bere gain linearen ustiapena, erabat kargarik gabe.
- Ferrocarriles Vascongadosek hartuko zuen bere gain linearen ustiapena geratzen zen emakida denbora gutzirako.
- Ferrocarriles Vascongadosek Sukarrietako lineako langile guztiak soberan zeudela erabakiko zuen, baina etorkizunean bere beste edozein emakida eta filialetan berriro hartzeko konpromisoarekin.
- Estatuak hartuko luke bere gain trenbidearen, instalazioen eta material mugikorraren ez ohiko berriztapena, eta Vascongados ohiko mantentze lanez arduratuko litzateke.
- Sukarrietako linearen ustiapenak galerak eragingo balitu, Ferrocarriles Vascongadosen kontura izango lirateke. Lineak irabaziak eragingo balitu, irabazi horiek ondoren adierazten den moduan banatuko lirateke:
  - A.- Vascongadosek aurreko urteetako galerak berreskuratu ez dituen bitartean, irabazien %50 jasoko luke, eta gainerako %50 Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoaren esku geratuko litzateke.
  - B.- Vascongadosek aurreko urteetako galerak berreskuratu ondoren, irabazi guztien %25 jasoko luke, eta gainerako %75 Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoaren esku geratuko litzateke.
- Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoak ados zegoen Vascongadosek tarifak eta zerbitzuak berak erabaki bezala aldatzeko aukerarekin.

Bi enpresen arteko akordioa Herri Lan Ministerioari igorri ziztzaion berehala, baina zegokion espedientearen tramitazioa asko luzatu zen, administrazioak jarri zituen oztopoen eta garai hartako egoera politiko gatazkatsuen ondorioz. Bitartean, 1933ko aben-

al tiempo que cesaría toda competencia por parte de otras empresas.

Ante la propuesta de los Ferrocarriles Vascongados, el Ministerio de Obras Públicas consideró que la solución más sencilla sería que esta empresa y la Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales llegaran a un convenio de transferencia de la concesión, paralizando para ello el expediente de caducidad. Con esta finalidad se reanudaron de inmediato las conversaciones entre ambas sociedades, alcanzando, el 10 de febrero de 1933, un acuerdo en los siguientes términos:<sup>123</sup>

- Ferrocarriles Vascongados asumiría la explotación de la línea totalmente libre de cargas.
- La Compañía de los Ferrocarriles Vascongados se haría cargo de la línea por todo el tiempo restante de concesión.
- La Compañía de los Ferrocarriles Vascongados declararía excedente a todo el personal de la línea de Pedernales, con el compromiso de su futura readmisión en cualquiera de sus concesiones y filiales.
- El Estado asumiría la renovación extraordinaria de vías, instalaciones y material móvil, mientras que Vascongados se haría cargo del mantenimiento ordinario.
- Si la explotación de la línea de Pedernales generase algún déficit, éste quedaría a cargo de los Ferrocarriles Vascongados. En caso de que el saldo fuera positivo, el reparto del superávit se realizaría del siguiente modo:
  - A.- En tanto Vascongados no se hubiera resarcido de los déficit de ejercicios anteriores, recibiría el 50% del superávit, destinándose el 50% restante a la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales.
  - B.- Una vez que Vascongados hubiese saldado la totalidad de los déficit, obtendría el 25% del superávit, mientras que el restante 75% se destinaría a la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales.
- La Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales, mostraba su acuerdo en que Vascongados pudiera modificar libremente las tarifas y servicios.

El acuerdo entre ambas empresas se remitió de inmediato al Ministerio de Obras Públicas, pero la tramitación del oportuno expediente se dilató en el tiempo debido a las trabas administrativas y la convulsa situación política del momento. Entre tanto, el 11 de

<sup>123</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren akta, 1933ko otsailaren 13ko saioa.

<sup>123</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 13 de febrero de 1933.

duaren 11n altxatu egin zen Bilbo eta Bermeo artean, Gernikatik barrena, zegoen errepideko emakidaren etetea, eta Compañía de los Automóviles Vascongados izenekoak hartu zuen berriro bere gain abenduaren 16an.<sup>124</sup> Era berean, eten egin zen Razquin jaunak, Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoarekin ados jarrita, burutzen ari zen ibilbide bera.<sup>125</sup>

1934. urtearen hasieran oraindik ez zegoen Ferrocarriles Vascongados eta Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoaren arteko hitzarmen proiektuaren onepenari buruzko albisterik, eta, ondorioz, Marcelino Oreja Elósegui,<sup>126</sup> Gernikatik diputatu tradizionalista zenak eta linearen kudeatzaileen ondorengo politiko zuzenak, bere burua eskaini zien Vascongados enpresari, horren inguruan parlamentuan galdera egiteko. Oreja jaunak adierazi zuen Vascongados enpresako Administrazio Kontseiluaren aurrean, Herri Lan Ministroarekin hitz egin ondoren, hark esan ziola Gorteen tramitea igaro ondoren gaia berehala konponduko zela.<sup>127</sup>

Gernikako diputatua oso itxaropentsu agertu bazen ere, parlamentuan izan zuen parte hartzeak polemika latza piztu zuen<sup>128</sup> garai hartan Herri Lan Ministro zen Rafael Guerra del Río jaunaren, karguan aurretik egondako Indalecio Prieto jaunaren eta Gómez San José diputatu sozialistaren artean. Eztabaida horren barruan Oreja jaunak esan zuen Sukarrietako tren txikiaren estatuaren kudeaketa benetako kolektibizazio esperientzia marxista zela, eta haren aurkakoeak, berriz, aurreko emakidaren eta Compañía de los Ferrocarriles Vascongados izenekoaren trikimailu ilunak salatu zituzten. Trikimailu horiek eraman omen zuten linea porrotera, eta, ondorioz, uste zuten hitzarmena onartzea benetako eskandalua izango zela, eta gehiago oraindik langile guztiak kanporatzeko aukera onartzen baldin bazen.

Parlamentuko eztabaidaren ondorioz, emakida Ferrocarriles Vascongadosi lagatzeko espedientearen izapidetzea erabat gelditu egin zen. Handik denbora gutxira, 1934ko urriko iraultza-altxamenduaren ondorioz, lineako treneko langileek greba hasi zuten, eta

diciembre de 1933, se levantó la suspensión de la concesión de carretera entre Bilbao y Bermeo por Guernica, la cual fue retomada por la Compañía de los Automóviles Vascongados el 16 de diciembre,<sup>124</sup> al tiempo que cesaba la que en el mismo itinerario venía realizando el Señor Razquin de acuerdo con la Explotación de Ferrocarriles por el Estado desde finales de 1932.<sup>125</sup>

A principios de 1934 seguía sin haber noticias sobre la aprobación del proyecto de convenio entre Ferrocarriles Vascongados y la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales, por lo que el diputado tradicionalista por Guernica, Marcelino Oreja Elósegui,<sup>126</sup> directo heredero político de los gestores de esta línea, se ofreció ante Vascongados para realizar una interpelación parlamentaria al respecto. El Señor Oreja llegó a manifestar al Consejo de Administración de los Vascongados que, tras haber mantenido una reunión informal con el Ministro de Obras Públicas, consideraba que tras el trámite en las Cortes, el asunto quedaría resuelto de inmediato.<sup>127</sup>

A pesar de las optimistas expectativas del diputado guerniqués, su interpelación parlamentaria levantó una agria polémica<sup>128</sup> entre el Ministro de Obras Públicas del momento, Rafael Guerra del Río, su antecesor en el cargo, Indalecio Prieto, y el diputado socialista Gómez San José. En el curso del intenso debate político, el Señor Oreja llegó a afirmar que la gestión estatal del pequeño tren de Pedernales era una auténtica experiencia marxista de colectivización, mientras que sus opositores denunciaban los oscuros manejos del anterior concesionario y de la Compañía de los Ferrocarriles Vascongados, los cuales habían llevado a la línea a la ruina, por lo que consideraban que la aprobación del convenio sería un verdadero escándalo, máxime si se aceptaba la posibilidad de despedir a toda la plantilla.

Como consecuencia del debate parlamentario, la tramitación del expediente de cesión de la concesión a los Ferrocarriles Vascongados quedó bruscamente paralizada. Poco después, con motivo del estallido revolucionario de octubre de 1934, el personal ferroviario

<sup>124</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren akta, 1933ko abenduaren 18ko saioa.

<sup>125</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren akta, 1934ko martxoaren 20ko saioa. Maiatzaren 25ean amaitu egin zen Toribio Elósegui jaunak ustiatzen zuen Bilbo eta Bermeo arteko autobus zerbitzua, Sollubetik igarotzen zena.

<sup>126</sup> Marcelino Oreja Elósegui jauna trantsizioko politikari ezaguna izan zen Marcelino Oreja Aguirrereren aita eta Jaime Mayor Orejaren, Alderdi Popularreko kide azpimarragarriaren osaba-aitona zen.

<sup>127</sup> Ferrocarriles Vascongados, Administrazio Kontseiluaren akta, 1934ko maiatzaren 3ko saioa.

<sup>128</sup> Ikus 1934ko maiatzaren 16ko Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados izenekoak, 16-19 orriak eta 24-25 orriak, ekainaren 21eko 50-55 orriak eta ekainaren 22ko 21-30 orriak.

<sup>124</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 18 de diciembre de 1933.

<sup>125</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 20 de marzo de 1934. El 25 de mayo cesó el servicio de autobuses entre Bilbao y Bermeo por Sollube.

<sup>126</sup> D. Marcelino Oreja Elósegui era padre de un conocido político de la transición, D. Marcelino Oreja Aguirre, así como tío-abuelo del destacado miembro del Partido Popular, Jaime Mayor Oreja.

<sup>127</sup> Ferrocarriles Vascongados, Acta del Consejo de Administración, sesión del 3 de mayo de 1934.

<sup>128</sup> Ver Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados del 16 de mayo de 1934, pp. 16 a 19 y 24 a 25, del 21 de junio, pp. 50 a 55 y del 22 de junio, pp. 21 a 30.

zerbitzua eten egin zen egoera politikoa lasaitu arte. Altxamendua zapaldu ondoren, kanporatu egin zituzten altxamenduan parte hartze zuzenena izan zuten langileak, haien artean Juan Alonso Gato, Estatuak ustiapenean izan zuten Ordezkariera bera. Azaroaren 19an kargutik kendu eta bere lekua Manuel Serranok hartu zuen. Gertakari horien ondorioz Arrasaten hil egin zuten bi enpresen arteko hitzarmenaren bultzatzaile nagusia, Marcelino Oreja Elosegui diputatu tradizionalista.

Gertakari horiek gertatzen ziren bitartean, Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoak zenbait hobekuntza burutu zituen linean, eta material mugikorraren parkea indartu egin zuen, beste linea batzuetatik, Vasco-Navarrorek batez ere, ekarritako ibilgailuekin eta egoera kaskarrean zeuden trenbide zatiak berriztatuz.<sup>129</sup> Halaber, kudeatzaile berriak hartutako lehenbiziko neurrietako bat langileen soldatak igotzea izan zen, izan ere, Ferrocarriles y Tranvías aldizkarian adierazten zenez, haien lana «oso motel ordainduta zegoen».<sup>130</sup> Gainerako gastuei eusteko ahalegina egin bazen ere, linearen galerek bere horretan jarraitu zuten Gerra Zibilaren aurreko urteetan.

Anaien arteko borroka hasi eta gero, trenbidearen zuzendaritza Langileen Batzorde baten esku geratu zen, eta bertako ordezkari nagusiak UGT sindikatuko Juan Maguregui eta José Hidalgo izan ziren. Haien jarduera 1937ko otsailaren 28ra arte luzatu zen, eta egun horretan trenbidearen kudeaketa Euzkadiko Behin Behineko Jaurlaritzaren Herri Lan Sailak hartu zuen bere gain.<sup>131</sup> Horren ondorioz, Euskadi barruan Errepublikarekin leial jarraitzen zuen gunean zeuden tren eta tranbia guztien arduraren nagusia zuen Consejo Central de Explotación de los Ferrocarriles de Euzkadi izenekoaren barruan sartu zen.

Consejo Central de Explotación de los Ferrocarriles de Euzkadi izenekoak burutu zuen Zornotza eta Sukarrieta arteko trenbidearen kudeaketa lana oso laburra izan zen, Gernika Francoren aldeko indarren esku erori baitzen 1937ko apirilaren 29an,<sup>132</sup> hegazkin faxistek burututako bonbardaketa izugarria gertatu eta hiru egun geroago. Esan behar da bonbardaketaren helburu nagusien artean

rio de la línea se declaró en huelga, quedando suspendido el servicio hasta la normalización de la situación política. Una vez aplastada la revuelta, se procedió al despido los empleados que más se habían significado en estos acontecimientos, entre ellos el propio Delegado del Estado en la explotación, Juan Alonso Gato, quien fue relevado en el cargo, el 19 de noviembre, por Manuel Serrano. A raíz de estos sucesos también fue asesinado en Mondragón el principal valedor del convenio entre las dos empresas, el diputado tradicionalista Marcelino Oreja Elósegui.

Entre tanto transcurrían estos acontecimientos, la Explotación de Ferrocarriles por el Estado realizó algunas mejoras en la línea, reforzando el parque de material móvil con vehículos procedentes de otras líneas, principalmente el Vasco-Navarro, y con la renovación de los tramos de vía más deteriorados.<sup>129</sup> Asimismo, una de las primeras medidas tomadas por el nuevo gestor fue la de elevar los sueldos del personal, que según señalaba la revista Ferrocarriles y Tranvías, «estaba retribuido muy modestamente».<sup>130</sup> Aunque se intentó contener el resto de los gastos, el déficit de la línea se mantuvo durante los años previos a la guerra civil.

Iniciado el conflicto fratricida, la dirección del ferrocarril quedó bajo el control de un Comité Obrero cuyos máximos representantes eran los militantes del sindicato UGT, Juan Maguregui y José Hidalgo. Su actuación se prolongó hasta el 28 de febrero de 1937, fecha en que la gestión fue asumida por el Departamento de Obras Públicas del Gobierno Provisional de Euzkadi,<sup>131</sup> lo que supuso su integración en el Consejo Central de Explotación de los Ferrocarriles de Euzkadi, organismo responsable de todos los ferrocarriles y tranvías existentes en la zona leal a la República en el País Vasco.

La gestión del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales por parte del Consejo Central de Explotación de los Ferrocarriles de Euzkadi fue breve, ya que Guernica cayó en poder de las tropas franquistas el 29 de abril de 1937,<sup>132</sup> tras haber sufrido tres días antes un devastador bombardeo por parte de la aviación fascista, entre cuyos objetivos principales se encontraba precisamente la estación de

<sup>129</sup> Zehatzago esanez, erraila berriztatu egin zen Autzaganerako igoeran, 1,5 eta 5 K.P.en artean.

<sup>130</sup> Ferrocarriles y Tranvías, 3. liburukia, 210. or.

<sup>131</sup> Euzkadiko Behin Behineko Jaurlaritza Gerra Zibilean bertan eratu zen, 1936ko urriaren 6an Errepublikako Gobernuak Autonomia Estatutua onetsi ondoren. Garai hartan Bizkaiko probintzia baino ez zegoen gune leialaren barruan, Arabaren eta Gipuzkoaren zati nagusiak altxatutako en esku baitzeuden. Gaceta de Madrid, 1936ko urriaren 7a, 211 – 214 orr.

<sup>132</sup> Linea osoa ez zen altxatutako en esku geratu maiatzaren 18an Zornotza erori zen arte.

<sup>129</sup> En concreto, se renovó el carril en la subida a Autzagane, entre los pk. 1,5 y 5.

<sup>130</sup> Ferrocarriles y Tranvías, volumen 3, p. 210.

<sup>131</sup> El Gobierno Provisional de Euzkadi se había constituido en plena guerra civil, al ser aprobado el Estatuto de Autonomía por el Gobierno de la República el 6 de octubre de 1936. En aquel momento, solamente se mantenía en territorio leal la provincia de Vizcaya, ya que la mayor parte de Álava y Guipúzcoa se encontraban en manos de los sublevados. Gaceta de Madrid, del 7 de octubre de 1936, pp. 211 a 214.

<sup>132</sup> La totalidad de la línea no quedó en poder de los sublevados hasta la caída de Amorebieta el 18 de mayo.

Gernikako tren geltokia zegoela. Herriaren gainerako leku guztietan gertatu zen bezala, tren instalazioek kalte izugarriak izan zituzten, bidaiarien eta bulegoen eraikina ia erabat deuseztatu zen, horma nagusiak baino ez baitziren zutik geratu. Gauza bera gertatu zen merkantzien biltegiarekin eta material mugikorra konpontzeko tailerrekin. Beste alde batetik, atzerako bidean, armada errepublikarrak, 1937ko maiatzaren 17an, Zornotzako geltokitik gertu zegoen Ibaizabal ibaiaren gaineko zubiaren brankak lehertu zituen.

Francoren gobernuaren eskuetan, zerbitzua 1937ko ekainaren 19an jarri zen berriro martxan, baina oso baliabide urriekin. Izan ere, gerrak eragindako suntsiketei material mugikorraren eta ins-

tren de esta localidad. Al igual que en el resto de la población, los daños sufridos por las instalaciones ferroviarias fueron terribles, con la casi completa destrucción del edificio de viajeros y oficinas, del que solo quedaron en pie las paredes maestras, al igual que sucedió con el almacén de mercancías y los talleres de reparación del material móvil. Por otra parte, en su retirada, el ejército republicano voló los estribos del puente sobre el Ibaizábal, situado en las proximidades de la estación de Amorebieta, el 17 de mayo de 1937.

Una vez en manos del gobierno franquista, se reanudó el servicio, el 19 de junio de 1937, con gran precariedad de medios, ya que a las destrucciones provocadas por la guerra había que sumar el mal estado del material móvil y las instalaciones debido a años de falta



GERNIKAKO BONBARDAKETAREN HELBURUETAKO BAT TREN GELTOKIA IZAN ZEN. BERTATIK ZUTIK GERATU ZIREN BAKARRAK KARGA-HORMAK IZAN ZIREN. GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN ARTXIBATEGIA.

UNO DE LOS OBJETIVOS DEL BOMBARDEO DE GUERNICA FUE LA ESTACIÓN DE FERROCARRIL, DE LA QUE ÚNICAMENTE QUEDARON EN PIE LOS MUROS DE CARGA. ARCHIVO GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA.



LÍNEA LANEAN LASTER HAS ZEDIN LURRUN LOKOMOTORA BAT ALOKATU ZITZAION SADABA ETA GALLUR ARTEKO TRENARI. ZORNOTZAKO KALEETATIK ERAMATEA BENETAN IKUSGARRIA IZAN ZEN. GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN ARTXIBATEGIA.

PARA LA RÁPIDA PUESTA EN SERVICIO DE LA LÍNEA, SE ALQUILÓ UNA LOCOMOTORA DE VAPOR AL FERROCARRIL DE SÁDABA A GALLUR. SU TRASLANDO POR LAS CALLES DE AMOREBIETA FUE ESPECTACULAR. ARCHIVO GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA.



GERNIKAKO GELTOKIA OSO AZKAR BERRERAIKI ZEN, EZ HERRIAREN GAINERAKOA BEZALA, 1941EAN ORAINDIK ERE AURRI EGOERAN BAITZEGOEN. GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN ARTXIBATEGIA.

LA RAPIDEZ CON LA QUE SE RECONSTRUYÓ LA ESTACIÓN DE GUERNICA CONTRASTA NOTABLEMENTE CON EL RESTO DE LA POBLACIÓN, TODAVÍA EN RUINAS EN 1941. ARCHIVO GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA.

talazioen egoera txarra gehitu behar zitzairen, urte luzeetan inolako mantentze lanik izan ez zuten eta. Lokomotorarik ez zegoenez, Aragoiko Sadaba eta Gallur arteko trenbidetik ekarritako makina alokatu behar izan zen, baina oraindik Ibaizabal ibaia zeharkatzea ezinezkoa zenez, armada errepublikarrak atzerako bidean lehertutako zubia berreraiki gabe zegoelako, aukera bakarra Ferrocarriles Vascongadoseko geltokitik ekartzea izan zen, Zornotzako kale nagusietan trenbide zati txikiak muntatuz, Lemoako errepidean zegoen trenbide pasagunera heldu arte. Puntu horretan egin zen lotura Sukarrietako linearekin.

Inolako zalantzarik gabe, presa gehien zuen berreraikuntza lana Ibaizabal ibaiaren gaineko metalezko zubia konpontzearena zen, eta horretarako jatorrizko egituraren material asko berreskuratu zen. 1938ko maiatzaren 25ean egin beharreko karga probak egin ondoren, 1938ko uztailaren 14an berriro ere zerbitzuan sartu zen. Halaber, jatorrizko horma nagusiak erabiliz, Gernikako geltokia berreraiki zen, jatorrizko diseinu gehiena errespetatuz, bigarren solairua txikiagoa egin bazen ere. Herri horretako merkantzien kaiak eta mantentze lanetarako tailerrak ere konpondu ziren.<sup>133</sup>

Jarduerari berriro ekiten zitzaion bitartean, erregimen faxista berririk, euren ideiekin bat ez zetozen langile guztiak kanporatu egin zituen. Ezinezkoa izan da Gernikako trenbideko errepresioaren zifra zehatzak ezagutzea, baina 1936tik 1941 bitarteko Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoaren txostenean adierazten denez,<sup>134</sup> erakunde horrek ustiatutako lineatan lan egiten zuten 1.985 langileetatik, 1.242 berriro hasi ziren lanean, zigorrak gabe, 277 kanporatu egin zituzten, eta 466k hainbat motatako zigorrak izan zituzten, derrigorrezko erretiroak (8), leku aldaketak (125), enplegu eta soldata eteteak (113), maila jaitsierak (79), zentsura gutunak (293) eta leku aldaketak, erretiroak, etab. eskatzeko ezintasunak (125). Esan behar da zigor kopurua zigorra jaso zuten agenteena baino altuagoa zela, izan ere, sarri askotan, langile batek zigor bat baino gehiago jaso zuen. Oso esanguratsua da, baita ere, Javier Jose García Sanchez ikerlariak aurkitutako agiria. Bertan, 1937. urtearen amaieran zerbitzuan berriro hasi ez ziren langileen zerrenda erakusten zaigu:

del más mínimo mantenimiento. Ante la carencia de locomotoras, fue preciso alquilar una máquina procedente del ferrocarril aragonés de Sádaba a Gallur, pero como todavía no era posible cruzar el cauce del Ibaizabal, ya que el puente derribado en la retirada del ejército republicano no había sido reconstruido, no hubo más remedio que realizar su transferencia desde la estación de los Ferrocarriles Vascongados mediante el montaje de pequeños tramos de vía a través de las principales calles de Amorebieta, hasta llegar al paso a nivel con la carretera de Lemona, punto en el que fue encarrilada en la línea de Pedernales.

Sin lugar a dudas, la labor de reconstrucción más urgente era la del puente metálico sobre el Ibaizabal, para lo que se recuperó buena parte de los materiales de la estructura original. Tras la realización de las pertinentes pruebas de carga el 25 de mayo de 1938, entró nuevamente en servicio el 14 de julio de 1938. Asimismo, aprovechando los muros de carga originales, se reconstruyó la estación de Guernica siguiendo básicamente el diseño original, aunque con dimensiones más reducidas en la segunda planta. También se repararon los muelles de mercancías y los talleres de mantenimiento situados en esta localidad.<sup>133</sup>

Al tiempo que se reemprendía la actividad, el nuevo régimen fascista procedió a la depuración de todo el personal considerado desafecto. No ha sido posible conocer con exactitud las cifras de la represión en el ferrocarril de Guernica, pero según señala la Memoria de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado de 1936 a 1941,<sup>134</sup> de los 1.985 trabajadores adscritos a las diversas líneas explotadas por este organismo, 1.242 fueron readmitidos sin sanción, mientras que 277 fueron despedidos y 466 sancionados con diversos castigos como jubilaciones forzosas (8), traslados (125), suspensiones de empleo y sueldo (113), descensos de categoría (79), cartas de censura (293) e inhabilitaciones para ascensos, peticiones de traslado, de jubilación, etc. (125). Es de señalar que el número de sanciones, 743, era notablemente superior al de agentes expedientados, debido a que en muchos casos, recayó más de un castigo sobre el mismo trabajador. También resulta altamente significativo un documento localizado por el investigador Javier José García Sánchez en el que figura una relación de los empleados que no se habían incorporado al servicio a finales de 1937:

<sup>133</sup> Explotación de Ferrocarriles por el Estado. 1936ko uztailetik 1941eko ekaina arteko Txostena, 41 – 44 orr.

<sup>134</sup> Explotación de Ferrocarriles por el Estado. 1936ko uztailetik 1941eko ekaina arteko Txostena, 136 – 138 orr.

<sup>133</sup> Explotación de Ferrocarriles por el Estado. Memoria de julio de 1936 a junio de 1941, pp. 41 a 44.

<sup>134</sup> Explotación de Ferrocarriles por el Estado. Memoria de julio de 1936 a junio de 1941, pp. 136 a 138.

**Zerbitzuan berriro hasi ez ziren Zornotza eta Sukarrieta arteko trenbideko langileen zerrenda**

Izena	Kargua	Egoera
Miguel Moreno	Faktorea	Langile batailoia
Gregorio Moreno	Bermeoko Bulegoko arduraduna	Langile batailoia
Jesús Moreno	Faktore laguntzailea	Langile batailoia
Severiano Bilbao	Geltoki burua	Ez da ezagutzen
Eduardo Martínez	Gidaria	Eskolapioen gartzela
Ramón Gastelua	Orratz zaindaria	Ez da ezagutzen
Luis Escorial	Orratz zaindaria	Ez da ezagutzen
Pedro Lasa	Orratz zaindaria	Langile batailoia
Nicolás Arego	Zaindaria	Berriro sartzea eskatu du
Pedro Ibarzabal	Zaindaria	Hilda
Jacinto Arego	Meritorioa	Eskolapioen kartzela
Eugenio Hormaechea	Garbiketa arduraduna	Bilbon
José M <sup>a</sup> Guericabeitia	Tailerretako kontramaisua	Gernikan lanean
Gregorio Amunategui	Arotza	Berriro sartzea eskatu du
José Maguregui	Pintorea	Santanderren
Cecilio Ruiz	Elektrizista	Ez da ezagutzen
Eugenio Erezuma	Torneroa	Langile batailoia
Marcelino Hierro	Tailer laguntzailea	Armadan
Fidel Arrizabalaga	Tailer laguntzailea	Hilda
José Hidalgo	Auxiliar de Vías y Obras	Ez da ezagutzen
Telesforo Mendizábal	Hesi zaindaria	Berriro sartzea eskatu du
Julia Erecacho	Hesi zaindaria	Ez da ezagutzen
Juan Maguregui	Biltegiko arduraduna	Ez da ezagutzen
Carmelo Iruarrizaga	Kontatzailea-Ordaintzailea	Larrinagako kartzela <sup>135</sup>
Luis del Águila	Bulego laguntzailea	Ez da ezagutzen
Jesús Castro	Bulego laguntzailea	Hilda

**Iturria:** Gernikako geltokiko artxibategitik jasotako zerrenda mekanografiatua. 1937. urtea.

Gerra zibila amaitu ondoren, Zornotza eta Sukarrieta arteko trenak trafiko igoera handia ezagutu zuen, bidaiarietako zegoenez, batez ere, bi arrazoi nagusiren ondorioz: alde batetik petrolioaren eratorrietan eta pneumatikoen alorrean zeuden murrizketa han-

<sup>135</sup> Explotación de Ferrocarriles del Estado izenekoak 1941eko irailaren 1ean igorritako gutunari esker, badakigu Carmelo Iruarrizagak hogeitazero urteko espetxe zigorra jaso zuela, baina ondoren zigor hori murriztu egin zioten, eta aipatutako gutuna igorri zenean jada aske egin.

**Relación de trabajadores del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales que no se habían reincorporado al servicio**

Nombre	Cargo	Situación
Miguel Moreno	Factor	Batallón de trabajadores
Gregorio Moreno	Encargado Despacho Bermeo	Batallón de trabajadores
Jesús Moreno	Factor Auxiliar	Batallón de trabajadores
Severiano Bilbao	Jefe de estación	Se ignora
Eduardo Martínez	Conductor	Cárcel de los Escolapios
Ramón Gastelua	Guardagujas	Se ignora
Luis Escorial	Guardagujas	Se ignora
Pedro Lasa	Guardagujas	Batallón de trabajadores
Nicolás Arego	Vigilante	Solicitado el reingreso
Pedro Ibarzabal	Vigilante	Fallecido
Jacinto Arego	Meritorio	Cárcel de los Escolapios
Eugenio Hormaechea	Encargado de limpieza	En Bilbao
José M <sup>a</sup> Guericabeitia	Contraestrella talleres	Trabajando en Guernica
Gregorio Amunategui	Carpintero	Solicitado el reingreso
José Maguregui	Pintor	En Santander
Cecilio Ruiz	Electricista	Se ignora
Eugenio Erezuma	Tornero	Batallón de trabajadores
Marcelino Hierro	Ayudante de talleres	En el ejército
Fidel Arrizabalaga	Ayudante de talleres	Fallecido
José Hidalgo	Auxiliar de Vías y Obras	Se ignora
Telesforo Mendizábal	Guardabarreras	Solicitado el reingreso
Julia Erecacho	Guardabarreras	Se ignora
Juan Maguregui	Encargado de Almacén	Se ignora
Carmelo Iruarrizaga	Contador-Pagador	Cárcel de Larrinaga <sup>135</sup>
Luis del Águila	Auxiliar de oficinas	Se ignora
Jesús Castro	Auxiliar de oficinas	Fallecido

**Fuente:** relación mecanografiada procedente del archivo de la estación de Guernica. Año 1937.

Tras la guerra civil, el ferrocarril de Amorebieta a Pedernales experimentó un notable incremento del tráfico, sobre todo de viajeros, debido a dos razones fundamentales: por una parte, las grandes restricciones de suministros de derivados del petróleo y de neumáticos

<sup>135</sup> Por carta de la Explotación de Ferrocarriles del Estado de fecha 1 de septiembre de 1941, hay constancia de que Carmelo Iruarrizaga fue condenado a veinte años por los tribunales, aunque posteriormente la pena fue rebajada y en el momento de expedición de la citada misiva se encontraba en libertad.

dien ondorioz, autobusek ezin zuten euren zerbitzua eskaini; beste alde batetik, behar beharrezko artikulu asko falta zirenez, ezin bestekoa izan zen nekazaritza gunetara joan-etorriak egitea, oinarrizko janarien bila. Egoera ekonomikoa normaltzen joan zen heinean, bidaiarien trafikoa behera egin zuen pixkanaka, baina, hala ere, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales izenekoak linea ustiatu zuen garaian baino askoz handiagoa izaten jarraitu zuen.

1939tik 1954ra bitartean, eta Bermeorako luzapena inauguratu zain, Explotación de Ferrocarriles por el Estado izenekoak linea hobetzeko hainbat lan hasi zituen, trenbidea goitik behera berriztatu zuen eta material mugikor gehiago sartu zuen, lehenbizi beste trenbide batzuetatik (Vasco-Navarro, Castro eta Traslaviña artekoa, Calahorra eta Arnedillo artekoa edo amaitu barik geratu zen Ferrol eta Xixon artekoa) ekarritako lokomotoren eta kotxeen transferentziaren bidez eta ondoren, kotxe eta bagoi berriak erosiz. Hala ere, ibilgailuen parkea oraindik ere txikiegia zen, eta, sarri askotan, unitateak alokatzen zitzaizkion Ferrocarriles Vascogados enpresari.



VASCO-NAVARRO TRENEKO LURRUN LOKOMOTORAK HELDU ZIRENEAN ASKO HOBETU ZEN GERNIKAKO LINEAKO TRAKZIOA. ARGAZKIA, J. B. CABRERA, JAVIER ARANGURENEN ARTXIBATEGIA. TREAREN EUSKAL MUSEOA.

LA LLEGADA DE LAS LOCOMOTORAS DE VAPOR DEL FERROCARRIL VASCO-NAVARRO SUPUSO UNA NOTABLE MEJORA DE LA TRACCIÓN EN LA LÍNEA DE GUERNICA. FOTO J. B. CABRERA, FONDO JAVIER ARANGUREN. MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

había paralizado casi por completo la competencia de los autobuses; por otra, la absoluta carencia de artículos de primera necesidad en las ciudades motivó un importante aumento de los desplazamientos a las zonas rurales en la búsqueda de los alimentos más básicos. A medida que la situación económica fue normalizándose, el tráfico de viajeros comenzó a descender progresivamente, aunque durante todo el periodo siguió siendo netamente superior al registrado en los años en que la línea fue explotada por la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales.

Desde 1939 hasta 1954, y a la espera de la inauguración de la prolongación a Bermeo, la Explotación de Ferrocarriles por el Estado emprendió diversas obras de mejora de la línea, con la renovación integral de la vía y el incremento del material móvil, primero con la transferencia de locomotoras y coches procedentes de otros ferrocarriles como el Vasco-Navarro, el de Castro a Traslaviña, el de Calahorra a Arnedillo o el inconcluso del Ferrol a Gijón, y posteriormente con la incorporación de coches y vagones de nueva construcción. Sin embargo, el parque de vehículos siguió siendo insuficiente, por lo que frecuentemente se recurría a alquilar unidades a los Ferrocarriles Vascogados.



BERMEORAKO LUZAPENEN LANEN ITXAROPEN HANDIAK SORTU ZITUZTEN. EUSKO TRENEAN ARTXIBATEGIA. LAS OBRAS DE PROLONGACIÓN A BERMEO GENERARON GRANDES ESPERATIVAS. ARCHIVO EUSKO TRENEAN



**Zornotza eta Gernika eta Lumo arteko tren,  
trafikoaren eta emaitzen bilakaera (1932-1954)**

Urtea	Bidaiariak	Merkantziak (Tm)	Sarrerak (mila pezetatan)	Gastuak (mila pezetatan)	Koefizientea
1932	161.686	17.172	242.900	369.800	152,2
1933			249.900	332.100	132,8
1934			331.200	443.800	133,9
1935			203.147		
1936					
1937			115.953	90.331	77,9
1938			172.880	269.497	155,8
1939			196.740	326.680	166,0
1940			375.458	481.594	128,2
1941			584.706	892.294	152,6
1942	684.973	33.364	1.057.990	1.178.853	111,4
1943	666.333	33.577	1.026.414	1.581.329	154,0
1944	488.944	36.957	839.673	1.688.403	201,1
1945	460.233	38.371	912.043	1.766.703	193,7
1946	493.551	42.093	1.110.382	1.861.040	167,6
1947	519.639	34.684	1.065.358	1.987.312	186,5
1948	556.629	42.361	1.308.424	2.298.963	175,7
1949	543.271	43.254	1.479.658	2.682.716	181,3
1950	520.308	34.922	1.714.480	3.055.221	178,2
1951	522.032	38.982	1.965.748	3.488.171	177,4
1952	489.709	39.348	1.942.982	3.824.966	196,8
1953	470.044	31.618	1.812.038	3.533.547	195,0
1954	421.950	20.765	2.258.639	4.174.724	184,8

Iturria, Explotación de los Ferrocarriles por el Estado, Txostenak, 1936-1954

**BERMEORAINOKO LUZAPENETIK FEVERA,  
1955ETIK 1978RA**

Linea Bermeoraino luzatu zenean, bidaiarien trafikoak gora egin zuen, eta horretarako lagungarri izan zen, baita ere, berrogeita hamarrek hamarkadaren amaieran lokomotora eta automotore dieselak sartzea. Makina horiek, askoz ere ke gutxiago botatzeaz gain, azkarragoak ziren, eta, ondorioz bidaiak laburragoak ziren, eta tren zerbitzua erakargarriago bilakatu zen. Hori dela eta, 1961ean lehen aldiz gainditu zen garraiatutako milioi bat bidaiariren kopu-

**Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales,  
evolución del tráfico y resultados (1932-1954)**

Año	Viajeros	Mercancías (Tm)	Ingresos (miles de pesetas)	Gastos (miles de pesetas)	Coefficiente
1932	161.686	17.172	242.900	369.800	152,2
1933			249.900	332.100	132,8
1934			331.200	443.800	133,9
1935			203.147		
1936					
1937			115.953	90.331	77,9
1938			172.880	269.497	155,8
1939			196.740	326.680	166,0
1940			375.458	481.594	128,2
1941			584.706	892.294	152,6
1942	684.973	33.364	1.057.990	1.178.853	111,4
1943	666.333	33.577	1.026.414	1.581.329	154,0
1944	488.944	36.957	839.673	1.688.403	201,1
1945	460.233	38.371	912.043	1.766.703	193,7
1946	493.551	42.093	1.110.382	1.861.040	167,6
1947	519.639	34.684	1.065.358	1.987.312	186,5
1948	556.629	42.361	1.308.424	2.298.963	175,7
1949	543.271	43.254	1.479.658	2.682.716	181,3
1950	520.308	34.922	1.714.480	3.055.221	178,2
1951	522.032	38.982	1.965.748	3.488.171	177,4
1952	489.709	39.348	1.942.982	3.824.966	196,8
1953	470.044	31.618	1.812.038	3.533.547	195,0
1954	421.950	20.765	2.258.639	4.174.724	184,8

Fuente, Explotación de los Ferrocarriles por el Estado, Memorias, 1936-1954

**DESDE LA PROLONGACIÓN A BERMEO A FEVE,  
1955 A 1978**

Con la prolongación de la línea a Bermeo, el tráfico de viajeros experimentó un progresivo incremento que se vio favorecido a finales de los años cincuenta con la introducción de locomotoras y automotores diesel, los cuales, además de emitir menos humos, redujeron los tiempos de viaje, aumentando el atractivo del servicio ferroviario, lo que a su vez permitió que en 1961 se superase por primera vez el millón de viajeros transportados. En contraste,



BERMEOKO GELTOKIAK ITXURA EZIN HOBEA ESKAINTZEN ZUEN INAUGURATU ZEN EGUNEAN. BUESA FAMILIAREN ARTXIBATEGIA.  
LA ESTACIÓN DE BERMEO OFRECÍA EL DÍA DE SU INAUGURACIÓN UN IMPECABLE ASPECTO. ARCHIVO FAMILIA BUESA.



HALA ERE, DIKTADOREAK ETA HAREN SEGIZIOAK IKUSI ZUTEN BERMEOKO GELTOKIAREN IRUDI EZIN HOBEA EZ ZETORREN BAT ERREALITATEAREKIN, GUZTIA EGIN GABE BAITZEGOEN. HILABETE BATZUK GEROAGO JEREMY WISEMAN BRITAINIARRAK, KAOSEAN MURGILDURIK ZEGOEN GELTOKIAREN IRUDI HAU HARTU ZUEN. ARGAZKIA, JEREMY WISEMAN.  
SIN EMBARGO, LA PERFECTA IMAGEN DE LA ESTACIÓN DE BERMEO QUE PUDIERON APRECIAR EL DICTADOR Y SU SÉQUITO NO SE CORRESPONDÍA A LA REALIDAD, YA QUE TODO ESTABA POR HACER. UNOS MESES MÁS TARDE EL BRITÁNICO JEREMY WISEMAN CAPTABA ESTA OTRA IMAGEN DE UNA ESTACIÓN SUMIDA EN EL CAOS. FOTO, JEREMY WISEMAN.

rua. Horrekin kontrajarrita, eta 1961eko ekainaren 3an Bermeoko portuko lehenbiziko karga burutu bazen ere,<sup>136</sup> merkantzien garraioak beherakada nabarmena izan zuen, eta 1969an merkantziak garraiatzeari utzi egin zitzaion.<sup>137</sup>

24/001	Estación de Pedernales	Actualmente denominada Busturia-Itsasbegi
26/243	Estación de Mundaca	
28/772	Estación de Bermeo	Final de la línea. Ramal al puerto comercial

**Fuente:** Archivo del Museo Vasco del Ferrocarril

<sup>177</sup> Lan hori Govasa enpresak egin zuen. Informazio hori konpainia horretako garai bateko langile batek eman digu; José Manuel García Suárezek, hain zuzen.

<sup>177</sup> Obra realizada por la empresa Govasa. Testimonio de D. José Manuel García Suárez, antiguo empleado de la citada compañía.



## Tailerrak eta kotxetegiak

Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izenekoak material mugikorraren mantentze lanetarako instalazioak Gernika-Lumon jarri zituzten. Tailerraren eraikina zurututako harlanduzkoa zen, eta 500 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria eta egurrezko egiturako teilazko estalkia zituen.

Horrekin batera, Gernikako geltokiak beste instalazio hauek ere bazituen: lokomotoretarako 200 m<sup>2</sup>-ko aparkaleku estalia, 216 m<sup>2</sup>-ko aroztegi tailerra eta atoian eramateko materialerako kotxetegiak.

Eraikin horiek guztiak kalte handiak izan zituzten 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketaren ondorioz. Hala ere, zerbitzuaren premietara hobeto egokitutako instalazio handiagoak egin ordez, Explotación de Ferrocarriles por el Estado erakundeak egindako berreraikitze lanaren helburua instalazioak bonbardaketa aurretik zeuden bezala uztea izan zen. Hori dela eta, eta nahikoa tokirik ez zegoenez, mantentze lan ugari atari zabalean egin behar izan zituzten.<sup>178</sup>



GERNIKAKO TAILERREN ERAIKINA, HERRIAK GERRA ZIBILEAN JASANDAKO BONBARDAKETAREN ONDOREN BERRERAIKI ETA GERO. MUSEO DEL FERROCARRIL DE ASTURIAS IZENEKOAREN ARTXIBATEGIA.

EDIFICIO DE LOS TALLERES DE GUERNICA, RECONSTRUIDOS TRAS EL BOMBARDEO SUFRIDO POR LA VILLA DURANTE LA GUERRA CIVIL. ARCHIVO DEL MUSEO DEL FERROCARRIL DE ASTURIAS.

## Talleres y cocheras

La Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno estableció en esta última localidad las instalaciones para el mantenimiento del material móvil. El edificio del taller era de sillarejo enlucido y ofrecía una superficie útil de 500 m<sup>2</sup> bajo cubierta de teja con estructura de madera.

Junto a esta dependencia, la estación de Guernica también contaba con un depósito para el estacionamiento de locomotoras, de 210 m<sup>2</sup> de superficie cubierta, un taller de carpintería de 216 m<sup>2</sup> y una cochera para el material remolcado de 340 m<sup>2</sup>.

Todos estos edificios resultaron seriamente dañados durante el bombardeo de la villa del 26 de abril de 1937. Sin embargo, en lugar de aprovechar la ocasión para realizar unas nuevas instalaciones de mayor envergadura y más acordes con las necesidades del servicio, la Explotación de Ferrocarriles por el Estado procedió a realizar una reconstrucción casi mimética, de las dependencias originales. Por ello, y ante la falta de espacio existente, era frecuente que muchas labores de mantenimiento tuvieran que realizarse en la intemperie.<sup>178</sup>

<sup>178</sup> Hala egiten ziren, esate baterako, diesel lokomotoretatik bogieak ateratzeko jasotze obrak.

<sup>178</sup> Este es el caso, por ejemplo, del levante de las locomotoras diesel para extraer los bogies.

Gernikan zeuden instalazioak osatzeko, instalazio gehiago jarri ziren Zornotzan, Sukarrietan eta Bermeon. Zornotzan, enpresak kotxetegi handi bat jarri zuen, lurrinezko lokomotorak gauzez han uzteko. 59 m<sup>2</sup>-ko eraikin txiki hark pezo bat zuen, hautsontziak garbitzeko eta lokomotoren barruko mekanismoak koipeztatzeko. Gero, 160 m<sup>2</sup>-ko kotxetegi bat eraiki zuten, bidaiariek erabiltzen zituzten ibilgailuak aparkatzeko.

Trenbidea Sukarrietaraino eramán zutenez, beharrezkoa zen Sukarrietan material mugikorra uzteko instalazioak jartzea; beraz, lurrinezko lokomotoretarako eta atoian eramandako materiale-rako kotxetegi bana eraiki ziren. Trenbidea Bermeoraino eramán zutenean, instalazio horiek kendu egin zituzten, eta Bermeon kotxetegi bat eraiki zuten, lau ibilgailu sartzeko modukoa eta goiko solairuan trenbideetako langileentzako etxebizitza zue-na.<sup>179</sup>



GERNIKAKO TAILERRAK EZ ZEUDEN PRESTATURIK MANTENTZE LAN GUZTIAK BERTAN EGITEKO. IZAN ERE, SARRI ASKOTAN LANAK AIRE ZABALEAN EGIN BEHAR IZATEN ZIREN. ARGAZKIA, JEREMY WISEMAN.  
LAS INSTALACIONES DE LOS TALLERES DE GUERNICA RESULTABAN INSUFICIENTES PARA LA REALIZACIÓN DE TODAS LAS LABORES DE MANTENIMIENTO, POR LO QUE MUCHAS DE ELLAS SE REALIZABAN A LA INTEMPERIE. FOTO, JEREMY WISEMAN.

Las instalaciones existentes en Guernica se complementaron con otras dependencias situadas en Amorebieta, Pedernales y Bermeo. En la primera localidad la empresa estableció un cocherón en el que se cobijaban las locomotoras de vapor que debían pernoctar en esta estación. El pequeño edificio disponía, en sus 59 m<sup>2</sup>, de un foso para limpieza de los ceniceros y el engrase de los mecanismos interiores de las máquinas. Posteriormente se construyó también una cochera para albergar los vehículos para el servicio de viajeros, cuya superficie cubierta era de 160 m<sup>2</sup>.

Tras la prolongación de la línea a Pedernales también se establecieron en esta localidad las necesarias dependencias para guarecer el material móvil, en concreto un cocherón para locomotoras de vapor y otro para el material remolcado. Estas instalaciones desaparecieron tras la ampliación del ferrocarril hasta Bermeo, estación en la que se construyó un cocherón, con capacidad para cuatro vehículos, que contaba en su planta superior con una vivienda para el personal ferroviario.<sup>179</sup>

BIDAIARIEN KOTXEEN GORDETEGIA, GERNIKAN., JOSÉ ANTONIO TARTAJO.  
DEPÓSITO DE COCHES DE VIAJEROS DE GUERNICA. FOTO, JOSÉ ANTONIO TARTAJO.



<sup>179</sup> Este edificio estaba inspirado en instalaciones similares del ferrocarril Vasco-Navarro.

1973AN FEVEK TAILER BERRIAK ERAIKI ZITUEN GERNIKAN, ETA GAUR EGUN EUSKOTRENEK KOTXETEGI GISA ERABILTZEN DITU. ARGAZKIA, JUANJO OLAIZOLA.  
 EN 1973 FEVE CONSTRUYÓ EN GUERNICA NUEVOS TALLERES QUE EN LA ACTUALIDAD UTILIZA EUSKOTREN COMO COCHERA. FOTO, JUANJO OLAIZOLA.



SUKARRIETAN EZARRITAKO KOTXETEGIAREN IKUSPEGIA. GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN ARTXIBATEGIA.  
 VISTA DEL COCHERÓN ESTABLECIDO EN PEDERNALES. ARCHIVO GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA.



BERMEOKO GELTOKIAN EZARRITAKO KOTXETEGIA. ARGAZKIA, PEDRO PÉREZ AMUCHASTEGUI.  
 COCHERÓN ESTABLECIDO EN LA ESTACIÓN DE BERMEO. FOTO, PEDRO PÉREZ AMUCHASTEGUI.

Linea elektrifikatzearen ondorioz, Zornotza eta Bermeo arteko linearen mantentze lanetarako instalazioak goitik behera aldatu zituzten, orduz geroztik Gernikako geltokian eraikitako kotxetegi berrietan jarduera guztiak zentralizatu baitziren. Hala ere, 1972an Ferrocarriles Vascongados konpainia FEVE n sartu zenez, material mugikorra berrikusteko eta konpontzeko lanak Durangon FEVEk zituen tailerretara eramane ziren, eta denbora luzean Gernikako instalazioak inork erabili gabe geratu ziren.

1987tik aurrera, Gernikako kotxetegiak EuskoTrenek erabili zituen, COINSA enpresarekin elkarlanean material mugikorra zaharberritzeko eta berreraikitzeko; esate baterako, 3100 eta 3500 serieko kotxeak edo Ferrocarriles Vascongados konpainiaren ASEA markako lokomotorak. Gaur egun, instalazio horiek linea horretako material mugikorra gordetzeko erabiltzen dira, eta, gainera, sistema automatizatu dute tren unitateak hareaz kargatzeko.

## Elektrifikatzea

20ko hamarkadaren amaierako albiste batzuetan, Zornotza eta Bermeo arteko linean trakzio elektrikoa jartzeko asmoaren berri eman zen. Une hartan, Ferrocarriles Vascongados konpainia lineak elektrifikatzen ari zen, eta linea hori elektrifikatzeko asmoa adierazi zuen. Hala ere, proiektuak ez zuen aurrera egin, eta ideia hori ez zen berriro proposatu 60ko hamarkadara arte.

La electrificación de la línea trajo consigo la completa remodelación de las instalaciones de mantenimiento de los trenes del ferrocarril de Amorebieta a Bermeo, centralizando todas las actividades en unas nuevas cocheras levantadas en la estación de Guernica. Sin embargo, la incorporación de los Ferrocarriles Vascongados a FEVE en 1972 hizo que progresivamente los trabajos de revisión y reparación del material móvil fueran transferidos a los talleres de esta empresa en Durango, quedando durante muchos años sin uso las nuevas dependencias.

A partir de 1987 las cocheras de Guernica fueron utilizadas por EuskoTren para proceder a la reforma y reconstrucción de diverso material móvil, como las series 3100 y 3500 o las locomotoras ASEA de Vascongados, en colaboración con la empresa COINSA. En la actualidad estas instalaciones son utilizadas como garaje del material móvil que presta servicio en la línea, habiendo sido dotadas de sistemas de carga automatizada de los areneros de las unidades de tren que pernoctan en estas dependencias.

## La electrificación

Las primeras noticias sobre la aplicación de la tracción eléctrica en la línea de Amorebieta a Bermeo datan de finales de los años veinte, momento en que la Compañía de los Ferrocarriles Vascongados, en pleno proceso de electrificación de sus servicios, se interesó por este ferrocarril. Sin embargo, el proyecto no prosperó, por lo que la idea no volvió a plantearse hasta los años sesenta.



ELEKTRIFIKATZEAREN INAUGURAZIOKO TRENA MUXIKAKO GELTOKITIK IGAROTZEAN. TRENAREN EUSKAL MUSEOAREN ARTXIBATEGIA.  
TREN INAUGURAL DE LA ELECTRIFICACIÓN A SU PASO POR LA ESTACIÓN DE MÚGICA. ARCHIVO DEL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL.

Lehen esan dugunez, elektrifikatzearen lehenengo urratsa tuneletan galibo argiak egokitzea izan zen, eta lan horri 1965ean ekin zitzaion. Gero, Narciso Buesa Buesa ingeniariak eraikuntza proiektua egin zuen. Proiektu horretan, Zugaztietan eta Gernikan bi azpi-estazio egitea aurreikusten zen, baina azkenean Gernikakoa bakarrik egin zen. Instalazio horrek 2.500 kw-ko potentzia zuen, 1.250 kw-ko bi taldetan banatua, eta automotore batez eta zazpi atoiz osatutako tren batek Autzaganekeo mendatetik gora 30 km/h-ko abiadura igotzeko nahikoa zela uste zen.<sup>180</sup>

Zornotza eta Bermeo arteko linearen elektrifikatzea Renferen moduko katenariaz egin zen, hormigoi armatuzko 673 posterio euste aldera. Posteen arteko tartea 60 metrokoa zen zuzen-guneetan, eta 30 metrokoa bihurguneetan. Goiko lineak sekzioko 107 milimetro koadroko kontaktu hari bakarra zuen, mekanikoki konpentsatua, eta elikadurarako feederra, 100 mm<sup>2</sup>-ko sekziokoa, 153 mm<sup>2</sup>-ko kable euslearen ondoan muntatu zuten.<sup>181</sup>

Elektrifikatze horretako instalazioak 1973ko maiatzaren 29an inauguratu eta 90eko hamarkada arte erabili zituzten, une hartan, goiko linea hobetze aldera, EuskoTrenek modernizazio programari ekin baitzion, kontaktuko hari bikoitza eta bi kableen konpentsazio mekanikoa jarrita.

Trakzioko azpi-estazio bakarra Gernikako geltokian eraiki zen. Hasierako asmoa General Eléctrica Española (Galindo-Bizkaia) 1962an Jaengo La Lomako linea modernizatzeko egindako merkurio lurrinezko bi artezgailu erabiltzea zen, bai eta Vasco-Navarro trenetik hartutako zenbait ekipamendu erabiltzea ere, baina azkenean General Eléctrica Española 1973an emandako siliziozko artezgailuak erabili ziren.

2001ean, linearen potentzia dezente handitu zen, Muruetako ontziolaren ondoan 2.000 kw-ko ABB ekipamendua zuen azpi-estazio mugikor bat jarri baitzen. Gaur egun, horren orde instalazio iraunkor bat jartzeko asmoa dago. Bestalde, nahiz eta lan honek jorratu beharreko gaietatik kanpo egon, nabarmendu behar da Astepeko azpi-estazioak (Bilbo eta Donostia arteko linean, Zornotza-

Tal y como se ha señalado anteriormente, los primeros pasos para la ejecución de la electrificación consistieron en la realización de obras de adecuación de gálibo de los túneles, las cuales se iniciaron en el año 1965. Posteriormente, el ingeniero Narciso Buesa Buesa redactó el proyecto constructivo que en un principio preveía la construcción de dos subestaciones, una en Zugastietan y otra en Guernica, aunque finalmente solamente se montó esta última. La potencia de esta instalación, 2.500 kw., repartidos en dos grupos de 1.250 kw. cada uno, se consideraba suficiente para que pudieran ascender por el puerto de Autzagane composiciones formadas por un automotor y hasta siete remolques a la velocidad máxima de 30 km/h.<sup>180</sup>

La electrificación de la línea Amorebieta a Bermeo se realizó mediante catenaria tipo Renfe, soportada mediante 673 postes de hormigón armado, situados cada sesenta metros en recta y cada treinta en curva. La línea aérea disponía de un solo hilo de contacto de 107 milímetros cuadrados de sección y compensado mecánicamente, mientras que el feeder de alimentación, cuya sección era de 100 mm<sup>2</sup>, se montó junto al cable sustentador de 153 mm<sup>2</sup>.<sup>181</sup>

Inaugurada el 29 de mayo de 1973, las instalaciones originales de esta electrificación se mantuvieron en servicio hasta principios de los años noventa, fecha en que EuskoTren inició un programa de modernización en el que se mejoró la línea aérea al dotarla de doble hilo de contacto y compensación mecánica en ambos cables.

La única subestación de tracción se instaló en la estación de Guernica. En un principio se consideró la posibilidad de aprovechar dos rectificadores de vapor de mercurio fabricados por la General Eléctrica Española (Galindo-Vizcaya), en 1962 con destino a la modernización del ferrocarril de La Loma (Jaén), así como diversos equipos procedentes del Vasco-Navarro, pero finalmente fue dotada de dos modernos rectificadores de silicio suministrados por la General Eléctrica Española en 1973.

En el año 2001 la potencia de la línea se vio notablemente incrementada al instalar junto al astillero de Murueta una nueva subestación móvil dotada de un grupo ABB de 2.000 kilovatios, estando prevista su próxima sustitución por una instalación fija. Por su parte, y aunque fuera de la línea objeto de este trabajo, la subestación de Astepe, situada en el ferrocarril de Bilbao a San Sebastián

<sup>180</sup> Tren mota hori Gernikako azokaren egunetan edo hondartza garaian erabiltzen da, eta, normalean motore bat eta hiru atoi izaten zituen.

<sup>181</sup> Kable eusleak ez zuen konpentsazio mekanikorik.

<sup>180</sup> Este tipo de trenes solamente circularía con ocasión de importantes ferias en Guernica o en temporada de playas, considerándose como composición habitual la de un coche motor y tres remolques.

<sup>181</sup> El cable sustentador carecía de compensación mecánica.

FEVEK HIRUROGEITA HAMARREKO HAMARKADAN EGIN ZITUEN ELEKTRIFIKATZEK BAZUTEN EZAUGARRI KOMUN BAT, ORMIGOI ARMATUZKO ZUTABEEN ERABILERA KATENARIAREN ZUTABEETAN. PIXKANAKA-PIXKANAKA, HAIEN ORDEZ EUSKOTREN METALEZKO ZURSAREDUNAK JARTZEN ARI DA. ARGAZKIA, JUANJO OLAIZOLA. CARACTERÍSTICA COMÚN A LAS ELECTRIFICACIONES REALIZADAS POR FEVE EN LOS AÑOS SETENTA ERA LA UTILIZACIÓN DE POSTES DE CATENARIA DE HORMIGÓN ARMADO. EUSKOTREN LOS ESTÁ SUSTITUYENDO PROGRESIVAMENTE POR OTROS DE CELOSÍA METÁLICA. FOTO, JUANJO OLAIZOLA.



ko geltokitik hurbil) Bermeotiko trenaren elikadura ere indartzen duela, batez ere Autzagane igotzeko

en las proximidades de la estación de Amorebieta, también refuerza la alimentación del tren de Bermeo, principalmente en lo que respecta a la subida de la divisoria de Autzagane.

### Zornotza eta Bermeo arteko trenbideko azpi-estazioak

K.P.	Izena	Artezgailu kopurua	Unitate bakoitzaren potentzia	Eraikitzailea /urtea
14/600	Gernika	2	1.250 Kw.	GEE/1973
20/718	Murueta (mugikorra)	1	2.000 Kw.	ADTranz/1999

### Subestaciones del ferrocarril de Amorebieta a Bermeo

p.k.	Nombre	Nº rectificadores	Potencia de c/u	Constructor /año
14/600	Gernica	2	1.250 Kw.	GEE/1973
20/718	Murueta (móvil)	1	2.000 Kw.	ADTranz/1999



GERNIKAKO TRAKZIO AZPI-ESTAZIOKO GELTOKIA. ARGAZKIA, JUANJO OLAIZOLA.  
EDIFICIO DE LA SUBESTACIÓN DE TRACCIÓN DE GUERNICA. FOTO, JUANJO OLAIZOLA.



MURUETAKO AZPI-ESTAZIO MUGIKORRA. ARGAZKIA, JUANJO OLAIZOLA.  
SUBESTACIÓN MÓVIL DE MURUETA. FOTO, JUANJO OLAIZOLA.




## Material Motorra

Inolako zalantzarik gabe, material motorra da tren guztien ezaugarri nagusia. Zornotza eta Bermeo arteko adarrari dagokionez, ohiko hiru trakzio-moduak erabili dira, hau da: lurruna, diesela eta elektrizitatea. Gainera, bertako trenbideetan mota askotako ibilgailuak ibili dira, hala linearenak propio zirenak, nola bestelako ustiapenetatik ekarritakoak. Hori dela medio, berau dugu Euskadiko trenbide estuko ibilgailu parkerik aberatsenetako bat.

### LEHENENGO LURRUN LOKOMOTORAK

Hasiera batean 1988an erositako hiru unitatek osatu zuten Gernika-Lumo eta Zornotza arteko Trenaren lurrun lokomotorak. Britainia Handiko Glasgow hirian zegoen Sharp Stewart Co. Ltd. enpresak fabrikatu zituen lokomotora horiek. Makina haiek hiru ardatz akoplatuak zituzten, kanpoko zilindroak eta barneko banaketa mekanismoa, eta 3.433, 3.434 eta 3.435 fabrika-zenbakiak, hurrenez hurren. Bestalde, elkarren segidako 1, 2 eta 3 zenbakidun matrikulak eta «Guernica y Luno», «Mugica» eta «Zugastieta» izenak jarri zizkieten.



## El material Motor

Sin lugar a dudas, el aspecto más característico de cualquier ferrocarril es el de su material motor. El de Amorebieta a Bermeo ha empleado los tres tipos de tracción habituales, vapor, diesel y eléctrica, viendo circular por sus vías gran variedad de vehículos, tanto propios de la línea como procedentes de otras explotaciones, hecho que convierte a su parque móvil en uno de los más ricos de la vía estrecha de Euskadi.

### LAS PRIMERAS LOCOMOTORAS DE VAPOR

El parque inicial de locomotoras de vapor del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno estaba compuesto por tres unidades suministradas en 1888 que fueron construidas en Gran Bretaña por la empresa Sharp Stewart Co. Ltd. de Glasgow. Máquinas de tres ejes acoplados, con cilindros exteriores y mecanismo de distribución interior, sus números de fabricación eran 3.433, 3.434 y 3.435 respectivamente, siendo matriculadas de forma correlativa del 1 al 3 y bautizadas como «Guernica y Luno», «Múgica» y «Zugastieta».

Ondorengo hauek ditugu unitate horien ezaugarri teknikorik garantzizkoenak:

### Zornotza eta Sukarrieta arteko Trena, 1, 2 eta 3 zenbakidun lokomotorak

Nork fabrikatuak	Sharp Stewart Co. Ltd. (Glasgow)
Noiz fabrikatuak	1888
Fabrika zenbakiak	3.433, 3.434 eta 3.435
Trenbide zabalera	1.000 mm
Errodajea	030T
Topeen arteko distantzia	7.350 milimetro
Muturreko ardatzen arteko distantzia	3.070 milimetro
Gurpil akoplatuen diametroa	940 milimetro
Pisua hutsik	18.000 kilogramo
Pisua zerbitzuan	22.000 kilogramo
Erregai edukiera	700 kilogramo
Ur edukiera	2.000 litro
Balazta sistema	Torlojuduna
Potentzia	40 zaldi-potentzia
<b>Sutegia</b>	
Luzera	1.330 milimetro
Zabalera	670 milimetro
Berotze-azala	4,38 metro karratu
<b>Galdara</b>	
Lurruna	Asea
Galdararen luzera osoa	3.988 milimetro
Gorputz zilindrikoaren luzera	1.499 milimetro
Diametroa	997 milimetro
Hodi kopurua	146
Hodien diametroa	42 milimetro
Hodien luzera	2.610 milimetro
Zeharkako kalefakzioaren azala	48,82 metro karratu
Tinbrea	12 kilogramo zentimetro karratuko
Edukiera	2.000 litro ur
<b>Zilindroak</b>	
Diametroa	330 milimetro
Ibilbitartea	508 milimetro
Banaketa	Laua

Las principales características técnicas de estas unidades eran las siguientes:

### Ferrocarril de Amorebieta a Pedernales, locomotoras N° 1 a 3

Constructor	Sharp Stewart Co. Ltd. (Glasgow)
Año de construcción	1888
Número de construcción	3.433, 3.434 y 3.435
Ancho de vía	1.000 mm.
Rodaje	030T
Distancia entre topes	7.350 milímetros.
Distancia entre ejes extremos	3.070 milímetros
Diámetro de ruedas acopladas	940 milímetros.
Peso en vacío	18.000 kilogramos.
Peso en servicio	22.000 kilogramos.
Capacidad combustible	700 kilogramos.
Capacidad de agua	2.000 litros
Freno	Husillo
Potencia	40 caballos de vapor.
<b>Hogar</b>	
Longitud	1.330 milímetros.
Ancho	670 milímetros.
Superficie de caldeo	4,38 metros cuadrados
<b>Caldera</b>	
Vapor	Saturado
Longitud total de la caldera	3.988 milímetros.
Longitud del cuerpo cilíndrico	1.499 milímetros.
Diámetro	997 milímetros.
Número de tubos	146
Diámetro de los tubos	42 milímetros.
Longitud de los tubos	2.610 milímetros.
Superficie de calefacción indirecta	48,82 metros cuadrados.
Timbre	12 kilogramos por centímetro cuadrado
Capacidad	2.000 litros de agua
<b>Cilindros</b>	
Diámetro	330 milímetros.
Carrera	508 milímetros.
Distribución	Plana

Hiru lokomotora haiek Sukarrietako linearen zirkulazio guztiak ziurtatu zituzten 1914. urtera arte, urte horretan potentzia handiagoko makina bat abiarazi baitzen. Makina berri horrek trenerako lurrunezko berokuntza sistema eta hutsezko balazta automatiko ekipoak zituen, lokomotora zaharrak soilik bidaiari-tren bakar batzuekin aritu ziren ordutik aurrera.

Zornotza eta Bermeo arteko trenaren ustiapena Estatuaren esku gelditu zenetik (Explotación de Ferrocarriles por el Estado -EFE-), ohikoa zen lokomotorak elkartrukatzea erakunde horrek kudeatutako beste linea batzuekin. Adibidez, badakigu 1 zenbakidun lokomotora Gasteizen zegoela gerra zibila piztu zenean,<sup>182</sup> aldiz, 2 zenbakiduna kontserbazio-egoera txarrean zegoenez, eta konpon-tzera, Lutzana eta Mungia arteko trenaren tailerretara bidali zen, 1938ko abuztuaren 25ean Gernikara itzuliz. Ordurako Bizkaia Francoren armadaren eskuetan zegoen.

40ko hamarkadan, aurrerago ikusiko dugun bezala, Sukarrietako trenaren ibilgailu kopurua nabarmen handiagotu zen, beste linea batzuetako hainbat lokomotora ekarri baitziren. Dena den, jatorrizko makina txiki haiek lanean jarraitu zuten, baina «Zugastieta»

Estas tres locomotoras aseguraron la totalidad de las circulaciones de la línea de Pedernales hasta el año 1914, fecha en que la puesta en servicio de una máquina de mayor potencia, dotada de equipos de calefacción de vapor y de freno automático de vacío para el tren, las relegó de la mayor parte de los trenes de viajeros.

A partir de la integración del tren de Amorebieta a Bermeo en la Explotación de Ferrocarriles por el Estado, fue común el intercambio de locomotoras con otras líneas gestionadas por este organismo. Por ejemplo, hay constancia de que la locomotora N° 1 se encontraba en Vitoria en el momento en que estalló la guerra civil,<sup>182</sup> mientras que debido a su mal estado de conservación, la N° 2 fue enviada a los talleres del ferrocarril de Luchana a Munguía, donde fue reparada, regresando a Guernica el 25 de agosto de 1938, cuando Vizcaya ya se encontraba en poder del ejército de Franco.

En los años cuarenta, tal y como se verá más adelante, el parque de material móvil del ferrocarril de Pedernales fue ampliamente reforzado con locomotoras procedentes de otras líneas. No obstante, las pequeñas máquinas originarias continuaron en activo, expe-



“ZUGASTIETA” ETA “GUERNICA Y LUNO” LOKOMOTORAK, GERNIKAKO GELTOKIAN BAZTERTURIK. ARGAZKIA, JEREMY WISEMAN.  
LOCOMOTORAS “ZUGASTIETA” Y “GUERNICA Y LUNO”, APARTADAS EN LA ESTACIÓN DE GUERNICA. FOTO, JEREMY WISEMAN.

<sup>182</sup> Euzkadiko Bitarteko Jaurlaritzaz, Zornotza eta Gernika eta Sukarrieta arteko Trena, material motorraren azalpena.

<sup>182</sup> Gobierno Provisional de Euzkadi, Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales, relación de material motor.



“ZUGASTIETA” LURRUN LOKOMOTORAREN ALBOKO IKUSPEGIA. ARGAZKIA, JUANJO OLAIZOLA.  
VISTA LATERAL DE LA LOCOMOTORA DE VAPOR “ZUGASTIETA”. FOTO, JUANJO OLAIZOLA.



“ZUGASTIETA” LOKOMOTORA, URTE LUZEZ BAZTERTURIK EGON ONDOREN, BERRIRO ERE BIZITZARA ITZULI DA, TRENAREN EUSKAL MUSEOAN. BERAN, ALDIAN BEHIN, ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITU, AZPEITIA ETA LASAO ARTEKO LINEAN. ARGAZKIA, M<sup>TM</sup> MERCEDES GARCÍA FERNÁNDEZ.  
LA LOCOMOTORA “ZUGASTIETA” TRAS LARGOS AÑOS DE ABANDONO, HA VUELTO A LA VIDA EN EL MUSEO VASCO DEL FERROCARRIL, DONDE OCASIONALMENTE REALIZA SERVICIOS EN LA LÍNEA DE AZPEITIA A LASAO. FOTO, M<sup>a</sup> MERCEDES GARCÍA FERNÁNDEZ.

makinan konponketa lan handiak egin ziren 1947an eta 1953an. Bestalde, «Guernica y Luno» makina Muruetako ontziolan berre-raiki zuten 1950ean.

40ko hamarkadaren buruan «Mugica» lokomotorari baja eman zioten behin-betiko, eta 1953an «Guernica y Luno» izeneko zerbitzutik kanpo geratu zen. Bi makina horiek 1960an eta 1966an deuseztatu zituzten, hurrenez hurren. Beste alde batetik, «Zugastietia» makinak patu hobea izan zuen, eta Bermeorako linearen luzapen obretan erabiltzen ziren tren askotako buru izan zen. Geroago alboratuta geratu zen Gernikako geltokian, harik eta 1962an Bilboko Etxetxo plazan zeuden tailerretara eraman zuten arte, han behar bezala txukundu zezaten. Izan ere, Bizkaiko trenaren mendeurrena betetzen zela eta, ospakizun-erakusketa antolatu zuten, eta gure makina bertan ikusgai egotea nahi zuten. Horregatik, hiribildurako trena inauguratu zuen lokomotora gisa aurkeztu nahi zutenez, 1 zenbakidun matrikula jarri zioten, aurrekoaren orde.

Behin erakusketa hura amaitu eta gero, «Zugastietia» makina Gernikara itzuli eta alboratuta geratu zen berriro ere. 1973an Durangoko geltokira eraman zuten, eta pixkanaka-pixkanaka hondatuz joan zen, harik eta 1992an Trenaren Euskal Museoak behin-betiko babestu zuen arte. Hiru urte pasa eta gero erakunde horrek lokomotora hori zaharberritzeari ekin zion. Gaur egun European «Zugastietia» dugu XIX. mendean fabrikatutako eta martxan dagoen lurrun lokomotora gutxienetako bat, eta noizean behin tren berezien buru izaten da, Azpeitian dagoen Museoaren egoitzaren eta Lasako geltokiaren arteko ibilbidea egiten duten lurrun trenetan, hain zuzen ere.

## «GANDARIAS» LOKOMOTORA

Bidaiarien garraioan gertatutako etengabeko handiagotzea ikusirik, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko asmoz, 1913an Ferrocarril de Amorebieta a Gernica y Luno y Pedernales izenekoak lurrun lokomotora berri bat erostea erabaki zuen, potentzia handiagokoa eta azkarragoa. Lokomotora horrek, gainera, lurrunezko berokuntza sistema eta hutsezko balazta automatikoz hornitutako beharrezko ekipoak zeuzkan, bai eta garai hartan erositako bidaiari koitxe berriek izan ohi zituzten sistema guztiak ere.

Makina berriaren eskaria Berlingo A. Borsig etxe ospetsu alemaniarrari egin zitzaion. 8.798 fabrika zenbakidun lokomotora hark, aurrekoek bezalaxe, hiru ardatz akoplatu zeuzkan, eta 4 zenbakia-rekin matrikulatu zuten. Konpainia ustiatzailearen kudeatzaile na-

rimentando la «Zugastietia» grandes reparaciones en 1947 y en 1953. Por su parte, la «Guernica y Luno» fue reconstruida en 1950 en los Astilleros de Murueta.

A finales de los años cuarenta la locomotora «Múgica» ya había sido definitivamente dada de baja, mientras que la «Guernica y Luno» fue retirada del servicio en 1953. Ambas fueron desguazadas en 1960 y 1966 respectivamente. Por su parte, la «Zugastietia» corrió mejor suerte, ya que encabezó buena parte de los trenes de trabajos en las obras de prolongación de la línea a Bermeo. Posteriormente quedó apartada en la estación de Guernica hasta que en 1962 fue remitida a los talleres de La Casilla para su adecentamiento, ya que iba a ser expuesta en Bilbao con ocasión de una exposición conmemorativa del centenario del ferrocarril en Vizcaya. Con este motivo, y dado que se pretendía presentar a esta máquina como la que inauguró el ferrocarril a la villa foral, se procedió a su reenumeración, pasando a matricularse como N° 1.


Finalizada la exposición, la «Zugastietia» retornó a Guernica, donde quedó nuevamente apartada. En 1973 fue enviada a la estación de Durango, donde fue deteriorándose progresivamente hasta que en 1992 fue definitivamente preservada por el Museo Vasco del Ferrocarril, institución que tres años más tarde procedió a su restauración integral. En la actualidad, la «Zugastietia» es una de las pocas locomotoras de vapor construidas en el siglo XIX operativas en Europa, circulando ocasionalmente entre la sede del Museo en Azpeitia (Guipúzcoa) y la estación de Lasao en cabeza de trenes especiales.

## LA «GANDARIAS»

Debido al progresivo incremento del tráfico de viajeros, y con el fin de mejorar la calidad del servicio, la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales optó en 1913 por adquirir una nueva locomotora de vapor, de mayor potencia y velocidad, dotada además de los equipos necesarios para el suministro de calefacción de vapor y de freno automático de vacío, sistemas con los que también contaban los nuevos coches de viajeros comprados en esta misma época.

El encargo de la nueva máquina recayó en la reputada casa alemana A. Borsig de Berlín. Con el número de fábrica 8.798, esta locomotora, que al igual que sus antecesoras era de tres ejes acoplados, fue matriculada con el N° 4 y bautizada con el nombre «Ganda-

“GANDARIAS” LURRUN  
 LOKOMOTORAREN ESKEMA. PEDRO  
 PINTADO QUINTANAREN MARRAZKIA.  
 ESQUEMA DE LA LOCOMOTORA DE  
 VAPOR “GANDARIAS”. DIBUJO DE  
 PEDRO PINTANDO QUINTANA.



“GANDARIAS” LOKOMOTORA GERNIKAKO  
 GELTOKIAN SARTZEN, TREN BATEN BURUAN.  
 GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN  
 ARTXIBATEGIA.  
 LA “GANDARIAS” EFECTÚA ENTRADA EN  
 LA ESTACIÓN DE GUERNICA A LA CABEZA  
 DE UN TREN. ARCHIVO GERNIKAZARRA  
 HISTORIA TALDEA.

gusien omenez, «Gandarias» izena jarri zioten. Entrega 1914ko otsailaren 24an burutu zen.<sup>183</sup>

Bazituen kanpoko zilindroak eta banaketa, lurrun asedun lokomotora zen, eta bidaiarientzako trenak atoiari eraman ohi zituen lokomotora bat baino maniobra-makina baten antza handiagoa zuen. Ondorengo hauek ditugu lokomotora haren ezaugarri teknikoak:

#### Zornotza eta Sukarrieta arteko Trena, «Gandarias» 4 zenbakidun lokomotora

Nork fabrikatua	A. Borsig (Berlin)
Noiz fabrikatua	1914
Fabrika zenbakia	8.798
Trenbide zabalera	1.000 milimetro
Errodajea	030T
Topeen arteko distantzia	7.750 milimetro
Muturreko ardatzen arteko distantzia	3.100 milimetro
Gurpil akoplatuen diametroa	1.000 milimetro
Pisua hutsik	23.000 kilogramo
Pisua zerbitzuan	28.000 kilogramo
Erregai edukiera	1.500 kilogramo
Ur edukiera	2.500 litro
Balazta sistema	Hutsezko automatikoa eta torlojuduna
Abiadura maximoa	40 kilometro orduko
<b>Sutegia</b>	
Luzera	1.180 milimetro
Zabalera	855 milimetro
Berotze azala	5,49 metro karratu
<b>Galdara</b>	
Lurruna	Asea
Galdararen luzera osoa	3.775 milimetro
Gorputz zilindrikoaren luzera	2.650 milimetro
Diametroa	1.102 milimetro
Hodi-kopurua	134
Hodien diametroa	46 milimetro
Hodien luzera	2.650 milimetro
Zeharkako kalefakzioaren azala	50,71 metro karratu
Timbrea	12 kilogramo zentimetro karratuko
<b>Zilindroak</b>	
Diametroa	360 milimetro
Ibil-bitartea	500 milimetro
Banaketa	Zilindrikoa

<sup>183</sup> Dietrich Kutschik, *Lokomotiven von Borsig*, 330. orr.

rias», en homenaje a los principales gestores de la compañía explotadora. Fue entregada el 24 de febrero de 1914.<sup>183</sup>

Dotada de cilindros y distribución exteriores, era una locomotora de vapor saturado cuyo aspecto más se correspondía al de una máquina de maniobras que a la de una destinada a remolcar trenes de viajeros. Sus características técnicas eran las siguientes:

#### Ferrocarril de Amorebieta a Pedernales, locomotora N° 4 «Gandarias»

Constructor	A. Borsig (Berlín)
Año de construcción	1914
Número de construcción	8.798
Ancho de vía	1.000 milímetros.
Rodaje	030T
Distancia entre topes	7.750 milímetros.
Distancia entre ejes extremos	3.100 milímetros.
Diámetro de ruedas acopladas	1.000 milímetros.
Peso en vacío	23.000 Kilogramos.
Peso en servicio	28.000 Kilogramos.
Capacidad combustible	1.500 Kilogramos.
Capacidad de agua	2.500 litros
Freno	Automático de vacío y husillo
Velocidad máxima	40 Kilómetros por hora.
<b>Hogar</b>	
Longitud	1.180 milímetros.
Ancho	855 milímetros.
Superficie de caldeo	5,49 metros cuadrados.
<b>Caldera</b>	
Vapor	Saturado
Longitud total de la caldera	3.775 milímetros.
Longitud del cuerpo cilíndrico	2.650 milímetros.
Diámetro	1.102 milímetros.
Número de tubos	134
Diámetro de los tubos	46 milímetros.
Longitud de los tubos	2.650 milímetros.
Superficie de calefacción indirecta	50,71 metros cuadrados.
Timbre	12 kilogramos por centímetro cuadrado.
<b>Cilindros</b>	
Diámetro	360 milímetros.
Carrera	500 milímetros.
Distribución	Cilíndrica

<sup>183</sup> Dietrich Kutschik, *Lokomotiven von Borsig*, p. 330.

Bidaiarientzako tren gehien titular ukazina izan zen lokomotora hori, baina gehiegi erabili izanenez, behar baino lehenago zahartu zen. Euzkadiko Bitarteko Jaurlaritzak (Euskadiko behin-behineko gobernuak) burututako txostenean erabat erabilgaitza zela adierazten zen, eta gerraostean azaleko konponketa egin bazioten ere, galdaran sortutako zenbait arazo zirela medio, 1945ean zerbitzuz kanpo utzi zuten berriro ere. Nahiz eta hasierako asmoa ekipo hura berregitea izan, behin desmuntatu eta gero bere horretan gelditu zen. Lokomotoraren xasisa alboratuta utzi zen Gernikan eta geroago Zugaztietan, eta azkenez, 1970ean, deuseztatu egin zuten.

Titular indiscutible de la mayor parte de los trenes de viajeros, esta locomotora sufrió un envejecimiento prematuro debido a su intensiva utilización. El informe realizado por el Gobierno Provisional de Euzkadi declaraba que se encontraba totalmente inútil, y a pesar de que fue someramente reparada tras la guerra, en 1945 estaba nuevamente fuera de servicio por problemas en su caldera. Aunque este equipo se desmontó para su reconstrucción, finalmente no se completó la operación, por lo que el chasis de la locomotora quedó apartado, primero en Guernica y posteriormente en Zugastieta, hasta que fue definitivamente desguazado en 1970.



GANDARIAS LOKOMOTORAK ISTRIPUA  
IZAN ZUEN LINEAKO ANTZINAKO  
LOKOMOTORA BATEKIN, 1924AN.  
GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEAREN  
ARTXIBATEGIA.  
LA GANDARIAS SE VIO IMPLICADA EN  
UNA COLISIÓN CON UNA DE LAS  
PRIMITIVAS LOKOMOTORAS DE LA LÍNEA  
EN 1924. ARCHIVO GERNIKAZARRA  
HISTORIA TALDEA.



## IKATZAREN ARAZOA

Euskal Herriko trenbide estuko tren gehienen antzera, Zornotza eta Sukarrieta artekoak Britainia Handitik ekarritako ikatzak erabili ohi zituen, izan ere, ikatz haiek oso estimatuak ziren, kalitate handikoak, bero-ahalmen altukoak eta zepa-maila txikikoak baitziren, eta euren prezio altuagoa soberan konpentsatuta geratzen zen. Baina lehen mundu gerrak erabat aldatu zuen egoera hura, Alemaniako itsaspekoen jarduerak itsas merkataritza geldiarazi baitzuen britainiar uharteetan, eta horregatik ikatz estimatu hura erosten zuten ohiko bezeroak merkatu nazionalera zuzendu behar izan ziren nahitaez. Hala ere, estatuko meatzaritza ez zegoen behar bezala prestaturik, eta ezin izan zion erantzun bezero kopuruaren bat-bateko areagotze hari. Horrek eskaintzaren eta eskariaren arteko orekaren etena eta ondoriozko prezioen eskalada eragin zuen. Adibide modura nahikoa da adieraztea 1913an Ingalaterrako harrikatzen tona metrikoko 28 pezeta balio zuela, aldiz Leonekoak, meatzean bertan erositak, 18,6 pezeta. 1918an, ia ez zegoen erregai britainiarrik merkatuan, eta penintsulako portuetara iristea lortzen zuten sorta bakanak tona metrikoko 250 pezeta baino gehiagotan saltzen zituzten. Estatuko ikatzari zegokionez, tona metrikoko 60 pezeta inguru balio zuen.

Erregaiaren prezio igoera eta kalitate jaitsiera ez ziren arazo bakarrik, merkatuan zegoen eskasia agerikoa zen eta. Horregatik eta ikatz gabezia handia zegoela ikusirik, Ferrocarril de Amorebieta a Gernica y Luno y Pedernales izenekoak, estatuko tren-enpresa gehienek bezalaxe, bertan behera utzi behar izan zuen hainbat tren zerbitzu, eta gainera, lokomotoren galdaratan egurra erretzen hasi behar izan zuten.

Behin gerra hura amaitu eta gero, ikatz horniduraren egoera bere onera itzuli zen, eta jatorrizko britainiarra zuen ikatzaren kontsumoa ohizkoa izan zen berriro ere 1926. urtera arte. Urte hartatik aurrera Zornotza eta Sukarrieta arteko trenaren lokomotoren galdaratan estatuko meatzetatik ateratako ikatza kontsumitzeari ekin zitzaion berriro ere, horixe baitzen, hain zuzen, Trenbidearen Estatutu berriaren barnean kide gisa onartua izan zedin, estatuak enpresari eskatutako eta nahitaez bete beharreko baldintzetako bat.

Gerra zibilaren ondoren, Europa bigarren mundu gerran sartuta zegoen, eta berriro agertu zen erregai eskasaldi larria. Egoera hark 40ko hamarkadaren amaierara arte iraun zuen. Horrela, 1947ko martxoaren 1ean, linearen ingeniari arduraduna zen Narciso Buesak telegrafoaren bidez komunikatu bat bidali zion “Explotación

## EL PROBLEMA DEL CARBÓN

Al igual que la mayor parte de los ferrocarriles de vía estrecha del País Vasco, el de Amorebieta a Pedernales utilizaba habitualmente carbones procedentes de Gran Bretaña, los cuales eran muy apreciados debido a su gran calidad, elevado poder calorífico y bajo nivel de escorias, lo que compensaba con creces su mayor precio. El inicio de la primera guerra mundial modificó por completo la situación, ya que la actividad de los submarinos alemanes llegó a paralizar el comercio marítimo con las islas británicas, obligando a los tradicionales clientes de su apreciado carbón a dirigirse al mercado nacional. Sin embargo, la minería estatal no estaba preparada para hacer frente al repentino incremento de la cartera de clientes, lo que supuso la ruptura del equilibrio entre la oferta y la demanda y la consiguiente escalada de precios. Como ejemplo es suficiente señalar que en 1913 la hulla inglesa costaba 28 ptas./Tm., mientras que la leonesa, a pie de mina, tenía un precio de 18,6.- ptas. En 1918, el combustible británico casi había desaparecido del mercado y las escasas partidas que lograban llegar a los puertos de la península alcanzaban un precio superior a las 250.- ptas./Tm., mientras que el mineral de origen nacional tenía un coste próximo a las 60.- ptas./Tm.

Pero el problema no se encontraba únicamente en el encarecimiento del combustible y su menor calidad, sino en su manifiesta escasez en el mercado, por lo que la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno y Pedernales, al igual que la mayor parte de las empresas ferroviarias del Estado, se vio en la obligación de suprimir algunos trenes por falta de carbón e incluso tuvo que recurrir a la quema de leña en las calderas de sus locomotoras.

Finalizado el conflicto bélico, la situación del suministro de carbón quedó normalizada, volviendo a consumir de manera habitual el de procedencia británica hasta el año 1926. A partir de esta fecha las calderas de las locomotoras del ferrocarril de Amorebieta a Pedernales volvieron a consumir carbón de origen nacional, ya que ésta era una de las condiciones exigidas por el Estado para admitir a la empresa en el seno del nuevo Estatuto Ferroviario.

Tras la guerra civil, y con Europa inmersa en la segunda guerra mundial, volvió a vivirse un nuevo periodo de grave escasez de combustible, situación que se prolongó hasta bien avanzados los años cuarenta. Así, el 1 de marzo de 1947 el ingeniero responsable de la línea, Narciso Buesa, telegrafiaba a la jefatura de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado en Madrid anunciando que las

de Ferrocarriles por el Estado” izeneko konpainiaren buruzagitzari Madrilén. Jakinarazpen horretan geratzen ziren ikatz erreserbek hiru egunetarako zerbitzua besterik ez zutela bermatzen adierazten zen. Gainera, baldin eta berehalako ikatz sortarik jasotzen ez bazuten, halaberrez martxoaren 4an tren zerbitzu guztiak bertan behera utzi beharko zituztela aipatzen zuten. Dena den, azken unean nolabaiteko irtenbidea bilatu zioten egoera larri hari, eta hilarren 3an Leoneko harrikatzez beteriko bagoi bat heldu zen Gernikara, hala ere, apirilaren hasieran berriz ere arazo berbera izan zuten, eta horregatik hil horren 2tik aurrera lokomotorek egurra errez zirkulatu behar izan zuten, beti ikatz briketaz beteriko bagoiaren baten zain.

reservas de carbón únicamente garantizaban poder mantener el servicio durante tres días. De no recibir de inmediato alguna partida, el día 4 de marzo se verían en la obligación de paralizar la circulación de trenes. La situación se solucionó en el último momento, al llegar a Guernica el día 3 un vagón cargado de hulla leonesa, sin embargo, el problema volvió a reproducirse a principios de abril, por lo que el día 2 de este mes las locomotoras se vieron obligadas a funcionar quemando leña a la espera de la recepción de un vagón de briquetas.



12 ZENBAKIKO LOKOMOTORA  
ZORNOTZAKO GELTOKIAN. IKATZ  
BRIKETEZ GAINEZKA DAGOEN TENDERRA  
IKUSTEN DA. ARGAZKIA, L. G. MARSHALL.  
LOCOMOTORA N° 12 EN LA ESTACIÓN DE  
AMOREBIETA. SE APRECIA EL TÉNDER  
REBOSANTE DE BRIQUETAS DE CARBÓN.  
FOTO, L. G. MARSHALL.

## VASCO-NAVARRO TRENAREN LOKOMOTORAK

Behin linearen konfiskazioa gertatutakoan, Sukarrietako trenaren lokomotora parke txikia indartzea izan zen “Explotación de Ferrocarriles por el Estado” konpainiaren hasierako arduratako bat. Izan ere, trenak urte askotan gehiegizko ustiapena jasan eta mantentze urria izan zuen, eta egoera kaskar samarrean zegoen. Hala eta guztiz ere, Ibaizabal ibaiaren gaineko zubiaren kontserbazio egoera eskasa zela eta, pisu handiko lokomotorek ezin zuten bertatik igaro. Hortaz, hasiera batean, zaharren antzeko ezaugarriak zituzten zenbait makina arin ekarri zituzten.

Sukarrieta trenaren motor parkea indartzeko asmoz, lehenbizi Vasco-Navarro trenaren 2 eta 4 zenbakidun lokomotorak ekarri zituzten, «Laurak Bat» eta «Vitoria» izenekoak, hurrenez hurren. 1887an linea horren lehengo emakidadunak Falcon etxe britainiarrean erositako lau makinetak bi ziren unitate haiek.<sup>184</sup> Baina bi unitateak oso kontserbazio egoera txarrean zeuden, eta, gainera, erregai zein lubrifikatzaile gehiegi kontsumitzen zuten, eta, ardatz-arte luzeagokoak zituztenez, ez ziren sartzen erabiltzen ziren plaka birakari estu haietan. Gerra amaitu ondoren, berehala itzuli zitzaion «Laurak Bat» lokomotora bere jatorrizko lineari, eta beste horrenbeste gertatu zen «Vitoria» makinarekin 1945ean.

Bestelako modelo batekoa, baina hori ere hiru ardatz akoplaturekin, 5 zenbakidun lokomotora, «Mondragon» izenekoak izan zen. Vasco-Navarro trenaren lokomotoren parkean ekarri zuten, eta Bermeorako luzapen lanetan hartu zuen parte. Makina hori Manning Wardle & Co enpresa britainiarrak fabrikatu zuen 1889an, 1.129 fabrika-zenbakiarekin, 1955eko irailaren 1ean itzuli zuten lokomotora bere jatorrizko lineara.

Gerra zibilaren ostean, Ibaizabal ibaiaren gaineko zubia berreraiki zutenez geroztik, pisuaren inguruko eragozpenak desagertu egin ziren. Horregatik, Explotación de Ferrocarriles por el Estado konpainiak Sukarrietako tren linea indartzeko aukera izan zuen, eta Vasco-Navarro trenaren ibilgailu parkeko hainbat lurrin lokomotora ekarri zituen, tamaina zein potentzia handiagokoak, jatorrizko linea elektrifikatu ondoren soberan zeudenak. Zehatzago esanez, 1922 eta 1928 bitartean Bartzelonako Maquinista Terrestre y Marítima enpresak sorta batean fabrikatutako zazpi makina ziren, eta 141etik 145era eta 390-391 fabrika zenbakiak eta 11tik 17ra arteko zenbaki matrikulak zituzten.<sup>185</sup>

## LAS LOCOMOTORAS DEL VASCO-NAVARRO

Una vez incautada la línea, una de las primeras preocupaciones de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado fue la de reforzar el pequeño parque motor del tren de Pedernales, muy deteriorado tras largos años de sobreexplotación y escaso mantenimiento. Sin embargo, debido al deficiente estado de conservación del puente sobre el Ibaizábal no era posible admitir el paso de locomotoras pesadas, por lo que en un primer momento se recurrió a máquinas ligeras de características similares a las ya existentes.

Las primeras locomotoras que reforzaron el parque motor del tren de Pedernales fueron las número 2, «Laurak Bat», y 4, «Vitoria», del ferrocarril Vasco-Navarro, unidades pertenecientes a un lote de cuatro máquinas adquiridas por el antiguo concesionario de esta línea en 1887 a la casa británica Falcon.<sup>184</sup> Sin embargo, el estado de conservación de ambas unidades era muy deficiente, acusando por ello un elevado consumo de combustible y lubricantes, mientras que como consecuencia de su mayor empuje, no cabían en las pequeñas placas giratorias disponibles. Finalizada la guerra la «Laurak Bat» fue devuelta de inmediato a su línea originaria, sucediendo lo propio con la «Vitoria» en 1945.

De un modelo diferente a las dos anteriores, pero también de tres ejes acoplados era la locomotora número 5 «Modragón». Perteneciente al parque de locomotoras del ferrocarril Vasco-Navarro participó en las obras de prolongación a Bermeo. Esta máquina, construida por la empresa británica Manning Wardle & Co en 1889 con el número de fábrica 1.129, fue devuelta a su línea originaria el 1 de septiembre de 1955.

A partir de la reconstrucción del puente sobre el Ibaizábal tras la guerra civil, desaparecieron las limitaciones de peso existentes, por lo que la Explotación de Ferrocarriles por el Estado pudo reforzar el tren de Pedernales con locomotoras de vapor de mayor envergadura y potencia, también procedentes del ferrocarril Vasco-Navarro, excedentes tras la electrificación de su línea originaria. Se trataba en concreto de un lote de siete máquinas construidas en Barcelona por la Maquinista Terrestre y Marítima entre 1922 y 1928, con los números de fábrica 141 a 145 y 390-391, matriculadas del número 11 al 17.<sup>185</sup>

<sup>184</sup> Lokomotora horiei buruz gehiago jakiteko: Juanjo Olaizola, *Vasco-Navarro Trena* 177. orr.

<sup>185</sup> Lokomotora horiei buruz gehiago jakiteko: Juanjo Olaizola, *Vasco-Navarro Trena*, 120. eta 121. orr.

<sup>184</sup> Sobre estas locomotoras ver Juanjo Olaizola, *El ferrocarril Vasco-Navarro*, p. 177.


<sup>185</sup> Sobre estas locomotoras ver Juanjo Olaizola, *El ferrocarril Vasco-Navarro*, pp. 120-121.

Zerbitzuaren gorabeherak beharturik, Explotación de Ferrocarriles por el Estado konpainiak jatorrizko trenaren (Zornotza - Sukarrieta) eta Castro - Traslaviña trenaren arteko lokomotora trukeak maiztasun handiz egin zituen, nekez egiazta dezakegu zein izan zen zazpi makina haien presentzia zehatza linea honetan. Dena dela, gure esku daukagun dokumentazioari esker,<sup>186</sup> 13 zenbakiduna izan ezik, sorta hartako makina guztien presentzia baiezta dezakegu aldi luze zein laburretan.

Jarraian agertzen zaigu Maquinista Terrestre y Marítima enpresak Vasco-Navarro trenarentzat fabrikatutako lokomotoren eboluzioa Zornotza eta Sukarrieta arteko linean:

El intercambio de estas locomotoras, según las necesidades del servicio de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado, entre su ferrocarril originario, el de Amorebieta a Pedernales y el de Castro-Traslaviña fue constante, por lo que resulta sumamente difícil confirmar la presencia exacta de cada una de ellas en la línea objeto de este trabajo. No obstante, gracias a la documentación disponible<sup>186</sup> es posible constatar la presencia, durante periodos más o menos prolongados, de todas las máquinas de esta serie, salvo la número 13.

La evolución de las locomotoras construidas por la Maquinista Terrestre y Marítima para el ferrocarril Vasco-Navarro en la línea de Amorebieta a Pedernales fue la siguiente:



VASCO-NAVARROAREN 11 TIK 17 RA ARTEKO SERIEEN LURRUN LOKOMOTOREN ESHEMA. PEDRO PINTADO QUINTANAREN MARRAZKIA.

ESQUEMA DE LAS LOCOMOTORAS DE VAPOR DE LA SERIE 11 A 17 DEL VASCO-NAVARRO. DIBUJO DE PEDRO PINTADO QUINTANA.

<sup>186</sup> Javier José García Sánchez jaunak adikortasunez emandako dokumentazioa.

<sup>186</sup> Documentación amablemente facilitada por Javier José García Sánchez.

## 11 zenbakidun Lokomotora

Makina hori 1938ko ekainaren 16an iritsi zen lehenengo aldiz Sukarrieta lineara, eta bertan zirkulatu zuen 1940ko abenduaren 12ra arte, egun Gasteizera eraman baitzuten konpontzera. 1944ko maiatzaren 1ean Gernikara ekarri zuten berriro ere, eta Sukarrietako linean aritu zen 1948ko apirilaren 12ra arte. Egundorretan Vasco-Navarro trenari itzuli zitzaion.

Bermeorako linearen luzapena zela eta, 11 zenbakidun lokomotora berriro eraman zuten Gernikara, eta bertan aritu izan zen, mota guztietako trenak atoiar eramanen 1965. urtearen amaierara arte. Ondoren alboratu egin zuten hiribilduko tailerretan, eta azkenean, 1973ko martxoaren 8an, Gipuzkoako Oñatiko udalari eman zioten, monumentu gisa jar zezan tren geltoki zaharraren ondoan.<sup>187</sup> Geroztik lokomotora hori herri horretako tren historiaren zati bilakatu da, 1986 eta 1990en bitartean izan ezik, garai horretan Ferrocarriles Vascongados enpresan jatorria zuen beste makina batek ordezkatu baitzuen.<sup>188</sup>

## 12 zenbakidun Lokomotora

Hori dugu Sukarrietako lineara ekarri zuten mota horretako lehenengo lokomotora. 1938ko maiatzaren 25ean iritsi zen Gernikara, Ibaizabal ibaiaren gaineko zubi konpondu berriaren gainean karga frogak egin zitzaion. 1940ko irailaren 12an Gasteizera eraman zuten berriro, eta handik Errioxako Calahorra eta Arnedillo arteko trenara pasa zen.

1945ean Sukarrietako lineara ekarri zuten berriro ere, eta urtebete beranduago altxatu eta Gernikako tailerretara eraman zuten konpontzeko. 1947ko maiatzaren 10ean konpontzera eraman zuten Gasteizera, eta 1948ko otsailaren 27an ekarri zuten bueltan. Geroztik, 12 zenbakidun lokomotorak erregulartasunez eskaini zuten zerbitzua Sukarrietako trenan 1959ko uztailearen 8ra arte. Egundorretan bere jatorrizko trenari itzuli zioten berriro ere.

Oraindik begien aurrean banu legez ikusten dut Galdakao inguruan ibaia, behin trenetik ikusi nuen legez. Hantxe ziren jende batzuek uretara salto egiten. Handik denbora batera errekan ez zen inor berriro uretan igerian ikusi. Industrializazioa. Paper-fabrikak isurtzen zuen bitsak hondaturik utzi zuen ura. Tarteka gauza zuri hura ikusten zen, han eta hemen, ur azalean flotatzen. Ordurako ikaskideekin egiten genituen kolegiotik joan-etorriak. Gabonetan, Aste Santuan eta udaren atarian. Ahal genuela, bagoiaren kanpoko plataforman joaten ginen, haizea arnasten. Plataforma haiek askatasunaren inudia ziren. Western filmetan agertzen zirenen berdin-berdinak.

Behin asteburu luze bateko zubia eman ziguten, libre; Domu Santukoa. Gernikako azken astelehenari zegokiona zen. Tarte batez trena geldu egon zen, eta orduan Pedrok “Gernikako azken astelehena”, esan zuen. Denbora igarota, urriko astelehenetan Gernikara joatea izaten zen gure atsegina. Eta denbora luzeago igarota, alabarekin trenez joatea, zein atsegin ederra. Niretzat txikitari legez, harentzat ere trenak munduaren giltza zeukan. Sudurra leihoari itsatsita, denarekin egiten zen mira, eta denari buruz galdetzen zidan.

Oso gaztetatik, oporraldietan trenbidera joaten ginen. Tumeletan ibiltzera. Eta mailukiak batzera baita ere. Honetan trebea lehengusua izaten zen. Berak zekien landarea bereizten, berak leku egokietan begiratzen, berak mailuak gero belar luzetxo batean sarturik sortak osatzen. Sortako mailukiak denak batera jatea, hura plazera gero. Behin, oster, beste fruitu gorrixka haiek jatera ausartu ginen. Gurbitz garauak ziren. Betekada galanta eginda, handik lasterrera gehienok oka egin genituen garauok. Hordigarriak omen dira.

Neskatan hasi ginenean Jeanette izeneko kantari baten loriazko uda izan zen. “Callate niña”, kantatzen zuen. Neskuts halako baten kasik umeahotsaz. Ez ginen hura entzuten inoiz nekatzen. Orduan maitemindu ginen gu lehenengoz. Min mingarriz behintzat. Trenean joaten ginen neskatan. Bermeora. Eta neskak trenez etortzen ziren. Mundakara. Mutiletan. Ez ginen neskei pauso batera baino gertuago urreratzen ausartzen. Pauso hura eman nuenean neskak ezetz esan zidan. Handik aurrera tre-

*Amorebieta y tuvimos que pasar las maletas, el colchón y todo lo demás, de un tren al otro. Recuerdo que unos años más tarde mi madre y yo nos encontramos con una vecina del pueblo. Al parecer, venía de un funeral. Del funeral de un militante político, más concretamente. Al escuchar las palabras de aquella señora mi madre se asustó. Entonces la señora le dijo a mi madre “No pueden entrar en la iglesia”. Eran los tiempos del cambio político.*

*Todavía veo el río en los alrededores de Galdakao como si lo tuviera ante mis ojos. Como cuando lo vi por primera vez desde el tren. Algunas personas saltaban al agua. Al cabo de un tiempo ya no se veía a nadie bañarse en el río. La industrialización. La espuma que arrojaba la papelera contaminó el agua. A intervalos, aquí y allá se veía flotando en el agua aquella cosa blanca. Para entonces hacía con mis compañeros los viajes al colegio. En Navidades, en Semana Santa y a las puertas del verano. Y si podíamos viajábamos en la plataforma exterior del vagón, sintiendo el aire. Aquellas plataformas eran una imagen de libertad. Iguales a las que aparecen en las películas del Oeste.*

*Un día nos concedieron libre el puente de un largo fin de semana. El de Todos los Santos, el que correspondía con el último lunes de Gernika. El tren se detuvo un momento y Pedro dijo “Último lunes de Gernika”. Con el paso del tiempo, acudir a Gernika los lunes de octubre era todo un placer. Y pasado el tiempo acudir en tren con la hija, qué placer más hermoso. Pegada la nariz a la ventanilla, fijándose en todo y preguntándose a cerca de todo.*

*Desde muy jóvenes, en vacaciones íbamos a la vía del tren a pasear por los túneles. Y también a recoger fresas. En eso mi primo era muy hábil. Sabía diferenciar la planta, rebuscar en el lugar adecuado, y una vez recogida la fresa atravesarla con una hierba fina formando largos racimos. ¡Que placer comer más tarde todas las fresas del racimo a la vez! Otra vez, sin embargo, nos atrevimos a comer aquellos otros frutos de color rojo. Eran frutos de madroño, comimos hasta hartarnos, pero al poco tiempo vomitamos hasta el último fruto ya que, al parecer, producen embriaguez.*

*Empezamos a andar con chicas el verano en el que triunfaba una cantante llamada Jeanette. Cantaba “Cállate niña” con una casi virginal voz de niña. No nos cansábamos de escucharla. Entonces nos enamoramos, apasionadamente, por primera vez. Íbamos en tren a ligar a Bermeo. Y las chicas también venían en tren de Bermeo. No nos atrevíamos a acercarnos a más de un paso de las chicas. Y cuando, al fin, di ese paso, la chica me dijo que no. A partir de entonces, y a la vez que nos llevaba de un lado a otro, el tren se convirtió en nuestro acarreador de sueños.*

na izan zen gure ametsen garraiolaria, gu geu hara eta hona eroaten gintuen heinean.

Trena geltokira iristen zenean hantxe egoten zen neska hura, bere praktak aldean. Maitemindu egin nintzen. Bigarrenez. Eta neska hura ziur-ziur geltokian ikusten nuen, bizitzako unerik inportanteena trena geltokian gelditzen zenekoa izaten zen. Haren begi ilun-sakonek nire oin-nasa zapaldu orduko kateatzen ninduten.

Oroimenean, denboraren orratzak ez dira artezak. Sasiak legez korapilatzaren dira, elkarrekin nahastuz eta elkar gurutzatuz. Halako batean Isabelita haren ordezkari gasoliozko makina ekarri zuten. Harekin batera makinista berria etorri zen, seme bat zekarrena. Egun batean semeak eta beste lagun batek motorra lapurtu zuten. Jaietan. Ez zuten bostehun metro baino egin, herioak bidea moztu zienean. Han egin ziren biak, trenaren bidea luze-luze ikusten den bihurtu hartan. Jose Felix eta Jose Ignazio ziren. Motorra osteko adinean izan baziren seinale ordurako country musika, Dylan, Joan Baez, Pete Seager, Beatlesak, Rollingak eta rokaren adarretako kantuarik entzuten hasiak ginela. Bazen ba sexuari bidea emateko ordua. Horren ametsetan genbiltzala, trena elektrifikatu egin zuten. Aldaketa hori mingarri egin zitzaidan. Nahiago nuen lehengoa. Ez genion erabiltzeari utzi, horregatik.

Denbora batez gure ordutegia, asteburuetako ordutegiak, mugari bi izaten zituen; lau t'erdietako trena, joanekoa, eta hamarretakoa, etorrikoa. Lehenik karta jokoa, gero zinea, haren ostean dantza eta, azkenik, berriro trenera. Neskaren batekin maitemindurik beti. Athleticek batzuetan irabazi eta besteetan galdu egiten zuten, beti bezala.

Domeka gauetako trenean, hamarretakoan, erreboluzioa izaten zen. “Fidel, Fidel, que tiene Fidel, que los americanos no pueden con él!”, kantu egiten genuen. Horixe zen gure protesta bidea. Trena mandaz manda mugitzen zen –arrantzaleen hizkeran, alboz albo-, halako modu bizian non gaitz izaten zen zutunik eustea. Baina horixe izaten zen apustua domeketan gaueko azken trenean; zutunik eustea. Eta “los ejes de mi carreta” kantatzea. Hori ere, protesta kantua. “Si a mi me gusta que suenen, ¿por qué los voy a engrasar?”, gailurrean treneko hit-parade hartan

Kantuan grinatsuen jardun izaten zutenak, gernikarrak! Gu herriko geltokian uzten gintuzten, eta eurak aurrera beste hoge minutuz. Egun batean haietako bat desagertu egin zen. Ez zen berriz itzuliko. Txapelokerrak etxera bila joan eta, pistola atera omen zien. Beste aldera ihes egin zuten. Mozkortierna zirudiena, hara! Itxurak egiten zituen, antza, mundu honetan ardura zion bakarria edatea eta lagunaren artean kantuan egitea zela. Bai zera.

Allí estaba ella, con sus pantalones rojos, cuando el tren llegaba a la estación. Me enamoré de nuevo, por segunda vez. Y como seguro que la veía en la estación el momento en el que el tren llegaba a la estación se convirtió en el más importante de mi vida. Sus profundos ojos oscuros me atraían en cuanto pisaba el andén.

Las huellas del tiempo no son claras en la memoria. Se enredan como las zarzas, mezclándose y cruzándose. Un día sustituyendo a “Isabelita” trajeron una nueva máquina, y con ella llegó también un nuevo maquinista. Traía consigo a su hijo. Un día, en fiestas, el hijo el maquinista y un amigo robaron una moto. No hicieron ni quinientos metros. La muerte les cortó el camino, allí quedaron tendidos en ese cruce en el que se ve la larga vía del tren. Eran Jose Felix y Jose Ignacio. Si ya era época de robar motos, seguro que para entonces ya habíamos comenzado a escuchar las primeras canciones de rock y música country Dylan, Joan Baez, Pete Seager, Beatles, Rolling... Ya era hora de iniciarse en los placeres del sexo, Mientras soñábamos con ello llegó el tren eléctrico. Me dolió el cambio, prefería el anterior, el de siempre, y por eso no dejamos de utilizarlo.

Durante un tiempo, nuestro horario de fin de semana tuvo dos referencias: El tren de ida de las cuatro y media, y el tren de vuelta de las diez. Primero a echar la partida, luego el cine, después a bailar, y para terminar, vuelta al tren. Siempre enamorado de alguna chica. El Athletic algunas veces ganaba y otras perdía, como siempre.

El tren de las diez de los domingos a la noche era la revolución: “Fidel, Fidel, que tiene Fidel, que los americanos no pueden con él” cantábamos. Era nuestra forma de protestar. El tren se movía balanceándose, mandaz manda, como dicen los arrantzales, y era casi imposible mantenerse de pie. Y esa era precisamente la apuesta que hacíamos en el último tren de la noche del domingo: A ver quien aguanta de pie. Y cantar “los ejes de mi carreta”, otra canción protesta en la cima de aquel hit-parade del tren: “Si a mi me gusta que suenen, ¿por qué los voy a engrasar?”.

Los de Gernika cantaban apasionadamente, nos dejaban en la estación del pueblo y ellos seguían otros veinte minutos más. Un día uno de ellos desapareció. No regresó. Fueron a buscarle los guardias civiles a casa y al parecer les sacó la pistola. Huyó al otro lado. Parecía el más borracho, ¡y mira! Disimulaba. Parecía que en este mundo sólo le preocupaba beber y cantar con los amigos, pero no era así.

Otro día, vi a una pareja de guardias civiles revisando con una linterna bajo los vagones. Nunca supimos si buscaban a algún loco escapado del psiquiátrico ó algún otro pasajero. ¿Podía en realidad alguien viajar tumbado bajo los vagones para conseguir huir? Aprendimos de verdad, que realmente podía hacerse.

Beste behin txapelokerrak ikusi nituen, bikotea, jakina, linternekin tren-bagoi denen azpiak banan-banan aztertzen. Zoroetxeko baten batek alde egina ote zen, ala bestelako pasaiariren bat bilatzen ote ziharduten, ez genuen sekula jakin. Joan ote zitekeen inor, joan, bagoi-azpiko burdinetan etzango eginda, ihes? Zinean baietz, posible zela ikasi genuen baina, erre-alitatean!

Egun batean Pedro Oleak 'La Casa sin fronteras' filmatu nahi izan zuen. Mundakan. Bada, filma hartako protagonistetako bat trenez dator herri-  
ra. Errealitatean bezala.

Bermeon, Gernikan, trenbidearen ertzetako herrietan 'trenak ekarrineko-  
ak' esaten zaie —orain gutxitan aditzen da halakorik, egia esan- gerraon-  
doko industrializazio haren eraginez lanera etorri zirenei. 'Koreanoak' ere  
esaten zitzairen. Garai hartan Koreako gerrako irudiak ikusten baitziren,  
No-Do haietan batez ere. Halakoetan ikusten zirenei eta trenean etorri-  
takoei norbait elkarren hartu zien eta, taka!, ezizena. Denentzat bat. Ar-  
tean maketo hitza bera ere indarrean zebilen. Ez dakit nork esan zidan  
hitza ez zela zuzena. Maketoak euskaraz egiten ez zuten euskaldunak  
—edo baskoak- zirela. Trenak ekarritakoak, koreanoak, maketoak. Zauria  
ez zen erraz sendatuko.

Eta gu, zer ginen? Zer ginen etxean hizkuntza bi egiten genuenok? Amak  
eta amamak euskaraz, aitak erdaraz egiten zuen. Baina aita ez zen korea-  
noa. Aita beste haiek baino lehenago etorria zen. Noiz? Etxean ez genekien  
oso zehatz. Gerraren ostean, eta preso. Horra genekien dena. Etxean ez zen  
politikaz egiten. Ezta iraganaz ere.

Hala bada, ez dakit noiz jabetu ginen. Gure aita preso egondakoa zenaz.  
Trenbidea egitera ekarri zuten. Eta kito. Urteak beharko ziren zerbait gehia-  
go esan ziezagun. Eta esan zigunenean ere, gutxi esan zigun. Historia ber-  
dina da trenera ekarri zuten beste presoan seme-alabena. Etxean, isiltasuna.  
Horixe izan zen frankismoa; harrien isiltasuna. Celso Emilio Ferreiren hi-  
tzetan, "harritzko gau luzea".

Harritzko gau luze hartan ere giza-bihotzek sistole eta diastole taupadak  
zituzten, ostera. Eta taupadotan odolak bere bidea egiten zuen. Grinak  
piztu erazten zituen. Grina horiexek aginduta nahastu ziren gerraondo-  
ko gizon gazte haien begiradak herrietako nesken begiradekin. Ezkontzak  
etorri ziren lehenik. Umeak gero. Preso egondakoen umeak. Gu geu. He-  
rriko beste edonor bezain euskaldun sentitzen ginenok. Baina denentzat  
ez zen erraza izan. Aitaren jatorriaren hura airean zebilen nire anaia-  
arrebak eskolara ibili ziren denboretan. Artean ere! Ez nuen ohartzeko as-  
tirik ukan, barnetegira eroan baininduten. Baina eurek bai, arnastu egin  
zuten. Airean zebilen huraxe, bai. Denok ez ginela berdinak, alegia.

Un día Pedro Olea quiso filmar en Mundaka la película "La casa sin fron-  
teras". Uno de los protagonistas del film llegaba al pueblo en tren, tal y  
como sucede en la realidad.

En Bermeo, Gernika y en los pueblos del borde de la vía del tren se llama  
"traídos por el tren" a quienes con motivo de la industrialización, vinieron  
buscando trabajo tras la guerra civil. También se les llamaba "Coreanos"  
porque en aquella época, sobre todo en aquellos No-Do, se veían imágenes  
de la guerra de Corea. Siempre había alguien que en cuanto veía a uno de  
aquellos traídos por el tren le encasquetaba el mote. Uno para todos. Por  
entonces la palabra "maqueto" también era muy habitual. Pero alguien me  
dijo que el término no era correcto. Maquetos eran los vascos que no habla-  
ban euskara. Coreanos los traídos por el tren. La herida no se iba a curar  
con facilidad.

Y nosotros, ¿Qué éramos? ¿Qué es lo que éramos quienes en casa hablába-  
mos dos lenguas? La madre y la abuela hablaban euskara, el padre sin em-  
bargo en castellano. Pero mi padre no era coreano. Mi padre había venido  
antes, pero ¿cuándo? En casa no lo sabíamos exactamente. Tras la guerra y  
como preso. Eso es todo lo que sabíamos. En casa nunca se hablaba de po-  
lítica, y tampoco del pasado.

De este modo, no sé cuándo supimos que mi padre había sido enviado a  
trabajar en la construcción del ferrocarril cuando estaba preso. Nada más.  
Tuvieron que pasar muchos años para que nos dijera algo más. Así y todo,  
cuando lo hizo no contó mucho más. Es la misma historia de hijos e hijas  
de otros presos traídos para la construcción del ferrocarril. En casa; silencio.  
Eso fue el franquismo: el silencio de las piedras. En palabras de Celso Emi-  
lio Ferreiro: la larga noche de piedra.

Sin embargo, en aquella larga noche de piedra, los corazones de las perso-  
nas también latían a ritmo de sístole y diástole. Y en cada latido la sangre  
completaba su camino y provocaba pasiones. Dirigidas por aquellas pasio-  
nes se mezclaron las miradas de aquellos hombres de la posguerra y aque-  
llas mujeres del pueblo. Primero llegaron las bodas. Más tarde los hijos. Los  
hijos de quienes habían estado presos. Nosotros, que nos sentíamos tan vas-  
cos como cualquier otro. Pero no fue fácil para todos. Esa procedencia de mi  
padre se comentaba cuando mis hermanos y hermanas iban a la escuela.  
Mientras tanto, yo era ajeno a todo ello porque me habían llevado al inter-  
nado. Pero ellos sí, ellos sufrieron los comentarios. Es decir, no todos éramos  
iguales.

Cuando estaba escribiendo la novela Azken fusila tenía una idea clara en  
la cabeza. La tragedia de la posguerra fue traer como presos a algunos de  
los perdedores de la guerra a un pueblo en el que la mayoría también ha-

'Azken fusila' eleberria idaztean ideia nagusi bat etorri zitzaidan, argiro, burura. Gerrastearen tragedia zera izan zen, gerran galtzaile izandako batzuk preso ekarri zituztela, gerran galtzaile izandakoak gehiengoak izan ziren herri batera ekarri ere. Ondorioa, elkarren etsai legez ikusi ahal zutela elkar. Ekarritakoek eta herrian sorturikoek.

Galtzaileak galtzaileari etsai iritzi! Eta bitartean benetako jauntxoak, benetako arerioak, lan-indarraren esplotatzaileak, baketan kasik. Berdin jazo zen hirurogeitako industrializazio hartan. Miseria gorriak ekarriak zirenak, inbasore ikusi! Euren borondatez etorriak izan balira moduan. Bada, non konpondu zen oker ulertzea, elkarren etsaia ikustea, maketo eta baskoroen artekoa? Dantzalekuetan. Umontzietan. Lantokietan. Eskoletan. Tabernetan.

Tabernak! Aipatu eleberri hori idaztean beste ideia nagusi bat etorri zitzaidan, hizkuntzaren bizipenari lotua kasu honetan. Tabernetan langileek, beharginak, obreroek, nahiago izan zuten elkarrekin hitz egin bakoi-tzak bereari eutsi baino. Tabernan euskaldunak erdaraz egin zion gure aitari. Euskaldunarentzat hizkuntzak ez du lehentasunik izan. Eta aitatak, nondik nora ikusiko zuen ba euskaraz? Amarekin, akaso? Ez zuen egin.

Treneko presoez ez genekien kasik ezer ere. Tabua zen. Aitak bere sorterrira itzultzea zaila zeukala, Franco hil ondoren jakin genuen. Orduan baietz, aitak herrira joateko eragozpenik ez zuela esan zuen, eta onartu amak. Batez ere anaietako bat Cadizen zelako, soldadutza egiten. Plana egin genuen. Aita, anaia txikiak eta hirurok. Jaenera lehenik, Cadizera gero.

Berrogei urtean ikusi gabeko sorterrira itzuli zen aita. Eta han ibili ginen, etxerik etxe, gerran hildako hura edo bestea zelan hil zen, guraso zaharrei azalpenak ematen gure aita. Hautsia zen harrizko gau luzea. Halako batean, berriz, aitak "Goazen!" esan zigun. Gaztelaraz, noski. Baskoen kontrako etengabekoak aditzen zituen tabernan. Hura ez zen berak gartzetan, anarkista sutsua izan zen garaian, ezagutu zuen herria. Gure herria, gu seme-alabon herria zen aitaren herria. Hantxe konturatu zen.

Ordurako aitaren tragedia beste bide batetik ulertzen hasia nintzen. Hori, alaba jaio berriari esker izan zen.

Etxean denok uste genuen gure aitak euskaraz hitz erdirik ere ez zekielako. Bai zera! Gure alabari 'erdu hona!', 'politita', 'neska' eta halakoak esaten zizkion. Luzaz golkoan gordeta ukan zituen hitzak, aske!

Ulertu nuen, bada, aitak ez zuela inoiz euskara ikasi nahi izan. Lehenengoetan, Gernika suntsitua berreraikitzen ekarri zutenean, ezin, ezta

bían sido perdedores. Como consecuencia todos se miraron como enemigos mutuos. Los traídos y los nacidos en el pueblo.

Los perdedores consideraban enemigo a los vencidos. Y mientras tanto los verdaderos señores, los verdaderos enemigos, los explotadores de la mano de obra, casi en la gloria. Lo mismo sucedió con el proceso de industrialización de los años sesenta. Aquellos que habían llegado empujados por la miseria fueron recibidos como invasores, ¡como si hubieran venido por voluntad propia! ¿Y donde se resolvió el entuerto, aquel odio mutuo entre maquetos y vascorros? En las plazas bailando, en los lechos, en las fábricas, en las escuelas, en los bares.

¡Los bares! Hay otra idea importante que también se me ocurrió cuando estaba escribiendo la novela que he citado anteriormente Esta idea está relacionada con la supervivencia de la lengua. Y es que en los bares los obreros, los trabajadores, los empleados, preferían hablar entre ellos en lugar de mantenerse cada uno en su lugar. En el bar los vasco parlantes hablaban en castellano a nuestros padres. Para ellos la lengua no era una prioridad. Y mi padre ¿donde iba a empezar a aprender euskara?, ¿quizás con mi madre? No lo hizo.

No sabíamos casi nada sobre los presos traídos a trabajar en la construcción del ferrocarril. Era un tema tabú. Sólo cuando murió Franco supimos que nuestro padre no podía volver a su pueblo, aunque según dijo mi madre, ya en ese momento, no había ningún impedimento para que pudiera hacerlo. Como teníamos un hermano haciendo el servicio militar en Cádiz mi padre, mi hermano pequeño y yo comenzamos a hacer planes para ir, primero a Jaén y luego a Cádiz.

Mi padre regreso a aquella tierra que no había visto en 40 años. Anduvimos en casa de unos y de otros, respondiendo a las preguntas sobre aquellos que habían caído en la guerra, y mi padre contaba su vida a los más ancianos. Se terminó la larga noche de piedra. Sin embargo, un día nuestro padre nos dijo ¡vamonos! En el bar no paraban de criticar a los vascos. Aquel lugar no era el mismo que había conocido cuando era un joven y apasionado anarquista. Entonces se dio cuenta que su pueblo era el pueblo de sus hijos e hijas. Nuestro pueblo.

Para entonces, y gracias al reciente nacimiento mi hija, comprendí la tragedia de mi padre desde otro punto de vista.

En casa todos pensábamos que nuestro padre no entendía nada de euskara. ¡Y un cuerno! Se dirigía a nuestra hija con palabras que había mantenido guardadas en silencio durante largos tiempo; 'Erdu hona!', 'politita', 'neska' y muchas otras del estilo.

*nahita ere. Gero, trenbidera pasatu zutenean, han ziren euskaldun batzuk baina, egiten ote zioten euskaraz? Ezezkoan nago. Baina eginda ere, ikasi nahi izan ote zukeen da orain kontua. Ezezkoan nago. Nago ez zuela ikasi nahi izan. Erbesteko hizkuntza ez ikastea, horra geratzen zitzaien erresistentziazko keinu bakarra. Tragedia da, gero! Umontzien bidez hala edo zelán konpondu den tragedia.*

*Aita hil ostean denbora batez trenean ibili nintzen, egunero, Bermeotik Bilbora eta Bilbotik Bermeora. Orduan poesia berez etortzen zitzaidan. Paduretan hegaziak begiztatzean, itsasoaren gorabeherei erreparatzean, begiak ibai ertzeko haltzetan galtzean, gauez Zugaztieta bakoak zeharkatzean hango ugaztun gauzaleen pentsamenduan, Galdakaoko industria guneak hastean, Atxuriko etxeetara iristean, poesia erruz etortzen zitzaidan. Urtaroak trenean ikasi nituen. Eta jendeak ere, trenean ikasi nituen. Oi, Gernikako lanbide-eskola berezira joaten diren neska-mutil hiren alaitasuna! Atzeratuak direla diote, baina bizi-pozaren aldetik ez garela inoiz euren parera iritsiko, trenean ikasi ahal izan nuen.*

*Treko eskolan isilik joanda, inguruko ahotik euskara ikasi izan dut. Beti. Eskualdeko istorioak aditu ditudan aldi berean. Trenari zor diot Nemrod izeneko ipuina. Trenak eman zidan 'Egutegi esperimental' liburua. Trenak eman dizkit 'Manhattan' liburuko ideia gehienak. Trenak eman zidan Epopeiak izeneko ipuina. Trenak aita eman zidan eta, ez ote da nahikoa?*

*Trean sartzea sormenaren atea zabaltzea da. beti. Nahiz eta musika jarrita eroan, tarteka herriaren ahotza aditzen dut trenean.*

*Trena, Sukarrieta eta Bermeo arteko trenbidea, gure azken mendearen bigarren partearen sinbolik gorena delakoan nago. Eta trenbide luzea, Bilbo eta Bermeo artekoa, gure bizitzaren ardatzetakoa dela, ziur dakit.*

*Beude, ba, hitzok, trena eraiki zuten haiei omen egiteko. Omen egiteko, baita ere, bizia bertan utzi duten langilei. Omen egiteko trenean langile izan zen, eta hemen kontatu ditudan pasarteetako askotan bidaide izan nuen harako lagun hari; Josu García Elorriaga. Bermeoko geltokian lanean, munduko mendietan gora ibiltzea egiten zuten ametsetan. Mendiota-ko batean geratu zen, betiko. Gure trenak denetarikoa ametsak eragiten dituela, berak zekien inork baino hobeto. Bego.*

*Edorta Jiménez  
Mundaca, 2005, maiatzan 3*

*Entonces comprendí que mi padre no había querido nunca aprender euskara. Al principio, cuando le trajeron a reconstruir Gernika, porque ni pudo, ni quiso. Más tarde, cuando le pusieron a trabajar en el ferrocarril, ¿acaso le hablaron en euskara los euskaldunes que allí había? Yo creo que no. Y creo que no quiso aprender porque no hacerlo era el último gesto de resistencia que le quedaba. ¡Menuda tragedia! Una tragedia que sólo tuvo desenlace a través de la descendencia.*

*Tras morir mi padre, durante un tiempo, a menudo tuve que viajar en tren desde Bilbao a Bermeo y desde Bermeo a Bilbao. Entonces me surgía la poesía por sí sola. Al observar las aves en la marisma, al observar la bajamar y la pleamar, al perder la vista en los alisos de la orilla del río, pensando en los mamíferos nocturnos al atravesar los bosques de Zugaztieta, al percibir el crecimiento de las zonas industriales de Galdakao, al llegar a la casa de Atxuri, la poesía me brotaba en abundancia. Aprendí las estaciones del año en el tren. También a la gente la conocí en el tren. ¡Oh! ¡Que alegría tienen los chicos y chicas que acuden a la escuela especial de Formación profesional de Gernika. Dicen que son retrasados pero jamás llegaremos a disfrutar de la vida como lo hacen ellos y ellas. Eso también lo aprendí en el tren.*

*Viajando en silencio en el tren de la escuela aprendí euskara de boca de quien estaba alrededor, a la vez que oía contar las historias de la comarca. Al tren le debo el cuento titulado Nemrod. El tren me dio el argumento de Egutegi esperimental. El tren me ha brindado la mayoría de las ideas de Manhattan. El tren me ha dado el cuento Epopeiak. Y El tren me dio a mi padre. ¿No es acaso suficiente?*

*Entrar en el tren es, siempre, abrir las puertas de la creatividad. Aunque lles la música puesta escuchas por momentos la voz de las gentes.*

*Creo que el tren, el tren que une Bermeo y Sukarrieta, es el símbolo más importante de la segunda parte del último siglo. Y sé con seguridad que el tren largo, el que une Bermeo y Bilbao, es un eje importante de nuestras vidas.*

*Sirvan pues, estas palabras como homenaje a quienes construyeron el ferrocarril. Homenaje también a los trabajadores que dejaron allí su vida. Homenaje a Josu García Elorriaga, quien fue trabajador del tren y amigo y compañero de viaje en varios de los pasajes que he relatado. Trabajando en la estación de Bermeo soñaba con ascender todas las montañas del mundo, y se nos quedo para siempre en una de aquellas montañas. Nuestro tren provocaba sueños de todo tipo y él lo sabía muy bien. Así sea.*

*Edorta Jiménez  
Mundaca, 3 de mayo de 2005*



# Kronologia

**1882ko martxoaren 22an**, Bizkaiko Gobernu Zibilak Zornotza eta Gernika artean eta Gernika eta Bermeo artean trenbideak jaritzeko azterketak egiteko baimena eman zion Francisco Rispa Perpiñari.

**1885eko otsailaren 20an**, Zornotza eta Gernika-Lumo arteko trenbide ekonomiko bat egiteko lana Luis de Landeoren esku utzi zen.

**1885eko uztailaren 17an**, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izenekoak sortu zen.

**1888ko abuztuaren 13an**, Zornotza eta Gernika-Lumo arteko trenbidearen inaugurazioa.

**1888ko uztailaren 6an**, Gernika eta Bermeo arteko trenbidea ustiatzeko eskubidea eman zioten Manuel María Arrótegui.

**1890eko abuztuaren 7an**, Manuel Lecandari, Lutzana eta Mungia arteko linearen ustiatzaileari, baimena eman zioten linea Bermeoraino eramateko.

**1891ko abuztuaren 7an**, Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno izenekoak behin betiko eskuratu zuen Gernika-Lumo eta Sukarrieta artean trenbidea egiteko eskubidea.

**1893ko martxoaren 15ean**, Gernika-Lumo eta Sukarrieta arteko trenbidearen inaugurazioa.

**1896ko irailaren 1ean**, Sukarrieta eta Bermeo arteko tranbiaren inaugurazioa.

**1918ko abuztuaren 15ean**, autobus eta kamioi zerbitzuek Sukarrieta eta Bermeo arteko tranbia ordezkatu zuten.

**1919ko azaroaren 26an**, Francisco de Las Heras y Ávilari, Bilbo eta Lezama arteko Tren Konpainiaren presidenteari, Mungia eta Bermeo eta Sukarrieta arteko trenbidea kudeatzeko eskubidea eman zioten.

**1920ko irailaren 20an**, Mungia eta Bermeo eta Sukarrieta arteko trenbidea ustiatzeko epea amaitu zen.

# Cronología

**22 de marzo de 1882**, el Gobierno Civil de Vizcaya autoriza la realización de estudios para el establecimiento de un ferrocarril entre Zornoza y Guernica y otro entre esta población y Bermeo a Francisco Rispa Perpiñá.

**20 de febrero de 1885**, Se otorga la concesión para la construcción de un ferrocarril económico de Amorebieta a Guernica-Luno a Luis de Landecheo.

**17 de julio de 1885**, Constitución de la Compañía del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno.

**13 de agosto de 1888**, inauguración del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno.

**6 de julio de 1888**, concesión del ferrocarril de Guernica a Bermeo a Manuel María Arrótegui.

**7 de agosto de 1890**, autorización a Manuel Lecanda, concesionario del ferrocarril de Luchana a Munguía, para prolongar su línea hasta Bermeo.

**7 de agosto de 1891**, concesión definitiva, a la Compañía del Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno, de un ferrocarril desde esta villa a Pedernales.

**15 de marzo de 1893**, inauguración del ferrocarril entre Guernica y Luno y Pedernales.

**1 de septiembre de 1896**, inauguración del tranvía de Pedernales a Bermeo.

**15 de agosto de 1918**, Servicios de autobuses y camiones sustituyen al tranvía de Pedernales a Bermeo.

**26 de noviembre de 1919**, se otorga la concesión del ferrocarril Munguía a Bermeo y Pedernales a Francisco de Las Heras y Ávila, presidente del ferrocarril de Bilbao a Lezama.

**20 de septiembre de 1920**, caduca la concesión del ferrocarril de Munguía a Bermeo y Pedernales.

**1937ko ekainaren 19an**, Gerra Zibilaren ondorioz apiriletik zerbitzua bertan behera geratu ondoren, zerbitzua berriro hasi zen.

**1938ko uztailaren 14an**, Ibaizabal gaineko zubia erabiltzen hasi zen. Zubia Gerra Zibilean suntsitu zutenez, zaharberritu egin behar izan zen.

**1939ko martxoaren 25ean**, Explotación de Ferrocarriles por el Estado erakundeak Sukarrieta eta Bermeo arteko linea luzatzeko aurreproiektua aurkeztu zuen.

**1944ko martxoaren 27an**, Sukarrieta eta Bermeo arteko sekzioa eraikitzeko proiektua behin betiko onartu zen.

**1944ko abuztuaren 24an**, Sukarrieta eta Bermeo arteko luzapen lanen inaugurazio ekitaldia.

**1955eko abuztuaren 16an**, Sukarrieta eta Bermeo arteko sekzioaren inaugurazioa.

**1958ko uztailaren 28an**, linean diesela jartzeko prozesua abian jarri zen, 1151 tren makina diesel-elektroa eskuratu baitzen.

**1965eko irailaren 24an**, Explotación de Ferrocarriles por el Estado erakundea FEVE, Ferrocarriles de Vía Estrecha, enpresa publiko bihurtu zen.

**1973ko maiatzaren 29an**, Zornotza eta Bermeo arteko trakzio elektrikoaren inaugurazioa.

**1973ko ekainaren 18an**, Bilboko linea eta Bermeo arteko lotune zuzena egiteko trenbidearen inaugurazioa.

**1979ko ekainaren 1ean**, Zornotza eta Bermeo arteko linea Eusko Kontseilu Nagusiari eman zitzaion.

**1982ko maiatzaren 24an**, Eusko Jaurlaritzak Eusko Trenbideak SA enpresa sortu zuen, eta enpresa horrek, besteak beste, Zornotza eta Bermeo arteko linea bere gain hartu zuen.

**19 de junio de 1937**, se reemprende el servicio tras haber quedado paralizado a finales de abril con motivo de la guerra civil.

**14 de julio de 1938**, entra en servicio el puente sobre el Ibaizabal, una vez reconstruido tras su voladura durante la guerra.

**25 de marzo de 1939**, anteproyecto de la Explotación de Ferrocarriles por el Estado para la prolongación de la línea entre Pedernales y Bermeo.

**27 de marzo de 1944**, aprobación definitiva del proyecto de construcción de la sección Pedernales-Bermeo.

**24 de agosto de 1944**, acto oficial de inicio de las obras de la prolongación entre Pedernales y Bermeo.

**16 de agosto de 1955**, inauguración de la sección Pedernales-Bermeo.

**28 de julio de 1958**, comienza el proceso de dieselización de la tracción en la línea, con la recepción de la locomotora diesel-eléctrica 1151.

**24 de Septiembre de 1965**, la Explotación de Ferrocarriles por el Estado se transforma en la empresa pública Ferrocarriles de Vía Estrecha, FEVE.

**29 de mayo de 1973**, inauguración de la tracción eléctrica entre Amorebieta y Bermeo.

**18 de junio de 1973**, inauguración de la vía de enlace directo entre la línea de Bilbao y la de Bermeo.

**1 de junio de 1979**, transferencia al Consejo General Vasco de la línea de Amorebieta a Bermeo.

**24 de mayo de 1982**, creación de la empresa pública del Gobierno Vasco Eusko Trenbideak, S.A., en la que, entre otras, se integra la línea de Amorebieta a Bermeo.

## Bibliografía

ACOSTA BONO, Gonzalo, *et al.*: *El canal de los presos (1940-1962)*, Bartzelona, Crítica, 2004.

ALZOLAY MINONDO, Pablo: *Memoria del proyecto de Ferro-carril de Amorebieta a Guernica y Luno*, Bilbo, Tipografía de la Viuda de Delmas, 1884.

ALZOLAY MINONDO, Pablo: *Ferrocarriles de vía ancha y de vía estrecha*, Madril, Gregorio Justeren tipografía establezimendua, 1885.

ALLEN, Peter & Robert Wheeler: *Steam on the sierra*, Londres, Cleaver-Hume Press Ltd., 1960.

ARANGUREN CASTRO, Javier: *Automotores españoles, 1906-1991*, Madril, Autoedizioa, 2002.

ARTECHE ELEJALDE, Ignacio, Lourdes Odriozola eta Juanjo Olaizola: *Urolako Trena, 1926-1986*, Azpeitia, Azpeitiko Udala, 2003.

ETXANIZ ORTUÑEZ, José Ángel eta Vicente del Palacio Sánchez, «Presos políticos: Mano de obra barata, El Hospital Penitenciario y el Batallón de Trabajadores durante la reconstrucción de Gernika-Lumo (1938-1945)» en *Congrés Els camps de concentració i el món penitenciari a Espanta durant la Guerra Civil y el franquisme*. Bartzelona, Museo d'Historia de Catalunya, 2003.

ETXEGARAI, José: *Historias de Mungia (1883-1900)*, Bilbo, BBK Fundazioa, 2003.

GUERRICABEITIA, José Antonio: *100 Años Cia. de los Ferrocarriles Vascongados, S.A.*, Bilbo, La Editorial Vizcaína, 1982.

Gobierno Provisional de Euzkadi, *Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales*, Mekanografiatutako agiria, 1937.

GÓMEZ MARTÍNEZ, José Antonio; *El ferrocarril Ferrol-Gijón*, Xixon, Ediciones Trea, 1999.

GÓMEZ MARTÍNEZ, José Antonio, *et al.*, *Ferrocarriles y tranvías en Linares, La Carolina y La Loma*, Barcelona, Monografías del Ferrocarril, 2004.

## Bibliografía

ACOSTA BONO, Gonzalo, *et al.*: *El canal de los presos (1940-1962)*, Barcelona, Crítica, 2004.

ALZOLAY MINONDO, Pablo: *Memoria del proyecto de Ferro-carril de Amorebieta a Guernica y Luno*, Bilbao, Tipografía de la Viuda de Delmas, 1884.

ALZOLAY MINONDO, Pablo: *Ferrocarriles de vía ancha y de vía estrecha*, Madrid, Establecimiento tipográfico de Gregorio Juste, 1885.

ALLEN, Peter & Robert Wheeler: *Steam on the sierra*, Londres, Cleaver-Hume Press Ltd., 1960.

ARANGUREN CASTRO, Javier: *Automotores españoles, 1906-1991*, Madrid, Autoedición, 2002.

ARTECHE ELEJALDE, Ignacio, Lourdes Odriozola y Juanjo Olaizola: *El Ferrocarril del Urola, 1926-1986*, Azpeitia, Ayuntamiento de Azpeitia, 2003.

ETXANIZ ORTUÑEZ, José Ángel y Vicente del Palacio Sánchez, «Presos políticos: Mano de obra barata, El Hospital Penitenciario y el Batallón de Trabajadores durante la reconstrucción de Gernika-Lumo (1938-1945)» en *Congrés Els camps de concentració i el món penitenciari a Espanta durant la Guerra Civil y el franquisme*. Barcelona, Museo d'Historia de Catalunya, 2003.

ETXEGARAI, José: *Historias de Mungia (1883-1900)*, Bilbao, Fundación BBK, 2003.

GUERRICABEITIA, José Antonio: *100 Años Cia. de los Ferrocarriles Vascongados, S.A.*, Bilbao, La Editorial Vizcaína, 1982.

Gobierno Provisional de Euzkadi, *Ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Pedernales*, Documento mecanografiado, 1937.

GÓMEZ MARTÍNEZ, José Antonio; *El ferrocarril Ferrol-Gijón*, Gijón, Ediciones Trea, 1999.

GÓMEZ MARTÍNEZ, José Antonio, *et al.*, *Ferrocarriles y tranvías en Linares, La Carolina y La Loma*, Barcelona, Monografías del Ferrocarril, 2004.

GONZALEZ RUIZ, Nicolás: *Genio y figura del Padre Pulgar*, Madrid, Gráficas Lebrija, 1960.

KUTSCHIK, Dietrich; *Lokomotiven von Borsig*. Freiburg (Breisgau), Transpress, 1985.

LAFUENTE ZORRILLA, Isaias: *Esclavos por la Patria*, Madrid, Ediciones Temas de Hoy, 2002.

LOPEZ, Mikel y Javier Vivanco; «El ferrocarril de Amorebieta a Bermeo», *Carril-en 27, 28 eta 30 zenbakiak*, Bartzelona, 1989.

Herri Lan Ministerioa. *Estudio económico de las líneas dependientes de Ferrocarriles de Vía Estrecha*, Madrid, 1966.

Oficina de Estudios de las Compañías de los Ferrocarriles del Norte y de M.Z.A.: *El problema de los ferrocarriles en construcción*, Madrid, Gráfica Administrativa, 1936.

OLAIZOLA ELORDI, Juanjo: *Bilbo eta Donostia arteko trenaren material motorea*, Bilbo, EuskoTren, 2001.

OLAIZOLA ELORDI, Juanjo: *Vasco-Navarro trena*, Bilbo, EuskoTren, 2002.

ORMAECHEA, Ángel M<sup>a</sup>: *Ferrocarriles en Euskadi, 1855-1936*, Bilbo, Eusko Trenbideak, 1989.

ROSELLÓ IGLESIAS, Javier, «Locomotoras BB Alsthom», *Carril, 6.9 zenbakia*, Bartzelona, 1982.

SALMERÓN I BOSCH, Carles: *El tren de Caldes*, Barcelona, Editorial Términus, 1991.

UCELAY ISASI, José: *El ferrocarril de Bermeo*, Bilbo, Imprenta de la Casa de la Misericordia, 1924.

GONZALEZ RUIZ, Nicolás: *Genio y figura del Padre Pulgar*, Madrid, Gráficas Lebrija, 1960.

KUTSCHIK, Dietrich; *Lokomotiven von Borsig*. Freiburg (Breisgau), Transpress, 1985.

LAFUENTE ZORRILLA, Isaias: *Esclavos por la Patria*, Madrid, Ediciones Temas de Hoy, 2002.

LOPEZ, Mikel y Javier Vivanco; «El ferrocarril de Amorebieta a Bermeo», en *Carril N° 27, 28 y 30*, Barcelona, 1989.

Ministerio de Obras Públicas. *Estudio económico de las líneas dependientes de Ferrocarriles de Vía Estrecha*, Madrid, 1966.

Oficina de Estudios de las Compañías de los Ferrocarriles del Norte y de M.Z.A.: *El problema de los ferrocarriles en construcción*, Madrid, Gráfica Administrativa, 1936.

OLAIZOLA ELORDI, Juanjo: *Material motor del ferrocarril de Bilbao a San Sebastián*, Bilbao, EuskoTren, 2001.

OLAIZOLA ELORDI, Juanjo: *El Ferrocarril Vasco-Navarro*, Bilbao, EuskoTren, 2002.

ORMAECHEA, Ángel M<sup>a</sup>: *Ferrocarriles en Euskadi, 1855-1936*, Bilbao, Eusko Trenbideak, 1989.

ROSELLÓ IGLESIAS, Javier, «Locomotoras BB Alsthom», en *Carril N° 6.9*, Barcelona, 1982.

SALMERÓN I BOSCH, Carles: *El tren de Caldes*, Barcelona, Editorial Términus, 1991.

UCELAY ISASI, José: *El ferrocarril de Bermeo*, Bilbao, Imprenta de la Casa de la Misericordia, 1924.

## Zornotza eta Bermeo arteko treneko langileen zerrenda, 1973an Relación de trabajadores del Ferrocarril de Amorebieta a Bermeo en 1973

Izen abizenak/Nombre y apellidos	Lan maila/Categoría laboral	Soldata eskala/Escala salarial
<b>BULEGO ZERBITZUA/SERVICIO DE OFICINAS</b>		
Manuel Arenaza Balsa	Linearen arduraduna/Encargado de Linea	1
María Lecumberri Rementeria	Negoziatu burua/Jefe Negociado	4
Ricardo Aldamis-Echevarria Acaiturria	Negoziatu burua/Jefe Negociado	4
Emilia Basañez Comadira	Administrazio ofiziala/Oficial Administrativo	6
José Benito Salazar González	Administrazio ofiziala/Oficial Administrativo	6
José Alcibar Urberuaga	Administrazio ofiziala/Oficial Administrativo	6
Félix Zallo Uruburu	Administrazio ofiziala/Oficial Administrativo	6
<b>MUGIMENDUA-GELTOKIAK/MOVIMIENTO-ESTACIONES</b>		
Julio Beltrán Cámara	Mugimendu ikuskatzailea/Inspector de Movimiento	3
Donato Estancona Euba	Faktorea/Factor	9
Isidoro Alberdi Uribe	Geralekuko arduraduna/Encargado de Apeadero	10
Luciano Rodríguez Tardio	Geralekuko arduraduna/Encargado de Apeadero	10
Jesús Moreno Saralegui	Geltoki burua/Jefe Estación	6
Carmelo Gutierrez Gil	Geltoki burua/Jefe Estación	6
Leoncio Fernández García	Baimendutako faktorea/Factor Autorizado	7
Eufrasio Pértica Orbe	Baimendutako faktorea/Factor Autorizado	7
M <sup>a</sup> Amparo Candina Arzanegui	Saltzailea/Expendedora	12
Agustín García Charramandiet	Geltoki eta trenetako espezialista/Especialista Estaciones y Trenes	11
Jose Antonio Chavero Romero	Geltoki eta trenetako espezialista/Especialista Estaciones y Trenes	11
Alejandro Vicente Izurriaga	Geltoki burua/Jefe Estación	6
Pedro vigara Domínguez	Baimendutako faktorea/Factor Autorizado	7
Julián Díaz de Mendivil Saez-Cortazar	Geltoki burua/Jefe Estación	6
Francisco Murillo Esmeralda	Geltoki burua/Jefe Estación	6
Manuel Gómez García	Geltoki burua/Jefe Estación	6
Rafael Olalde Iradi	Baimendutako faktorea/Factor Autorizado	7
Manuel Pastor Escribano	Geltoki eta trenetako espezialista/Especialista Estaciones y Trenes	11
<b>MUGIMENDUA-TRENAK/MOVIMIENTO-TRENES</b>		
Antonio Vivancos García	Tren burua/Jefe de Tren	7
Juan Murillo Hidalgo	Tren burua/Jefe de Tren	7
José Terreros Cotel	Tren burua/Jefe de Tren	7
Gregori Moreno Tejada	Tren burua/Jefe de Tren	7

<b>Izen abizenak/Nombre y apellidos</b>	<b>Lan maila/Categoría laboral</b>	<b>Soldata eskala/Escala salarial</b>
Máximo Arrospide Mintegui	Tren burua/Jefe de Tren	7
Ignacio Antolín Sauco Vallez	Tren burua/Jefe de Tren	7
Rafael Urteaga Unzueta	Balazta zaintzailea/Guarda Frenos	9
<b>TRENBIDEAK ETA OBRAS/VIA Y OBRAS</b>		
Salvador Fernández Orella	Sekzio burua/Jefe de Sección	3
Pedro Alcibar Larrea	Langilea/Obrero	11
Maria Begoña Aldana Uruburu	Zaindaria/Guardesa	12
Maria Dudagoitia Arteché	Zaindaria/Guardesa	12
Félix Berrojaldiz Arrazola	1. mailako barrerazaina/Guarda Barrera 1ª	12
Miguel Ramírez Ramírez	Makinista Bateadorea/Maquinista Bateadora	7
Felipe Uriona Abaitua	Peoia/Peón	12
Juan Ibarquengotia Chinchurreta	Langilea/Obrero	11
Manuel Martín Tena Muñoz	Langilea/Obrero	11
Calisto Laucirica Ortuzar	1. mailako barrerazaina/Guarda Barrera 1ª	11
Julio Guerricaechevarria Lecumberri	Arduraduna/Capataz	8
Francisco Mendiola Izaguirre	Langilea/Obrero	11
Gregorio Zorrozuza Basterrechea	Langilea/Obrero	11
Elias Alcibar Urberuaga	1. mailako langilea/Obrero 1º	10
Saturnino Olano Chacartegui	Langilea/Obrero	11
Timoteo Iturriaga Acordagoitia	Langilea/Obrero	11
Florentino Pagay Inchausti	1. mailako barrerazaina/Guarda Barrera 1ª	11
<b>TAILERRAK/TALLERES</b>		
Manuel González Sagasti	1. mailako ofizio ofiziala, tornularia/Oficial Oficio 1ª Tornero	7(1)
Daniel Cruz López	2. mailako ofizio ofiziala zaindaria/Oficial Oficio 2ª Celador	8
Felipe Nebreda Muñoz	2. mailako ofizio ofiziala Soldadorea/Oficial Oficio 2ª Soldador	8
Jesús Ortiz de la Cruz	2. mailako ofizio ofiziala Margolaria/Oficial Oficio 2ª Pintor	8
Jose Ramón Eguarte Araucua	2. mailako ofizio ofiziala doitzalea/Oficial Oficio 2ª Ajustador	8
Pedro Martín Serrano Salas	2. mailako ofizio ofiziala arotza/Oficial Oficio 2ª Carpintero	8
Asensio Laucirica Legarza	2. mailako ofizio ofiziala arotza/Oficial Oficio 2ª Carpintero	8
Deogracias Villasante Gómez	2. mailako ofizio ofiziala igeltseroa/Oficial Oficio 2ª Albañil	8
Victoriano Olalla Hoyos	Ofizio laguntzailea/Ayudante de Oficio	9
<b>TRAKZIOA/TRACCION</b>		
Tomás Espejo Martínez	Makinista/Maquinista	7
Cristobal Muñecas Quiroga	Makinista/Maquinista	7
Patricio Pozo García	Makinista/Maquinista	7
Victoriano Felipe Gómez	Makinista/Maquinista	7
Juan Bautista Soler Benavent	Sugin baimendua/Fogonero Autorizado	8
Daniel Guinea Montoya	Trakzio laguntzailea/Ayudante Tracción	8

(1) Une hauean Deposito buru lanak egiten ditu, E.S. nº3./ (1) Actualmente en funciones de Jefe de Deposito, E.S. nº3. Gernikan, 1973ko martxoaren 9an./Guernica, 9 de Marzo de 1973.